

EUROPARAKO TXARTELA POLTSIKORATU DUTE

Polonian lehiatuko dira Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena pertika jauzilariak, eta Italian du hitzordua, berriz, Eneko Carrascalek / 38

Eneko Carrascal, Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena, Mojategin, martitzenean.

XABI URZELAI

Kargutik kendu egin dute Martin

Bergarako Geyser lantegian enplegu erregulazio espedientea abiaraziko dute gaur, egubakoitza / 3



ANTZUOLAKO JAIK / 21

puntuak

Abentura kirolen gaineko erreportajea

Unai Telleria diseinatzaileari elkarriketa

SINADURAK

	ANDER BOLIBAR / 34
	ARITZ ARRIETA KABIETA / 6
	AITOR UGALDE / 36
	ITSASO ERRETOLATZA / 10
	AGURNE BARRUSO / 48

MERKEALDIA

Erreflexuen aurkako
2 mō betaurreko
graduatu

77€

aurreko prezioa: 97€

www.multiopicasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Eskaintza baliagarria 2017/08/31 arte. Konturatu itzazu zure optikan kargenaren eragerrak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

Matrikula

Uztailaren 13tik 19ra

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

Francisco Martin zuzendaria, kalera

Atzo arratsaldean, eguena, Goienak jakin zuen Edesa Industrialeko zuzendari nagusia kargutik kendu dutela; haren ordezkoa zein izango den ez dute jakinarazi; bestalde, gaurtik, barikua, Geyserreko 20 langile EREan hasiko dira

Ubane Madera DEBAGOIENA

Francisco Martin, Edesa Industrialeko zuzendari nagusia, kargutik kendu zuten atzo, eguena. Hala jakinarazi zuen CNA Groupeko zuzendaritzak, arratsaldean Langile Batzordearekin izandako batzarrean. Haren ordezkoa zein izango den, oraingo, ez dute jakinarazi.

LAB sindikatutak, Langile Batzordean gehiengoa duen sindikatuak, Goienari egindako urgentziazko balorazioan aditza eman zuten kaleratze horixe dela, hain justu ere, enpresaren orain arteko "desordenaren" eta "inprobisazioaren" eta "bideragarritasun plan ezaren" erakuslea.

Edozelan ere, sindikatuko ordezkariak gaineratu zuten "enpresaren bideragarritasunean sinesten segitzen" dutela, baina "oraingo zuzendaritzarekin" ez dutela hori "posible ikusten".

Geysarren, EREA

Martin kaleratzeaz gainera, LABetik jakinarazi zuten Bergaran dagoen Geysar lantegian enplegua erregulatzeke espediente indarrean sartuko dutela gaur, egubakoitza. Hain zuzen ere, gas bidezko ur berragailuak fabrikatzen dituen lantegi horretako 20 langile sartu dituzte gaur EREan.



Francisco Martin GOIENA

Bestalde, hainbat komunikabidek esandakoaren arabera, CNA Groupeko zuzendariak Arantza Tapiari, Jaurlaritzako Garapen Ekonomikorako sailburuari esan diote hil honen bukaerarako mahai gainean jarriko dutela negozioren bideragarritasun plana.

Protestak

Azken orduko horiek ez dute laguntzen joan den egubakoitzetik Edesa Industrial, konkurtso aurrekora aurkeztu zenetik sortutako kezka arintzen.

Ildo horretan, etsipena partekatu zuen Langile Batzordeak, sindikatuak Jorge Parladerekin, CNA Taldeko presidentearekin,

batzartu ondoren. "Bilera etsigarria izan da, ez digutelako etorkizunerako planik aurkeztu" (...) Gure borondatea proiektuarekiko osoa da, baina gure konpromisorako beharrezkoa da 30 lagun kaleratzeko enplegua erregulatzeke espediente kentzea. Ez badu horrela egiten, gatazka egotzen aurkituko gara".

Horrekin batera, hori bai, partekatu zuten CNA Groupek eurei esandakoaren arabera, aurre-konkurtoa aurkeztu arren ez duela hartzekodunen konkurtsoa aurkezteko asmorik.

Edozein modutan, eurei iragarritako 30 langileren kaleratze asmoen aurrean, langileek lanuztea eta protesta egin zuten atzo goizean Garagartzako plantaren aurrean.

Alkatea, oso kezkatuta

Kezka handia erakutsi zuen, baita ere, Maria Ubarretxenak, Arrasateko alkatea: "Udala garen heinean, kezka handia dugu, herriko enpresa delako, gertatutakoa gertatu eta gero oraindik sentibilitatea hor dagoelako, langile asko Arrasatekoak direlako, eta ematen du denok enteratu gara prentsa bitartez, eta ikusten dugu gardentasun falta izugarria duela (...) Guk helarazi diogu Eusko Jaurlaritzari beti gure

kezka; gu herrian egonda bage-neukala beste nolabaiteko gertuko informazioa esaten ziguna gauzak ez zihoazela ondo, material falta zegoela, eskaerak ez zirela irteten... eta hor nolabaiteko desberdintasuna bazegoela, enpresak esaten zigunaren eta guri jendeak helarazten zigunaren artean".

Denbora beharra

Enpresari dagokionez, berriz, CNA Groupek komunikatu bitartez aitortu zuen unitate produktiboa eskuratu ondoren identifikatu zutela ustiapen kontuaren oreka lortzeko beharrezko inbertsioa espero baino askoz ere handiagoa dela. Jakinarazi zuten 2014tik hona -Fagor produktuen fabrikazioa eskuratu zutenetik-aurreikusitakoa baino 20 milioi euro gehiagoko inbertsioa egin dutela. Gaineratu zuten tentsio

finantzarioek eragin dutela diruzaintza kontuaren gutxitzea -likideziaren gutxitzea- eta, hain justu, arrazoi horiengatik aurkeztu zutela ekainaren 30ean konkurtso aurrekoa.

Gaineratu zuten, edozelan ere, helburua dela enpresa eta negozioa birmoldatzeko nahikoa denbora izatea; eta horrek dakarrela entitate finantzarioekin akordio berriak lortzea, eta baita enpresa egitura sostengarri eta egonkorra definitzea ere.

Gauzak horrela eta joan den barikuan aurkeztutako hartzekodunen konkurtso aurrekoa mahai gainean, negoziaren bideragarritasun planaren zain segitzen dute alde guztiek. "Bideragarritasun plana langileen bizkar ez egitea", eskatu diote, besteak beste, Langile Batzordetik enpresako zuzendaritzari.

Utzi Nafarroako Erriberako aireari zure leihotik sartzen...

...eta, berarekin batera, gure lurraldearen produkturik natural eta jatorrenak.

PRODUKTUA	PREZIOA (€/kg)	UNITATEA (kg)	OSORIK
• ZAINZURIAK 6/8 780 gr. ESTRA LODIA	7,73 €	12	92,76 €
• ZAINZURIAK 8/12 780 gr. ESTRA LODIA	7,55 €	12	90,60 €
• ZAINZURIAK 13/16 780 gr. OSO LODIA	6,69 €	12	80,28 €
• ZAINZURIAK 6/8 390 gr. ESTRA	3,31 €	24	79,44 €
• ZAINZURIAK 9/12 390 gr. ESTRA	2,86 €	24	68,64 €
• ZAINZURI PUNTAK 10/14 230 gr.-ko POTEA	1,84 €	24	44,16 €
• ZAINZURI PUNTAK 6/8 230 gr.-ko POTEA	2,50 €	24	60,00 €
• PIKILLO PIPER ARTISAU 212ko POTE ESTRA	1,73 €	24	41,52 €
• PIKILLO PIPER ARTISAU, ZILINDRIKOA 1/2 Kg.	2,87 €	24	68,88 €
• PIKILLO PIPERRA BETETZEKO, ZILINDRIKOA 1/2 Kg.	1,90 €	24	45,60 €
• ORBURU POTEA V720 660 gr.	3,34 €	12	40,08 €
• BABATXO FRIJITUAK, POTEA 1/2 K	3,45 €	12	41,40 €

EGIN ZURE ESKARIA, LEHENBAILEHEN

TEL.: 948750483

WHATSAPP: 690638816

ESKAINITZA INDARREAN URTEA BUKATU ARTE

CONSERVAS GUINDUMAR

www.conservasguindumar.es

ORDAINKETA TRANSFERENTZIAREN BIDEZ / GARRAJA APARTE
PROMOIZIOZKO KODIGOA: 31313502602
 Bisita gaitzazu Facebooken



Garagartzako plantan diharduten Edesa Industrialeko langileak atzo, eguena, elkarretaratzean. ANDONI BODES

LagunAro EPSV: 50 urte "jendea zaintzen"

Mondragon Taldeko eta EAEko erakundeetako ordezkari ugari elkartuko dira gaur, barikua, LagunAro EPSVren egoitzan; tartean, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arrasateko mugimendu kooperatibistaren sortzaileetako bi: Gorroñogoitia eta Ormaetxea

Ubane Madera DEBAGOIENA

27.824 mutualista aktibo; 71.041 Osasun Laguntzaren onuradun (bereziak barne) eta 13.050 pentsiodun. Mutualista horietatik 27.824 kotizatzaile dira, Lagun Aro EPSVn sartutako 131 kooperatibetako –Hego Euskal Herri osokoak– jarduneko mutualistak. Datu horiekin ospatuko du mende erdia Lagun Aro EPSVk, gaur, egubakoitza.

Datuak bestela interpretatuta, 2014a ezker duen handitzeko joerari eutsita hartuko ditu 50 urteak. "Kaudimena da enpresa baten osasunaren adierazlerik garbiena; iaz, berez, %4koa bazen, Lagun Aro zegoen %14an", jarri du enpresaren egoera onaren adibide modura Carlos Mazak, EPSVren prentsa ordezkariak.

Kooperatiben sortzaileak eta beste

Gaur, 10:30ean hasiko dira ospakizunean parte hartuko dutenei harrera egiten, ekitaldia 11:00etan hasiko da eta. Bisitari bereziak izango dituzte, gainera, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, besteak beste.

Horiez aparte, 150 lagunren parte-hartzea dute baieztatuta, LagunAro EPSVk Olandixon duen egoitzan. Tartean izango dira, ezustekorik ezean, Arra-



LagunAro EPSVko lantaldea, azken batzar orokorraren ondoren. LAGUN ARO

sateko kooperatiben mugimenduko sortzaileetakoak izan ziren Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Mari Ormaetxea.

Izan ere, bioi eta Lagun Aro EPSVren ibilbidean garrantzia izan duten beste hainbati omenaldia egin behar diete. Besteak beste, Iñigo Arregi Arrasateko eskultura-egileak urteurrenerako propio egindako eskulturaren erreplika bana emango diete.

Eginkizuna

"Gure zeregina da jendea babestea erretiratzen denean, baina baita

lanean dabilenean ere, ezintasuna dutenean... 50 urte gabilta jendea zaintzen eta hasierako pausoak besterik ez da izan. Gaur egun ultratrailak eta daude modan, eta gurea ere horrelako zerbait da, maratokia", azpimarratu du Mazak.

Gertaera historiko garrantzitsuenak

- **1959** Ekainean sortu zen, kooperatibisten babes soziala asetzeko. Izan ere, norberaren konturako langile izaera eman zieten kooperatibistei agindu bitartez, eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorretik kanpo geratu ziren.
- **1967** Kooperatibistak Langile Autonomoen Erregimen Berezian sartu ziren. Eta LagunAro EPSV egungo ereduaren arabera konfiguratu zen.
- **1983** Talde Kooperatiboaren lehen enplegu krisia. Enplegurako Laguntzaren prestazioa ezarri zen.
- **1984** LagunAro EPSV Gizarte Segurantzaren Erakunde Laguntzaile gisa aitortu zuten, Osasun Laguntzaren eta Aldi Baterako Ezintasunaren prestazioen kudeaketarako.
- **1995** Erretiroa hartzeko oinarri arautzailea kalkulatzeko 30 urteko aldia ezarri zen.
- **1999** Martxoaren 23an Arogestion Ahorro-Jubilacion Entidad de Prevision Social Voluntaria eratu zen.
- **2001** Irailetik aurrera, Arogestion EPSVk bi plan onartu zituen: Plan Misto eta Diru Plana.
- **2002** Alta berrietarako, erretiro pentsioaren gehieneko portzentajea lortzeko (%60) behar den urte kopurua 35 urtera zabaldu zen, eta kotizatutako urte bakoitzeko %1,71ko portzentajea aitortu zen, ordura arteko %2aren orde.
- **2005** Osasun Laguntzaren prestaziorako Gizarte Segurantzarekin zegoen lankidetzak amaitu zen, eta Lankidetzak Hitzarmena sinatu zen Eusko Jaurlaritzarekin, 2005, 2006, eta 2007. urteetarako.
- **2008** Urtarrilaren 1etik aurrera, LagunAro EPSVko kolektibo osoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan integratu zen. Une hartan, Osasun Laguntzarako eredu berria ezarri zen, Sistema Publikoak ematen zuena osatzeko.
- **2010** LagunAro EPSVko Pentsio eta Kotizazio Sistemaren erreforma integrala onartu zen. Ardatz nagusiak bi dira: LagunAro EPSVren Pentsio Ereduaren Berrikuspenean, testuinguru sozial eta arautzaile berrira egokitzeko; eta sistema publikoaren pisu erlatiboa handitzea euren Sistema Mistoaren osan, Sistema Publikorako kotizazio oinarria, Langile Autonomoen Erregimen Bereziaren bitartez bideratua, mutualistak duen kotizazio indizeari dagokion kontsumo aurrerakinaren %60 izateko, eta gainerako %40a LagunAro EPSVko kapitalizazio prestazioetarako kotizatze.

Euskal Herriko jolasparkeen gida garatu dute

Jolasparkeak.eus atarian bi espazio bereizi dituzte. Batetik, jolas parkeak: txirristak, kulunkak edo antzerako estruktura eskaintzen dituzten espazioak. Eta bestetik, jolasguneak: plaza bat, erreka bazterra, lorategia edo baso ingurune bat izan daitezke, besteak beste. Gidak 13 gune jasotzen ditu, baina osatzen joango dira; asmoa da hilean parke edo gune bat gehitzea.

Ikasgela ibiltaria etorriko da datorren astean eskualdera

Arrasaten –uztailak 14, Seberren–, Eskoriatzan –18an, plazan– eta Bergaran –27an igerileku ondoan– izango da, 8 eta 16 urteko haur eta gazteei Kode Eskolak zuzendutako programazio tailerrak eskaintzeko, 45 minutukoak. Helburua da haur eta gazteei teknologien erabilera egokia eta sortzailea erakustea eta teknologiaren aldeko jakin-mina eta bokazioa sustatzea.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA



Berrikuntza gunetik, parke teknologikora

Garaia Berrikuntza Guneak 10 urte bete ditu aurten. 2007an zabaldu zituen ateak eta hamarkada honetan une gozo eta kaxkarrak bizi izan ditu. Aurrera begira jarrita, berrikuntza gune izatetik parke teknologiko izatera jauzia egiteko lanean ari dira

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

2007ko ekainaren 19an inauguratu zen ofizialki Garaia Gunea, Mondragon Taldeak erakunde publikoen babesarekin berrikuntza enpresariala indartzeko egindako apustu gisa.

Baina proiektua bera mende berriaren hasieran hasi zen forma hartzen. "2000. urtea zen Mondragon Taldean etorkizuneko proiektu hau garatzen hasi ginenean. Egitasmo berritzailea izan zen, batez ere, duela 17 urte egindakoa zela pentsatzen badugu. Berritzailea izan zen lau hanka hauetan oinarritzea zue-lako helburu: hezkuntza, ikerketa, garapen teknologikoa eta enpresa", azaldu gaur egun Garaiaiko presidente den Javier Vallsek.

Hasierako helburuak

Inaugurazio ekitaldian izan ziren orduko alkate Ino Galparsoro, Juan Jose Ibarretxe lehen-dakaria, Jose Joan Gonzalez de Txabarri jarduneko ahaldun nagusia eta Ana Agirre, Industria eta Turismo sailburua.

Zentroaren kudeatzaileek epe luzerako apustua zela azpimarratu zuten, eta helburuen artean 2020. urtean 2.000 ikertzaile edukitzea finkatu zuten. Baina gaur egun 900 langile daude, eta ho-



Garaiaiko biribilgunetik, eraikin nagusia eta MUren egoitza. XABI GOROSTIDI

rietatik 500 I + G aktibitateetara dedikatzen dira.

Inor gutxi espero zuen krisi ekonomikoaren ataritan hasi zuten ibilbidea Garaia, eta, hein handi batean, faktore horrek eragin du gaur egun ikertzaile kopuru horretatik urrun egotea.

Hala ere, langile kopuruaren helburua urrun gelditzen den arren, Garaia osasuntsu dago. %80ko okupaziotik gertu dago, eta datozen urteetan enpresak erakartzeko gai den erreferentzia zentro izateko lanean jarraituko dute.

Garaia, orain

- **40** enpresa.
- **900** langile.
- **150.000.000** euroko fakturazioa 2016an.
- **900** langile, horietatik 500 I + G aktibitateetan zentratuta.
- **240** ekitaldi 2016an zehar.
- **11.000** pertsonak parte hartu 2016ko ekitaldietan (50 lagun, batez beste).

"Debagoieneko BPGaren ia %50 industriatik dator; EAEn, %24,4"

JAVIER VALLS GARAIAKO PRESIDENTEA

Aurten hartu du Garaiaiko presidente kargua Javier Valls-ek Joseba Sagastigordiarri erreleboa hartuta. Mondragon talde barruan ibilbide zabala duen pertsona da, eta, esaterako, Garaia inauguratu zenean bertan, Mondragon Taldeko Sustapen Zentroan.

10 urte bete ditu aurten Garaiak. Nola gogoratzen dituzu 2007ko lehen urratsak?

Hor hasi zen Garaiairen garapen fisikoa, espazioari dagokionez, eta, pixkanaka, bailara zati hau enpresaz betetzen hasi ginen. Kuantitatiboki esan daiteke hasiera arrakastatsua izan zela. Baina



XABI GOROSTIDI

ondo hasi arren, 2008an krisi ekonomikoa agertu zen, denok ezagutzen ditugun bi alorretan: enpresariala eta eraikuntzakoa. Ez ziren garai aproposenak enpresen ikuspegitik negozio edo abentura berriei ekiteko. Eta bestetik, eraikuntzako burbuilaren *boom*-a izan zen. Akaso, gehiago igarri zen etxebizitzaren eraikuntzan, baina

enpresa berrien eraikuntzan ere eragin nabaria izan zuen. Ez zen testuinguru atsegina izan Garaia proiektuaren garapenerako, baina azpimarratu beharra dago, nahiz eta hasierako garapena eten zen, 10 urte hauetan enpresa kopuru aldetik urtetik urtera mantendu egin garela beti, eta ez dugula enpresa kopuruan jaitsierarik izan.

Zeintzuk dira etorkizunera begira Garaiairen erronkak?

Gure ilusioa edo nahia Garaiak bi funtzio nagusi betetzea izango litzateke. Lehen, espazio fisiko batetik harago, azpiegitura eta zerbitzu aldetik enpresei eskaintza integrala eskaintzeko gai izango den gunea izan dadila nahi dugu. Erreferentzia zentro izateko nahi dugu, batez ere, Garaian edo haren inguruan dauden enpresen arteko sinergiak erraztuko dituen ekosistema bat bezala egonkortzeko. Eta bigarren funtzioa ikuspuntu industrialetik bailararekin dugun lotura sendotzea litzateke. Debagoiena bereizgarri ekonomiko oso garbia duen eskualdea da. Bertako barne produktu gordinaren ia %50 industriatik dator. Euskal Autonomia Erkidegoan datu hori %24,4koa da eta Espainiako Estatuan, aldiz, %15,5koa. Beraz, Debagoiengan industriak duen pisua Euskal Autonomia Erkidegokoaren bikoitza da, eta Espainiako Estatuarenarekin alderatuta, aldiz, hirukoitza. Horregatik, Garaiak bailarari egingo dion ekarpena funtsezkoa izango da, industriaren alorrean berrikuntza, aktibitate berriak eta teknologia berrien garapena sustatzen.

Txernobylgo haurren bisita

Txernobil Elkartearen eskutik asteotan Euskal Herrian dauden hainbat ume ukrainar Goienaren egoitzan izan ziren eguazten goizean, beraien euskal familiek eta bi begiralek lagunduta.

GOIENA aldizkaria eta *Puntua* nola egiten diren ikusi zuten, baita Arrasate Irratiaren eta Goiena telebistaren funtzionamendua bertatik bertara ezagutu ere.



TXOMIN MADINA



ZABALIK

ARITZ ARRIETA KABIKETA

Penaz hiltzea

Penaz hiltzea uste duguna baino normalagoa da? Izan ere, horrekin lotuta, pertsona batzuek esaten dute, beste terminologia bat erabilia, bihotza puskatzen dela, hain zuzen ere.

Edozelan ere, zientziak ez omen du onartzen terminologia hori.

Adierazpen zuzena hauxe bera da: Takot-Tsuboren kardiopatia.

Baina errealitatea beste bat da.

Jakin badakigu eta entzun entzun dugu: "Penaz hil da..."; "Bihotza apurtuta hil da...".

Diotenez, kasu horietan, bihotzak bere ponpaketa %60ra jaisten du eta horrek bihotzaren geratzea ekartzen du.

Horrenbestez, esan dezakegu emozioak parte hartzen duela edota emozioak izan daitezkeela bihotz-apurtzearen zergatienetako bat.

Emakumeak emozionalki sentiberagoak direnez,

posibilitate handiago daukate penaz hiltzeko.

Hiltze horiek adineko pertsonetan gertatzen dira gehiago, eta, lehen esan dudan moduan, adineko emakumeengan izaten dira, bereziki.

ORAIN, HORI BAI, IKUSI BEHARRA DAGO ERREMEDIAO GAIXOTASUNA BAINO TXARRAGOA DEN

Baina, egia esatearren, hiltze horiek ez dira %2 baino gehiago bihotzeko patologiaz hiltzen direnen artean.

Dena dala, emakumeak gizonezkoak baino sentiberagoak dira?

Edota gizonezkoek beren emozioak gorde egiten dituzte nonbait?

Beste modu batean kudeatzen dituzte?

Denetarako erremedioak daudenez, hona hemen bat.

Badirudi Spotifyk badaukala konponbidea eta dagoeneko milioi bat pertsonak izena eman dutela musika sail berezi batean.


Besteak beste, Coldplay taldearen *The scientist*, Adele-ren *Someone like you* edota Justin Timberlake-ren *Cry me a river* daude sail horretan.

Orain, hori bai, ikusi beharra dago erremedioa gaixotasuna baino txarragoa den.

Izan ere, hori bakoitzaren kontua izango da...

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Katalanen arteko arazoa

LUIS ARANBERRI 'AMATIÑO'
HTTPS://LABUR.EUS/G30CD

Junts Pel Si (PDeCat eta ERC) eta CUP parlamentari-taldeek atzo elkarrekin onartu zuten Erreferendum Legeak frogatzen du –aurrez zalan-tza zirrikiturik bazen–, Kataluniak egun bizi duen eztabaidarik nagusia ez dela Kataluniaren eta Espainiaren arteko auzia, katalanen artekoa baizik. Kontua ez da berria; ezta katalanena soilik ere.

Euskal hiritar ugariri ere, betidanik, dezentet asko kostatu zaigun arren onartzea, gure oinarri-oinarrizko arazoa

ez da Espainiarekin bat etorri ezina, euskal hiritarron adostasunik eza baino.

Karlistadetan, bertako guztiak ez ziren karlistak eta liberal denak ez ziren kanpotarrak, "Euskal Herriak gerra guztiak galdu" ditueneko etsipenak aditzera eman nahi izan duen bezalaxe. 1936ko gerra ez zen inondik ere izan Euskadi eta Espainiaren arteko gudua, frankismo-garaian hazi ginenok, behin eta berriz, besterik entzun izan bagenuen ere. Eta, ildo beretik, ETaren berrogei urteko gatazkak lirudikeen arren, "hango" eta "hemengo" armatuen arteko gerra gisa hasi zela, euskaldunen arteko

hil-ala-biziko borroka izaten amaitu zuen.

Nik ez dut zalantzarik katalanen eskubideez, eta ez dut uste Espainiako erakundeek demokrazia, justiziaz, gizalegez eta argitasunez jokatu dutenik Kataluniarekin; baina, burua galdu beharrenean beharrez, Kataluniako abertzaleak katalanen arteko adostasuna lortzeko gauza ez diren ataka gaiztoan, benetako arazoa ez da Kataluniaren eta Espainiaren artekoa, katalanen artekoa baino.

Eta, hain zuzen, ataka gaizto edo kinka larri horretan, nago, oro har, Espainiak irabazten duela eta Kataluniak galdut.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Guretzat, urteko kanpaina handiena da 'Busti zaitez'"

JOSE LUIS CALVO ESKLEROSI ANIZKOITZA DUEN OÑATIARRA

Mireia Bikuña OÑATI

Esklerosi Anizkoitza Euskal Fundazioak, Ademgiren laguntzarekin, *Busti zaitez* kanpaina egingo du etzi, domeka, Oñatin eta Arrasaten. Oñatiko informazio puntuan egongo da Jose Luis Calvo, gaitza duen oñatiarra.

Hogeigarren Busti zaitez egingo duzue, eta, oraingoan ere, Oñatin eta Arrasaten egongo zarete.

Zubikoa eta Musakola kiroldegietako igerilekuetan egongo gara. Han, igerian egiteko aukera egongo da. Bestalde, Oñatiko Foruen plazan eta Arrasateko Seber Altuben informazio puntuak egongo dira.

Igerilekura doanak zer egin ahal izango du?

Gura beste luze egin ditzake igerilekuan. Ostean, egindako metro kopurua zehazten duen ziurtagiria jasoko du antolatzaileen aldetik. Jardunaldiaren bukaeran, egindako metro guztiak batuko dira.



Jose Luis Calvo, esklerosi anizkoitza duen oñatiarra. JOSE LUIS CALVO

Ekintza sinbolikoa izango da hori.

Esklerosi anizkoitza duten pertsonen elkartasuna adierazteko keinu bat da. Bereziki, gazteei eragiten die eta ezinbestekoak dira sentsibilizazioa kanpainak.

Informazio puntuetan salmentarako materiala izango duzue.

Urtean zehar egiten dugun kanpainarik garrantzitsuenak da. Gipuzkoa osora zabaltzen dugunez, *Busti zaitez*

kanpainak gure materiala zabaltzeko aukera ematen digu. Kamisetak, motxilak... Diru ekarpena egin gura dutenendako itsulapikoak edukiko ditugu.

Urteko kanpainarik inportanteena dela diozu. Zergatik?

Herritarrengana heltzeko balio digulako eta, ekonomikoki, etekin handia lortzen dugulako. 2007an zabaldu zen zentroaren birgaitzea ordaintzen laguntzeko balio digu. Zentro horretan esklerosi anizkoitza eta buruko gaixotasunak tratatzen eta ikertzen dira.

Aurrerapenik igarri al duzue ikerketa atalean?

Bai. Urtero egiten dugun batzarrean esaten dute gure gaitzari aurre egin ahal izateko pausoak ematen dihardutela. Apurka-apurka goaz aurrera, baina, oraindik, bide luzea dugu aurretik.

Gipuzkoan 600 bat gaixo gaude. Esklerosi anizkoitzak beso asko ditu eta horiek guztiak ikertu ahal izateko lan handia egin behar da.

Zein beste ekintza egiten dituzue urtean zehar?

Esklerosi Anizkoitzaren Nazioarteko Egunean diru bilketa egin genuen Bergaran. Saskibaloitza partiduak, fit-bike saioak, maratona... Edozein ekintza dagoela, han gaude gu.

HAU BE BADOGU!

Bonba-alarma faltsua Loiuko aireportuan



Eguazten gauean alarma piztu zen Loiuko aireportuan, Amsterdametik zetorren hegazkin batek, lurreratu aurretik, ustez bonba bat zeramalakoa abisua eman zuelako. Aireportuan zeuden bidaiariak ere unean bertan hasi ziren txiokatzen, kezkatuta. Guztia alarma faltsua besterik ez da izan, azkenean:

@112_SOSDeiak: "#Loiu, Aeroportuan hegazkin batek lehergailua zeramala abisua jaso da. Bilaketa amaitu da. Gezurrezko abisua izan da".

Altsasu izan da gai nagusia sare sozialetan

#AltsasukoakAske, #Altsasu eta #Alsasua traolak trending topic izan dira asteon. Izan ere, fiskaltzak 62 urte eta sei hilabeteko espetxealdia eskatu du auzipetuendako batentzat; 50 urtekoa beste seirentzat; eta 12 urte eta erdiko kartzela-zigorra beste batentzat. Elkartasun mezuak nagusi izan dira sarean:

@EntzunAltsasu: "50 urteko kartzela zigor eskaerak? Gaur inoiz baino ozenago, #AltsasukoakAske eta #UtziAltsasuBakean!".

EHZ jaialdia babesteko '#ElkartasunErauntsia'

Iparraldean egiten den Euskal Herria Zuzenean jaialdia bertan behera gelditu zen pasa den aste bukaeran eguraldi kaskarra zela eta, eta babesa adierazteko hainbat ekintza antolatu dituzte asteon Euskal Herri osoan zehar, festibala laguntzeko asmoarekin.

@OihanaBartra: "Hunkigarria da herri honetako pertsonen #elkartasuna. Gaur adibide txiki bat Bilbon #ehz2017 #elkartasunErauntsia".

ITURRI ONETIK

Andramaixetan Huntza eta Tremenda Jauria

Aretxabaletako Kultura Saila eta Jai Batzordea azken ukituak ematen dabiltza andramaixetako egitarauari begira, eta aurtengo kontzertu nagusiak izango dira Huntza talde gazteak eta Tremenda Jauria madrildarrek emango dituztenak; abuztuaren 15ean datoz biak Herriko Plazara. Txosnagunean, oster, DJ Jak izango dira nagusi; DJ Bull eta AZ Gaubelak, besteak beste. Baita herriko taldeak ere. Eta abuztuaren 14an, afaria egin beharrean bazkaria egingo dute gazteek, jaiak eguerdiaz geroztik girotzen hasteko.

GORA ETA BEHERA



Soluzioak agintariei, ardura bizilagunei

Bergarako San Martingo bizilagun batek dio auzoko beiraren edukiontzia beteta dagoela edukiontzia husteraz ez direlako aspaldian pasatu. Ondorioz, hainbatek edukiontzi kanpoan utzi du beira. Bizilagunak eskatzen die agintariei erantzukizunei eusteko, eta bizilagunei arduraz jokatzeko eta edukiontzia beteta badago, beste kale batekora eroateko negargarri laga beharrean.



UBANE MADERA

Txosna Batzordearen gutun irekia, Oscar Garcia Arrasateko PSOEko zinegotzi eta Udal Gobernuo kideari erantzunez

ANE GURIDI ETA MIKEL URANGA

ARRASATEKO TXOSNA BATZORDEAREN

IZENEAN

ARRASATE

Zinegotzi jaun hori:

Txosnagunea jai eremu irekia da. Bertan, sentsibiltate askotako lagunak elkartzen gara jaietan eta lan boluntario eta aldarrikatzailez, gune horri giro desberdin eta bikaina ematen diogu guztion artean. Horregatik, Txosna Batzordeak ez du inoren adierazpen askerako eskubidea mugatuko. Horretarako zu zeu zaude, Oscar, eta ederto asko egiten duzu lan hori.

Mezu askotariko pegatinak agertzea ez da urduri jartzen gaituen zerbait. Baliteke

euren leloarekin bat egitea edo ez egitea, baina ez ditugu inoiz kenduko, Txosna Batzordeko eragileen idearioaren aurka zuzenean jotzen ez duten bitartean. Bestalde, guk ez daukagu astirik txosnetan jartzen diren pegatinak nork jarri dituen asmatzen ibiltzeko, eta are gutxiago jarri dituenaren atzetik harrapaketan ibiltzeko. Guk gure egitekoak dauzkagu, zeuk zeureak.

Zuk aipatutako "jaien politizazioari" dagokionez, zu zeu zabilta arazorik ez dagoen lekuan hautsak harrotzen. ETA goraipatzen dugula esan duzu, eta egin duguna baimendutako manifestazio bat izan da, herri honetako presoek eskubideak errespetatzen dituzten eskatzeko. Gu pozarren egongo ginateke datorren urtean eurekin batera jaiak gozatuko bagenu, kalean. Horrela, guk ez genuke manifestazio hori egin

beharko berririo, eta zu ez zinateke hainbeste atsekabetuko. Hori dela eta, ohartxo hau aprobetxatu nahiko genuke presoek auzi hau konpontzen lagun diezaguzun eskatzeko, guztion hobe beharrez.

Bukatzeko, batzorde hau beti egongo da zure dei, kezka eta burutazioei erantzuteko gertu. Zuk deitu, eta berehala joango gataizkizua, gure herriko zinegotzi eta agintari jauna baitzara.

Prestutasun eta adeitasun osoz:

Arrasateko Txosna Batzordea.

Bata, ironia barik; bestea, ironia hutsez

MIKEL ARANTZABAL

EIBAR

Ederrak irakurri ditugu azkenaldian, bai gutunen sail honetan, bai herrietako iritzi-emaileen aldetik ere. Ederrak, eta *ederrak*. Denetik.

Hainbat ikuspuntutatik. Plaza zabala da-eta hau.

Adibidez, Rikar Ayastui erretiratu oñatiarrak idatzitakoa, gutunetan, orain dela pare bat aste, ironia barik, zuzen. GOIENAN ateratako iritzi-artikulu bati erantzuna zen.

Honela bukatu zuen idatzia Ayastuik: "Hemendik aurrera, Aramaion bizi zarela suposatuz eta lanera kotxez mugitzen zarela pentsatzean, birritan pentsatuko dut bertako bidea hartu ala ez. Ez naiz arriskatuko!".

Triste da, gero, horrela ibili behar izatea, oraindik ere. Erretiratu, bizikletan ibili zalea... eta ezin seguru joan errepedean. Zergatik? Batzuek uste dutelako errepedeak direla autoak, kamioiak eta autobusak bakarrik ibiltzeko. Kito.

Ziklistak? Etxean, arrabilean. Edo zirkuitu itxietan. A ez, barkatu, ez dago zirkuitu itxirik.

Errepidean, ziklista profesionalak bakarrik. Bai, noski. Txalo bero bat!

Beste iritzi artikulu bat, aurreko astean, Paula Amilburuk sinatzen zuena. Titulua, morbosoa, ezta? Honela zioen: *Txirrindularirik ez, eskerrik asko*.

Bada, bereak eta bi entzun edo irakurri behar izan ditu aramaioarrak sare sozialetan. Sekulakoak esan dizkiote. Sekulakoak.

Delitua da, gero, Amilbururen iritzi-artikulu irakurri eta ez konturatzea ironia hutsez idatzita zegoela. Mesedez...

Tira, ni neu ere ibiltzen naiz bizikletan. Lehen, Aramaio inguruan ere bai. Gaur egun, urruntxo geratzen zait. Hori bai, irakurritakoak irakurrita, hobe dut Deba aldera jo... seguruago egoteko.

Ez diot erantzungo ziklisten kontra dagoenari, baina bai bizikletan ibiltzen direnei: kontuz ibili errepedean!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otolara Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behe
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behe
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es


Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKO

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



Erika Domínguez
Ikaslea Fabrikazio Mekanikoko
Produkzioaren Programazioa

“Batxilergoa egin ondoren, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa ikastea erabaki nuen, Mondragon Goi Eskola Politeknikoan. Praktikotasuna eta irteera profesionalak kontuan hartuz aukeratu nuen ikasketa mota hau. Orain, Dual praktikak egiten ari naiz Mondragon Unibertsitateko errendimendu handiko mekanizazio ikerketa taldean. Esperientzia oso ona izaten ari da. Goi mailako profesionalekin aritzeak oinarri sendo bat emango dit lan mundura jauzia egiteko”.



Zuhaitz Ezkurra
Ikaslea
Mekatronika Industrial

“Ziklo honetan, ezagutza teorikoak elektrizitate, mekanika, hidraulika eta programazio arloetako praktikekin bateratzen ditugu. Industrian gaur egun ikusten dena kontuan hartuz, uste dut lantzen diren gaiak egokiak direla. Bigarren kurtsoa guztiz praktikoa da. Gainera, Dual programan nago, goizez ikasten eta arratsaldean Eskolako tailerretako mantentze-lanen sailean lanean. Esfortzu handiagoa eskatzen duen arren, edozeini gomendatuko nioke, formakuntza osoa lortzen baita”.

Matrikulazioa

Uztailaren 13tik 19ra

Eskaintza akademikoa

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial



Parke berria erabiltzeko eguraldia ez da aitzakia izango aurrerantzean. XABI GOROSTIDI

Gorostiza estalita, hurrengoa Itxaropena

Pasa den egubakoitzean amaitu ziren Erguin auzoko jolas parkeko lanak. Egurraren presentzia nabaria da eserlekuetan eta sabaian, eta bertako ziburu guztiak berriak dira. Itxaropena izango da estaltzen hurrengoa, baina proiektua amaitu gabe dago

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gurasoen aldetik parke estalien beharra zegoela igarri ostein, Erguin auzokoa izan da legealdi honetan estali duten lehena. "Udalean txosten bat egin genuen Arrasateko jolas parkeen egoeraren inguruan; zenbat urte dituzten, zenbat erabiltzaile, zein behar... beraz, hori ikusirik, Gorostizakoarekin hasia erabaki genuen. Herri Eskola alboan dagoenez, erabiltzaile asko ditu. Horrez gain, berritasun guztiak herriaren erdialdean egiten direla sentitzen dute arrasatear askok, eta, hori dela eta, garrantzitsua iruditu zitzaigun lehen parke estalia Erguinen kokatzea", azaldu du Ibon Arrupek, Hirigintza zinegotziak.

Pazientzia eskertzen

Lau hilabeteko atzerapenarekin amaitu dira lanak, baina pasa den egubakoitza ezker dago zabalik Erguin auzoko jolas parke berritua. "Lanak egin dituen enpresak adostutakoa baino bi

hilabete beranduago ekin zien lanei, eta, horrez gain, proiektuaren konplexutasunak zailtasunak ekarri ditu, hasierako planteamendu batzuk aldatzera behartuz", azaldu du Arrupek.

Hala, izandako pazientzia eskertu nahi izan die Hirigintza zinegotziak Erguingo bizilagunei, udaberri osoa parkerik gabe igaro dutelako.

Gehiago estaltzera

Gorostiza izan da lehen harria, baina Udal Gobernua parke gehiago estaltzeko gogoz dago. Horren harira, hurrengoa Itxaropena izango dela aurreratu zuen Arrupek. "Proiektua oraindik amaitu gabe dagoela kontuan izanik, gure aurreikuspena da 2018. urte amaierako lanak has-teko moduan egotea".



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Bai da bai

Jarri dira festen ingurumarian bideoak sareetan zorabioan. Gatiburen eta Izaroren bideoak eta kantuak mezuaren ikuspuntua aldatzen du. "Nahi dogunien, nahi doguleko, aske maitte, aske bizi!". Orain aste batzuk, neskato nerabe hark gurasoei idatzi bezala, nola bere eskolan modako galtza laburrak aldaraztea eragin zioten, 30 gradu egun sargorietan. Kamiseta motzak jada ez jantera amore emana zuela, baina larregia zeritzon prakak motzegiak zirela irizteari. Mutilen begirada lizuna eta tentazioa pizteko arriskua ikusten zuten, behinik behin, eskola arduradunek.

Eta bere amorrazioz, gurasoei ok egin zien, ea mutilei mugak ala Gizalegez-ko jokabideak zein diren erakutsi beharrean, zergatik diren beraiek galtza motzegiak ala soineko transparentegia erantzi behar dutenak...

Eraldaketa sozial honetan oraindik tentuz ibili behar dugun zalantzarik ez dago, bai gura denean eta gura ez denean ere bai, hain zaila egiten zaigun ezetza onartuz. Bai eta, ondo dagoena sustatuz, eta oker dagoen horri ongi egiten irakatsiz.



SEBAS LOZANO

Makala talde-lanean igotzen

Aste honetan erabaki dira San Juan jaietako argazki lehiaketako irabazleak. Lehen saria Sebas Lozanok jaso du, irudian ageri den *Apuntalando* izeneko argazkiarekin. Hamazazpi argazkilarik hartu dute parte eta 32 argazki aurkeztu dituzte. Iaz baino gutxiago izan dira, baina antolatzaileek kalitatea mantendu egin dela nabarmendu dute.

arbolapeta



arrasate

Sagardo garaia amaituta, erretegi moduan orain.

UDAKO MENUAK

Karta.
Plater konbinatuak gauean.

....

Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



2015ean Herriko Plazan ikusgai egon ziren bi gorpildun harribitxiek ikusmira eragin zuten. IMANOL SORIANO

Eskuter zaharren xarma herriarekin partekatzer

Mondrally bueltan dator, zazpigarrenez. Bihar, zapatua, Arrasateko Herriko Plaza adindun motorrez betetzeko asmoz daude antolatzaileak. Erakusketa, motor biratxo eta bazkaria egingo dituzte, eta ondoren, musika dantzagarria gailenduko da

Xabi Gorostidi ARRASATE

Piaggio, Vespa eta bestelako eskuter zaharren maitaleek hitzordu interesgarria izango dute bihar, zapatua, Arrasaten.

Mondrallyren zazpigarren edizioaren antolatzaileak gogotsu daude aurten ere, euren motor kuttunen dotorezia Arrasateko bizilagunekin partekatzeko, eta ziur kuxkuxero bat baino gehiago harritzeko moduko piezak egongo direla Herriko Plazan ikusgai.

Zeruari begira

Iazko edizioan eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta aurtengo ekitaldirako pronostikoa ez da batere argia.

"Era honetako egitasmo bat antolaterakoan, beti zaude zeruari begira. Iaz, adibidez, eguraldi kaxkarra izan genuen. Gure kasuan, urtean behin elkartzen garenez, pena handia izaten da antolatzaileentzako, ezin baitiogu egunari nahi adina zuku aterara. Zapatu honetarako pronostikoa ez da oso argia, baina espero dugu, iazkoaren ostean, aurten eguraldia lagun izatea",

azaldu Jon Alkortak, Mondrallyko antolatzaileak.

Berritasuna zalantzan

Beste urte batzuetan bezala, 11:00etan ekingo diote jaialdiari. "Ordu horretan batuko gara Herriko Plazan. Inskripzioak egiteko aukera izango da, eta 40 euroren truke kamiseta, partxea eta Larrinetxe jatetxean bazkaria izango dira barne", azaldu du Alkortak.

Behin partaideak elkartuta, motor biratxo egingo dute. "Plazatik abiatu eta Bergara, Angiozar, Elgeta eta Elorriotik pasatuko gara, ostean berriro Herriko Plazara itzultzeko. Gero, Udalan egingo dugu bazkaria, eta, jaiari bukaera emateko, Dat tabernan DJak egongo dira, luntx batek lagunduta".

Nobedaderik izango den galdetuta, zera dio Alkortak: "Aurten, berritasun gutxi ditugu. Bat aipatzekotan, bazkalostean Larrinetxe jatetzeko terrazan egin nahi dugun *pintxadatxo* izango litzateke. Polita izan daiteke, baina, kasu horretan, eguraldiaren esku gaude".

CLINICA DENTAL BERGARA

20 urte
baino
gehiagoko
esperientzia
inplantologian

*Izugarri kostatzen zaizu
dentistarengana joatea?
Gurekin ez!*

- Lehen bisita doan eskaintzen dizugu.
- Beste iritzi bat konpromiso barik.
- Gertuko tratu profesionala.
- 60 hilabeterainoko finantzazioa.
- Hortz aseguetan estaldura

RPS: 207/12



Munduko Arrozen Jaia integrazioaren mesedean

Bihar, Seber Altube plaza kultura ezberdinen arrozak batuko dituen lapiko erraldoi bihurtuko da. Beste herri batzuetako arrakasta ikusita, bailarako hainbat elkartetan eta Udalak elkarlanean Munduko Arrozen Jaia antolatu dute, kultur aniztasuna sustatzeko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Herriko Udalak eta bailarako elkarte ezberdinek Kultur Aniztasunaren Jaia antolatu izan ohi dute San Juan jaian baitan, baina iaz eta aurtun ez dute ospatu.

Hori ordezkatzeko asmoz dator biharko antolatu den Munduko Arrozen Jaialdia. SOS Arrazakeria, Ekin Emakume Taldea, Arrasateko Helduen Eskolak, IMMEk eta Arrasateko Udalak antolatu dute, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

"Kultur Aniztasunaren jaia San Juan jailetatik atera eta beste zerbaitegitea aproposa zela

pentsatu genuen", adierazi du Tamara Perezek, Arrasateko Udaleko Berdintasun teknikariak. "Azkenaldian hainbat ekintza antolatu ditugu elkarrekin; arrazakeriaren aurkako eguna eta hezkuntzaren astea, esaterako. Harreman ona daukagu eta horrela lan egitea errazagoa da".

Arroza eta gehiago

Munduan gehien erabiltzen den elikagaia izanik, arroza prestatzeko era ezberdinak plazaratuz integrazioa eta kultur aniztasunaren beharra aldarrikatzeko ekitaldia izango da biharkoa.

70 lagun inguruk eman dute aurrez izena. "Saharako, Maro-

koko, Kongoko eta Pakistango jatorria duten lagunez gain, Arrasateko eta Aretxabaletako parte hartzaileak ere animatu dira arrozaren festara".

10:30ean hasiko dira mahaien banaketarekin eta dastatzeak 13:30ean egingo dituzte. Bitartean, Txatxilipurdikoen eskutik munduko jolasak egongo dira, eta, musika ukitua emateko, Senegalgo talde batek doinu exotikoak jarriko ditu Seber Altube plazara gerturatzen direnentzat.

Ekitaldia Bilboko San Frantzisko auzoan sortu zen duela 15 urte inguru, eta ondoren, Euskal herriko hainbat herri-tara hedatu da, arrakasta handiz.

Lotara joan aurretik ekintza ugari Irati tabernan

Irati Taberna eta Arrano elkar-tea laster abentura berri batean murgilduko dira. Itxura aldatze nabaria izango du, eta, horretarako, ateak itxiko ditu denboraldi baterako.

Hala ere, *Iratizaleak* Irati gosez uzteko, hainbat ekintzarekin jositako egitaraua prestatu dute, uztailaren 26ko kubatar festarekin ateak itxi aurretik.

Egitaraua

- **Uztailak 9, (19:30)**
Hatortxu Rock proiektzioa
- **Uztailak 14, (22:00)**
Helduentzako ipuinak
- **Uztailak 18, (19:30)**
Helduentzako ipuinak
- **Uztailak 21, (19:00)**
Agur jaia: Kontzertua eta afaria Ferreriasen
- **Uztailak 26, (19:30)**
Kubatar festa eta kontzertua

Domekan esklerosi anizkoitzaren alde bustitzeko kanpaina

Gaixotasun horri buruzko informazio banatzeko eta hori sufritzen dutenak diruz laguntzeko asmoz dator, beste urte batez, *Busti zaitez!* kanpaina Arrasatera.

Domeka goizean, Musakolako kiroldegia kanpoaldean, karpatxoa jarriko dute. Aurtengo diru bilketa esklerosi anizkoitza eta beste gaixotasun neurologiko batzuk tratatzeko ADEMGI elkarteak 2007ko maiatzean zabalduko zentzura bideratuko dute.

Urteroko laguntza fidela

Jardunaldi hori Gipuzkoako beste hamabost herritan ere egingo da. Arrasaten, hain zuzen, hamabost edizio egin dituzte aurretik, eta horietan guztietan Toki Argi, Musakola, Uri-barri eta Abaroa erretiratuen elkarteetako laguntza izan dute antolatzaileek. Aurtun, Portaloian ere jarriko dute postutxoa, informazio banatzeko eta gaixoen alde dirua biltzeko.

GELMAKO AZKEN FASEA!



2, 3 eta 4 logelako etxeak

Irailaren 1etik aurrera planoak eta prezioak gure webean

BISITATU ETXEBIZITZA PILOTUA

GARAJEAK
alokairuan,
erosteko aukerarekin

EUSKAL HERRIA PLAZAN

Salmentan
19.000 €-tik + BEZa

BIBAI Deba kalea 3, Arrasate 943 25 38 21 info@inmobibai.com www.inmobibai.com

270 bat neska-mutikok eman dute izena udaleku irekietan

2 eta 12 urte bitartekoei zuzenduta dauden Txatxilipurdiren udaleku irekiak astelehenean hasi ziren



Txatxilipurdiko begiraleak udalekuetako egitarauarekin. GOIENA

Ane Vitoria ARRASATE

Haur eta gaztetxo horiek guztiak 28 hezitzailearen ardurapean izango dira uztailean zehar. Txatxilipurdik antolatzen dituen udaleku irekiak astelehenean jarri ziren martxan eta uztailearen 21era arte egongo dira eskuragarri Arrasateko haurrentzat.

Udaleku horiek Arrasateko kaleetan gauzatzen dira; ekintza ezberdinen bitartez jolasak egin da, esaterako. Horiez gain, igerilekura joaten dira eta irteerak egiten dituzte.

Parte hartzearen garrantzia

Udalekutan izango diren haurren iritzi eta proposamenak kontuan hartuko dituzte, une oro, udalekuetako arduradunek; izan ere, parte hartzea oso garrantzitsua da beraientzat. Hori horrela, LHkoek lehenengo as-

tean egingo dituzten ekintzak planifikatuta dituzte; baina, bigarren eta hirugarren astei begira, euren nahi eta gustuen arabera, ekintza ezberdinak antolatuko dira. HHko umetxoek ekintzak dagoeneko finkatuta daude, hiru astetan zehar egingo direnak, zehazki. Hala ere, euren proposamenak ere izango dira kontuan, eta, horien arabera, dinamika ezberdinak jarriko dira martxan.

Aurtengo berrikuntzak

Aurten, uztailearen 7an, Txorimalo Eguna ospatuko dute, eta egun berezia izango da, haurrak mozerrotu egingo baitira; desfilea ere egingo dute. Gainera, hilaren 21ean, azken egunean, ekintza ezberdinak gauzatuko dituzte.

Udal kiroldegiaren 40. urteurrenaren ospakizun eguna

Musakolako kiroldegiak 40 urte beteko ditu hilaren 13an, eta, urtemuga ospatzeko, Udaleko Kirol Sailak egun berezia antolatu du uztailearen 13rako. Egund horretan, kanpoko igerilekuetan puzgarriak eta jolasak eskainiko zaizkie herritarrei egun osoan zehar. Horrez gainera, kiroldegiko sarreran, orduko kiroldegia eta gaur egungoa alderatu ahal izango da, aurretiko ikuspegitik egindako argazkiei esker. Ekitaldi instituzionala ere izango da; bertan, kiroldegia inauguratu zenetik hona izandako berderatzi alkateak izango dira. Eskainiko diren ekintzak direla eta, igeriketa eremua igeri egiteko mugatu egingo da.

uztailak
8
larunbata

Tecnologiak emozioak oparitzen dizkizu zentzu guztietan...

...eta EROSKI hipermerkatuetan

BEZa*

oparituko dizugu

**ELEKTRONIKAN
ETA ETXETRESNA
ELEKTRIKOETAN**

bazkideentzat soilik

telebistak, ile-lehorgailuak, ordenagailuak, telefonoak, garbigailuak, bideo jokoak, argazkigintza, labeak...

Baliadun eskaintza EROSKI hipermerkatuetan, Iruñeko, Tuterako, Noiako, Ribadeoko, Pontearraseko eta La Bañezako hipermerkatuetan izan ezik.

* Kutxatik pasatzen zarenean, zure EROSKI Club txartelean sartuko dizugu, berehala, elektronika eta etxetresna elektrikoek atalean erositako produktuen BEZari dagokion zenbatekoa. Erosketa hauetan salbu: telefono-kargatzeak, e-pay txartelak (aurrez ordaintzekoak) eta errebelatu digitala. Kontsultatu gainerako baldintzak saltokian.

ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

"Konfiantza handia dugu jokalarari hauengan"

JORGE DAVILA ETA ANDER ROMERO MONDRAKO ENTRENATZAILEAK

Josu Zubiaren lekua beteko dute etxeko bi entrenatzaile horiek: "Harrobia ondo ezagutzen dugu; kanpotik inor ekarri aurretik, gurean zer dugun jakin behar da"

Xabier Urzelai ARRASATE

Etxeko entrenatzaileen aldeko apustua egin du Mondrako zuzendaritzak, eta gauza positiboetako bat da gutxi ezagutzen dutela Jorge Davilak (Arrasate, 1978) eta Ander Romerok (Arrasate, 1987) bezain ondo Mondrak zer duen beheko kategorietan. **Etxeko entrenatzaileen aldeko apustua egin du zuzendaritzak.**

Poztekoa da, urte hauetan egin dako lanaren saria da; gure lanak jarraipena izango du.

Zer eskatzen diozue urteari?

Lesio gabeko urtea izan dadila, lanean jarraipena izateko ezin bestekoa da hori.

Zuzendaritzak adierazi du aspaldiko ametsa dela Hirugarren Mailan jokatzeko. Anbizioa beharrezkoa da, baina hankak lurrean.

Gure eginbeharra da taldea goian egon ahal izateko lan egitea, hori bermatzea; ligako azken txanpa iristen denean taldea borroka horretan sartuta izateko egunerokoan egin behar da lan.

Taldea utziko dutenen artean daude Ander Ruiz, Iker Uribarren eta Beñat Corcuera –futbola utziko dute–, Julen Etxaniz Eibarrera bueltatuko da eta Mikel Aizpurua Beasainek fitxatu du.

Baja garrantzitsuak dira, zalan-tza barik, baina gainontzeko



Jorge Davila eta Ander Romero. X.U.

jokolariengan konfiantza handia dugu. Daukagun taldearekin uste dut gauza politak egin ditzakegula.

Taldea nonbaiten indartzeko beharrik ikusten duzue?

Egon gara Josu Etxebarriarekin horretaz berbetan, eta atzeko lerroa indartzeko beharra ikusten dugu. Jokalari batzuk orain dabilta lesioetatik erreku-pertzen, eta, inor kanpotik ekarri aurretik, etxean daukaguna baloratu behar dugu.

Hori du ona Mondrako beheko taldeetan ibili izanak.

Bai, klubean zer daukagun ondo ezagutzen dugula. Baliteke harrobitik gatozen entrenatzaileok beste sentsibiltate bat izatea harrobiarekiko.

Zer-nolako Mondra ikusiko dugu irailetik aurrera?

Baloiaren jabetza izan gurako genuke, baloiarekin gozatzea. Eta berau galtzerakoan lehenbailehen erreku-pertzea. Ausart jokatu gura dugu; akaso, ausartegi hasiko gara, eta, ondoren, taldeak eta kategoriak erakutsiko digute zein izan behar den gure eboluzioa.

Udako kanpua, eta batzar orokorra



Batzar orokorreko une bat, eguaztenean Kulturaten. X.U.

Urte positiboa Urteko batzar orokorra egin zuen Mondrak eguaztenean. Zuzendaritzak aurrera egingo du beste urtebetez, Ramon Azkarate buru. Kirol ikuspuntutik Josu Etxebarria kirol zuzendariak positibotzat jo zuen denboraldia eta arlo ekonomikoan ere urte ona izan da: "Gaur esan dezakegu Mondrak ez duela inolako zorrik". Lehenengo taldeari dagokionez, hainbat baja izango dira, baina lan ona egiteko moduko taldea izango du Mondrak.



Dena ez da futbola: aste barruan Donostian egon dira gaztetxoak. JOSU ZUBIA

Gaztetxoak campusean Kirol federatuen txapelketak amaituta badaude ere, harrobiko gaztetxoak jo eta su dabilta udako campusean. Mojategin futboleko jokatu dute, bai, baina Musakolako kirol instalazioetan bestelako jolasak ere egin dituzte. Egunotan campuseko bigarren txandarekin dabilta, eta aste barruan Donostiara egin dute txangoa: izozki eder bat jan eta hondartzara joan ziren ur-jolasak egitera. Piraguekin ibili ziren, besteak beste.

Shalom Shalom!! taldearen lehenengo emanaldia

Udazabal egitarauaren barne, Shalom Shalom!! taldeak lehenengo kontzertua eskainiko die arrasatearrei

Ane Vitoria ARRASATE

Musika beltza jotzen du Shalom Shalom!! taldeak. Bost kidez osatuta dago, eta horietatik hiru debagoiendarrak dira. Abeslaria Bea Asurmendi, aramaioarra da eta Aitor Moreno eta Jon

Gartzia arrasatearrak dira. Hurrekin batera, bi bizkaitarrek ere jotzen dute taldean: Asier Eliasek eta Ander Usagak.

Funk, soul eta blues tankera-ko musika estiloa dute gustuko denek, eta, horregatik, kontzer-

tu bat eskaintzeko bildu ziren duela hilabete eskas. Hala ere, dagoeneko bi entsegu egin dituzte eta emaitzarekin "oso gustura" daudela adierazi dute. Gaur arratsaldeko zortzietan eskainiko dute euren lehen kontzertua Jose Letona plazan; baina ez da azkena izango. "Irailean kontzertu gehiago eskaini nahi ditugu". Gaur, beste musikari batzuen bertsioak joko dituzte. "Dantza egiteko pentsatuta dauden abestiak eskainiko ditugu", azpimarratu dute musikariek.



Shalom Shalom!! taldeko kideak. XABI GOROSTIDI

Omenaldi eta ongietorriek goxatutako jaiak izan dira

Orotariko sentimenduak transmititu dituzte aurtengo San Martin jaiek, eta, antolatutako ekintzen artean, bi nabarmendu dira: Tellamendiko kuadrillaren parte izandako hainbat kideri egindako gorazarrea eta haur jaioberriei egindako harrera

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Eguraldi freskoa izan dute aurtengo San Martin jaiek. Hala ere, ekintza guztiak normaltasun osoz egin ahal izan dira eta hori modu positiboan baloratu du Udalak. Jaietan zentratuta, "politikak, hunkigarriak eta parte-hartzaileak" izan direla azpimarratu du Cristina Etxenausiak, Kultura zinegotziak. Lierni Altuna alkateak, berriz, adierazi du, oro har, oso erantzun ona izan dutela jaiek. Hala ere, kezka puntu bat azaldu du jaietan izandako ezbehar batzuen harira: "Gauza txarrenak kultura etxeko buzoia apurtzea eta eskolako jangelako atea ostikadaka apurtu izana dira, zoritxarrez oraindik ere gaueko iluntasunean guztion ondasunak apurtzen dituzten batzuk badaude eta".

Gazte Asanblada, pozik

Gazte Asanblada ere gustura azaldu da antolatutako ekintzek izan duten erantzunarekin. Oro har, ekintza guztiak izan dira jendetsuak, baina koadrilen arteko pikie izaten da ekintza nagusia eta aurtengo ere arrakasta izan du, Ainhoa Kortabarria Gazte Asanbladako kidearen esanetan. "Zazpi talde izan ditugu eta egindako probak ere jendearen gustukoak izan dira".



Kuadrillen arteko pikea.



Jaioberriei egindako harrera.



Patata-tortilla lehiaketa.



Sokatira erakustaldia.



Maledantza, flamenko ikuskizuna. ARGAZKIAK: GOIENA

San Kristobal eguna egingo dute domekan Uribarri auzoan

12:00etan meza nagusia izango da, Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta. Ondoren, trikitilariak eta bertso saioak alaituko dute giroa, eta 15:00etan auzo bazkaria egingo dute. 17:00etan ipuin kontaketa saioa egongo da –istorio baten truke– eta ondoren trikitilariak joko dute berriro. Azkenik, 17:00etan, bolo txapelketa egongo da.

Uztailaren 21era arte iraungo dute asteen hasitako udalekuek

86 umek eman dute izena eta horiek gidatzeko bederatzi begirale kontratatu ditu Udalak. Urtero bezala, auzoetako umeek garraio zerbitzua izango dute joan-etorria egiteko. Ohiko ekintzez gain, Euskararen Eguna egingo dute –Kuadrillako beste herrietako umeekin batera– eta Otxandioko igerilekura ere egingo dute irteera.

Barajuen auzoko lanak eta musika etxea eskatuko dira

2018-2019 foru planeko diru laguntza lerroan bi proiektu aurkeztu ditu Aramaioko Udalak: batetik, Barajuen auzoan euri urak eta ur zikinak banatu eta, bide batez Ibarrara jaitsi, eta, horretaz aparte, zoruak ere konpondu. Bestetik, musika etxe bat egitea, Pedro Inazio Barrutian, eliza ondoan, Udalak daukan lokalean.

Santa Ana ermita Udalaren esku utzi du Gotzaindegia

Ekaineko ohiko plenoan onartu zuen udalbatzak orain arte Arabako Gotzaindegia izan den Santa Ana ermitaren dohaintza onartzea eta aurrerantzean erakin publikoa izango da. "Bidea libratzea eta segurtasuna bermatzea dira lehentasunak. Ondoren ikusiko dugu ermitari ze erabilera emango diogun", adierazi du Lierni Altuna alkateak.

Soberakinak erabiliko ditu Udalak zenbait inbertsio egiteko

Sei diru partida egin dira: Arragako saneamendua – 11.253 euro–; Uribarriko Zubieta auzunera doan bidea –63.829,92 euro–; Santa Ana ermitako teiatua eta egitura –38.717,29 euro– eta horretarako arkitektoak sinatu beharreko proiektua – 5.021,5 euro eta itzulpen lanak – 730,24 euro–. Uda ostean izango du dirua erabilgarri Udalak.



Ikasturte bukaerako meriendan elkartutako emakumeak seme-alabekin. MIRARI ALTUBE

Datorren ikasturtera arte agur esan diote Auzokori

Kanpotik Aretxabaletara bizi izatera etorritako hainbat lagun elkartu dira astero-astero Loramendi elkarteko kideekin euskara ahoan hartuta. Taldeko lanak, jaiak, egun bereziak izan dituzte eta eguaztenean, agur esan zioten elkarri merienda eginda

Mirari Altube ARETXABALETA

Euskarak elkartu ditu astero-astero udaletxe zaharreetan eta agur esateko ordua iritsi zaie astean. Loramendi elkartek gidatutako Auzoko taldeak datorren ikasturte arte itxi ditu ateak, betiere, indarberrituta itzultzeko asmoarekin.

Afrika iparraldekoak

Hamar-hamabi laguneko taldea elkartu da Nerea Zubillaga dinamizatzailearekin: "Nahiko talde egonkorra izan da, eta horrek erraztu egin du. Hortaz, pozik gaude ikasturtearekin". Afrika iparraldekoak izan dira gehien: "Batez ere Saharakoak, Marokokoak eta Aljeriakoak eta

Pakistane koren bat edo beste ere egon da. Emakumeak dira gehien goa, eta horien egoera aldatzen joan da ikasturtea hasi zenetik; hasieran senarrak lan egin bitartean umeen kargu zeuden gehienak baina orain lanean hasi dira asko: Caritasen, Gu Haziak Gara elkartean... Hala ere, bateratu egiten dute lana eta Auzoko", dio Zubillagak.

Herrian integratzea

Maragua sahararra eta Fatiha marokoa dira taldean elkartu diren bi kide, eta eguaztenean elkar agurtu ziren meriendatxo eginda udaletxe zaharreetan. Maraguak bi urte daramatza Aretxabaletan eta aurretik Eskoria-

tzan eta Bizkai aldean ere bizi izandakoa da; horregatik, euskaraz gero eta hobeto egiten du: "Oraindik apur bat bakarrik, baina gehiago ikasi nahi dut", dio. Era berean, oso pozik dago Aretxabaletan: "Jende jatorra topatu dut, eta inguruko parajeak ere oso politak dira: Urkulu, Udala...". Fatiha, oster, Sevillan sei urte egin ostean etorri da eta oraindik ez du urtea bete herrian. Hala ere, argi du bertako hizkuntzara gerturatzeko oso garrantzitsua dela.

"Elkarbizitza eta integrazioa bultzatzeko da inportantea Auzoko eta datorren ikasturtean ere horretan jarraituko dugu", adierazi du Zubillagak.

Berritutako zuzendaritza aurkeztuko du UDAk gaur

Arkupen, 18:30ean, egingo duten batzar orokorrean ohorezko jokalaria eta bazkidea eskertuko dituzte

M.A. ARETXABALETA

Bukatutako denboraldiari begiratu emanaz hasiko du UDAko zuzendaritzak batzar orokorra gaur, hilak 7, eta datorrena iragarriko du gero. Elkarrekin gida-tzeko aurkeztutako hautagaitza-aren berri ere emango du, eta, bukatzeko, ohorezko jokalariei eta bazkideari esker ona agertuko diote.

Udako futbol campusa

Astelehenean ekingo diote Geroa Sortuz VII. futbol campusari Ibarra futbol zelaian. 40 neska-mu-

tirik jardungo dute lanean UDAko begiraleen esanetara. Futbol leian jokatzeko gain beste ekintza batzuk ere egingo dituzte, irteerak esaterako, eta balioak lantzen egin gura duten ahalegina nabarmendu dute antolatzaileek.

Zazpiko txapelketa

Bestetik, uztailaren 15ean jokatuko da, Ibarran, Debagoieneko kuadrillen arteko zazpiko futbol txapelketa. Izena emateko -100 euro ordainduta- azken eguna hilaren 13a da: udaretxabaleta@gmail.com eta 635 20 64 33.



M.A.

Udaleku irekiak bete-betean

Astelehenez geroztik ezin gusturago dabilta udalekuan -irekiak eta kirolari eskainitakoak- herriko 344 neska-mutiko. Jolasekin hasi zuten astea eta gaur, uztailak 7, zapi gorria jantzi eta sanferminak ospatuko dituzte; berreskuratu egin dute jai hori, umeek eta gurasoek eskatuta. Datozen bi asteetarako, oster, irteera eta ekintza mordoa dituzte iragarrita.



MARAGUA
SAHARARRA

"Oso gustura egon naiz: euskara ikasi dut, bertako ohiturak, inguruak... Ikasten jarraitu gura dut lana topatzeko eta herrian integratzen joateko".



FATIHA
MAROKOARRA

"Seme-alabekin hitz egin eta eskolako kontuetan laguntzeko garrantzitsua da euskaraz jakitea, eta pozik etorri naiz Auzoko taldera".

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



zenbaki
aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus



"Euskararen erabileran dugu benetako erronka"

MARTIN BERRIZBEITIA LORAMENDI ELKARTEKO TEKNIKARIA

Euskara sustatzea helburu izanik, hainbat egitasmotan murgilduta dabilta lanean; Urkulu inguruko toponimia jaso gura dute, esaterako, dokumental batean

Mirari Altube ARETXABALETA

Abian dituzten proiektuen eta aurrera begirako egitasmoen berri eman du Berrizbeitiak. **Batzar orokorra egin duzue oraintsu; berritasunik badago?**

Egindako proiektuen berri eman genien bazkideei eta aurrera begirakoak azaldu. Zuzendaritza batzordeari dagokionez ez dago aldaketarik eta Iñigo Iñurrategik jarraituko du presidente izaten. **Elkarte barruan eratutako Toponimia Taldea aspalditik dabil lanean, zertan da orain?**

Lan handia egin arren horien lana bakarrik ikusten da ibilbide historikoak antolatzean eta ibilbide horien gaineko liburu-txoak argitaratzean. Aurten ere, udazken aldera, halakoren bat izango delakoan gaude, baina beste proiektu batean gaude sartuta buru-belarri: Urkulu urtegi inguruko toponimia berreskuratzeko dokumentala. Arteman dabil horrekin eta garai hartako bizimodua, lekuen izenak eta gehiago jaso gura dira hor. Lutzerako izango da proiektua.

Aisialdiari heldu diozue azken urteotan eta aurten udaleku irekien ardura ere baduzue...

Orain arte ludoteka eta Gazte Zoro eraman ditugu, Lehen Hezkuntzako umeei eskainitakoak biak. Udaleku irekiak berreskuratu ditugu aurten eta ilusioz hartu dugu ardura.

Uda sasoiarekin batera egitasmo berria jarri duzue abian: kontzertuak herriko tabernatan.

Joseba Irazokik eman zion hasiera joan zen astean eta harre-beroa egin zioten. Kontzertuak sarri egin izan ditugu, baina gehienak udaletxe zaharretan eta orain beste gunetara zabaltzeko zabaldu nahi izan ditugu. Hilaren 12an, Jasan taldeak joko du Haizea tabernan eta irailean beste kontzertu batzuk izango dira.

Euskararen kale erabileraren gainean galdetu gabe ezin geratu; %45,5ek egiten du euskaraz Are-



Martin Berrizbeitia. M.A.

txabaletan. Zein irakurketa egin duzue elkarteak?

Datuak ez dira gehiegi aldatu aurreko neurketatik –arlotzatuetan gora, bestetan behera–, eta egia da hobeak izan daitezkeela. Nik uste dut lan asko dugula egiteko datu kaxkarrok hobetzeko, baina orain arte egindako guztia egin izan ez balitz –Loramendik, Udaleko zerbitzuek...– okerragoak izango lirake. Hortaz, lanean jarraitu behar, ez dago besterik.

Eta zeintzuk izan daitezke gakoak buelta emateko emaitza horiei?

Erabileran dugu benetako erronka eta erabilera sustatzera eramango gaituzten ekimenak jarri behar dira abian, herriarrak euskaraz bizitzeko konpromisoa hartzera bultzatuz, esaterako, Lasarten edo Egia auzoan egindako lez. Gurean ere hortik etorriko dira hurrengo pausoak. **Hizkuntza errefortzu taldeak, Barriketan eta Auzoko abian dituzue euskararen erabilerari begira; zenbat lagun dabilta horien bueltan?** Euskaratik urrunen dauden herriarrak gerturatzeko proiektuak dira hirurak eta jende asko dabil. Auzokon dozena bat inguru, Barriketan hainbat talde eta hizkuntza errefortzuetan ume

mordoa elkartzen dira euskaraz jolasteko eta ikasteko.

Iristu gazte taldea ere iaztik dago martxan; horrek gertura ditzake gazteak euskarara?

Horixe da helburua, euskarara gerturatzeko euren protagonista izanda; dagoeneko hainbat lan egin dituzte jailetan eta egun berezietan. Uztailaren 14an dei berezia egingo dugu 16 eta 17 urte arteko gazteak etor daitezen eta datorren ikasturteko plan-gintza guztion artean adostu.

Komunikazio ikastaroa

Komunikazio kontzientearren gaineko saioa egingo dute Miriam Txintxurretarekin hilaren 13an, udaletxe zaharretan (18:30-20:00). Zer da komunikazio kontzientea? Zelan hobetu? Galdera horiek eta gehiago erantzun dugu saio parte-hartzaile eta bizian. Izena emateko: 685 75 67 29 eta loramendielkartea@gmail.com.



Txaro Gallegoren performancea eguaztenean. MIRARI ALTUBE

Zikinkeria hausnarketarako gai eguaztenetako pintxo-potean

Uztaleko egitaraua aurkeztu du, astean, Kultura Sailak eta zedroaren porra abian dela gogorarazi du

M.A. ARETXABALETA

Kale antzerkiari eskainitako egitaraua jarri dute abian Tra-pu Zaharrak eta Txan magoak astean, eta datozen egunetan ere izango da zerikusia eta zerekin gozatua Kultura Sailak iragarri duen legez.

Auto telegidatuaren erakustaldia izango da etzi, domeka, Herriko Plazan, 11:00etan eta 16:00etan. Eta zapatuan, hiruko saskibaloitxapelketa egingo dute plazan, hirugarrenez, hainbat herriarrak antolatuta.

Datorren eguaztenean, oster, Rojo Telon taldeak *Haiek naiz* antzezlan eskainiko du Mitarte kalean (19:00) eta *Goazen!* ikuskizuneko lagunak izango dira hilaren 15ean, 19:30ean, Herriko Plazan.

Performanceak eguaztenetan

Pintxo-pote egunetan –joan den eguaztenean hasita hirutan– per-

formanceak eskainiko ditu Txaro Gallego aktore aretxabaletarrek helburu zehatz batekin. "Taberna inguruetan zenbat zakar uzten dituzten hausnar dezaten herriarrak. Izan ere, bazterrek oso zikin geratzen dira", jakinarazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Zedroaren porra

Zedroaren porra ere abian du Kultura Sailak. Udaletxe alboko lorategiko Atlasko zedroaren adina eta garaiera adierazi behar dira euro baten truke: "Guztion artean 1.000 euro batzea jarri dugu helburu, eta diru hori Saharako eskoletarako materiala erosteko erabiltzea". Hilaren 15ean bukatuko da epea, eta apusturako kaxak honako lekuetan jarri dituzte: Arkupe, Kioskoa, Orly taberna eta Belar Meta; eta domekan Herriko Plazan ere egongo da bat.

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Larrino auzoan

Astelehenean, hilak 10, meza eta mokadutxoak izango dituzte Larrinon (19:00), zaindariaren eguna ospatzeko; gainera, autoa lo-reekin apainduta daramana sarritu egingo dute. Uztailaren 15ean, zapatua, oster, bertso afaria izango da elkarteak Andoni Egaña eta Aitor Mendiluzerekin. Edo-nork eman dezake izena elkarteak bertan; azken eguna da hilak 9.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



EH Bildu alderdiko ordezkariak Fernando Eskoriatza plazan. EH BILDU

"Oposizio eraikitzailea egitearen aldekoak gara"

EH Bilduk legealdi erdiaren balorazioa egin du. "Elkarlanerako zirrikitua" ireki bada ere, etorkizunera begira Gobernu taldeak "zer behar duen" jakin nahia azaldu du, "hirigintzan, arlo komertzial, sozial eta kulturean norabiderik eza desagerrarazteko"

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduko alderdikideek legealdi erdiaren balorazioa egin dute, eta, hasiera ona izan ez bazen ere, bide onetik doazela azpimarratu dute. Hala, oposizio eraikitzailea egitearen aldeko apustu irmoa erakutsi dute herri jasagarriago, solidarioago, justuago eta euskaldunago baten alde.

"EAJk, Eskoriatzako hauteskundeetan boto gehien lortu zuen alderdiak, bere gobernuari egonkortasuna emateko Elizateekin akordioa lortzea lehenetsi zuen beste aukera politiko batzuei ateak itxiz; aurreko legealdi batzuetan aukerak zabaldu izan dira. Une horretatik aurrera, EAJk ia obsesio izan du aurreko legealdian egin ziren hainbat gai ezerezetan: hondakinak, urrezko konoen kalea oinezkoentzat ez izatea, axtrokiak kentzea (merkatariei kontsultatu gabe), eragile kultural eta sozialekin elkarlanerako hitzarmenak kentzea...", azaldu du Aitor Zubiza-

rretak, EH Bilduko bozeramaileak. Gaineratu du: "Bi urte hauetan herriaren eguneroko zereginen arduratu da, egia da, dedikazio handia duen gaia dela, baina legealdiaren erdira iritsita, oraindik ez dakigu zein den EAJren proiektu estrategikoa herri honentzat".

Elkarlanerako zirrikitua

EH Bilduk bere abstentzioa eskaini zuen herriarentzat erabakigarriak diren gaietan partidak sartzearen truke: horren adibide dira merkatarien mahaia sortzea eta herriko prekariedade ekonomikoaren azterketa bat egitea. "2018ko aurrekontuak prozesu parte hartzaile baten bidez egiteko konpromisoa ere hartu zuen EH Bilduk, eskoriatzarren errealitate eta beharretara egokituago egongo diren aurrekontuak izan daitezten. Inpresioa daukagu gobernu taldeak ez duela behar besteko ahalegina egiten gai horietan, ez du lidergorik, eta, ondorioz, hartutako konpromiso

hauek betetzea zaila izango da. EH Bildutik gure ekarpenak egiten ari gara, baina arlo bakoitzeko arduradun politikoak dira gai horien lidergoa izan behar dutenak. Horren ordez, prentsa-ko agerraldiak geroz eta gehiago dira. Behin baino gehiagotan udaletxearen asmoen berri prentsan jakin dugu batzordeetan baino lehen. Lana lan batzordeetan egin behar da eta ez era unilateralean. Argazkiak ondoren!".

Etorkizunera begira

EH Bilduk oposizio eraikitzailea egitearen alde egiten duela azaldu du. Baina horretarako, Gobernu taldeak etorkizunera begira herriarentzat arlo ezberdinetan zer behar duen jakin behar dutela adierazi dute: "Norabiderik eza desagertu behar da. EH Bildu, oposizioko lanetik, egoera horrekin bukatzen saiatuko da. Hauteskunde programan, guztiontzat hobea izango den herri baten alde egin zuen, eta egingo du".



Herri bazkari jendetsua egin da aurten kiroldegian. AITOR AGIRIANO

Parte-hartze handia izan da jaietan, eguraldiak lagundu ez duen arren

Azken orduko leku aldaketak gorabeherak sortu dituela azaldu du Udalak, baina arrakastatsuak izan direla

I.B ESKORIATZA

Zapatuan amaitu ziren sanpedroak, eta, eguraldiak lagundu ez duen arren, arrakastatsuak izan direla azaldu du Udalak. Honela azaldu du Joserra Zubizarreta alkateak: "Gorabeherak izan ditugu eguraldiarengatik. Azken orduko leku aldaketak egon dira. Hala ere, parte-hartzea ona izan da. Txupinazora, esaterako, elkarte ezberdinetako ia 80 ordezkari gerturatu ziren... Orain, jai batzordean erabaki beharko da datorren urteko jaietarako berrikuntza edo aldaketarik egin behar ote den".

Kuadrillen joko barik, arrakasta

Eskoriatzako txosna batzordeko kideak ere fin-fin aritu dira jaietan lanean. Hainbat ekintza antolatu dituzte eta guztiak izan dira arrakastatsuak, nahiz eta kuadrillen arteko jokoak ez ziren gauzatu. Horren arrazoiak da eguraldiak ez zuela lagundu eta izen-emate gutxi egon zirela. Hala ere, kuadrillen arteko bazkarian jende asko batu zen, eta, jokoak bertan behera geratu arren, bazkalostean, bingoa, tonbola, *Beerpong* eta fardo jaurtiketa jokoak egin zituzten, besteak beste.



Merezitako aitortza Mikel Letonari

Eskoriatzako txosna batzordeko kideek urteetan egin duen lana aitortu zioten Mikel Letona *Motelo*-ri. Horretarako, *Motelo zure lana gure eredu* idatzita zeukaten pankarta aurrean, txosna batzordeko kideek eta kuadrillakoek talde-argazkia atera zuten.

"Egoera konplexuak saihesteko mintegia"

RAFA CARRIET ATAMA ESKORIATZA TALDEKO ZUZENDARI TEKNIKOA

Emakume guztiei zuzenduta, eskolarteko emakume-defentsa topaketa egingo da lehen aldiz, zapatu honetan, Eskoriatzan, kirola, defentsa eta kultura transmititzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Rafa Carriet eskoriatzarra Karate Atama taldeko presidentea eta kirol zuzendari teknikoa da, eta 40 urtetik gora darama arte martzialen inguruan ikasten eta irakasten. Entrenatzailea bada ere, Euskal Herri osoan zein Espainia mailan hitzaldi eta erakustaldiak ematen urte asko daramatza. Hala, oraingoan, Eskoriatzan eskolartekoa antolatzen animatu da, lehenengoz egingo dena, Atamako kideekin eta Gu Denon Artean elkarte-koekin batera gauzatuko dena. **Nolako mintegia izango da?**

Madril, Bartzelona, Aragoi eta bertako irakasleak egongo gara topaketako saioak gidatzen. 10:00etan batuko gara, emakumeak elkarren artean ezagutu daitezten, lehenbizi, ongietorri gosarian, eta 10:30ean hasiko gara. 14:00ak arte iraungo du mintegiak, eta irakasle bakoitzak 40 minutuko klasea emango du, egoera ezberdinen inguruko errepresentazioak eginez...

Zer dela-eta otu zitzaizun emakumeen defentsarako eskolartekoa egitea?

Eskoriatzan emakumeen defentsarako taldea dugu, hamabost emakume inguruk osatzen dutena. Duela zortzi urte hasi ginen, eta beraiek eskatutako zerbait



Rafa Carriet. XABI URZELAI

izan da. Izan ere, beraien artean batzea... oso gustuko dute, eta, eskolartekoa sekula ez dugunez egin, buru-belarri jarri nintzen hau antolatzeko. Bestalde; defentsa, kirola eta kultura uztartze aldera ere antolatu dugu.

Zer transmititu nahi da?

Defenditzen jakitea baino gehiago, ekintzari berari eman nahi diogu garrantzia. Prebentzio neurriak hartzearen inguruan jardungo dugu. Bide batez, kirola egin, eta aholkuak emango zaizkie izan ditzaketen egoera batzuk saiheste aldera. Hala,

egoera konplexuak saihesteko mintegia izango da, defentsa ikastaro soil bat baino gehiago.

Topaketa irekia izango da?

Bertakoez gain, besteak beste, Gasteiz, Madril eta Aragoiko jendea izango da parte hartzen. Ez dugu topaketa Debagoienara edo Euskal Herrira soilik mugatu nahi eta nahi duena etor daiteke. Hala ere, doako mintegia izan arren, abisatzeko eskatu nahi diegu parte hartu nahi dutenei. Horretarako, 627 442 142 telefonora deitu edo kenpo-fulldefense@gmail.com helbidera idatzi behar da. 30 emakumek eman dute izena, eta, 40-50eko taldea osatzen badugu, nahikoa izango dela uste dut.

Topaketa honetaz gain, azken urteetan lorpen handiak batu dituzue, gainera, ezta?

Eskoriatzan 16 urtez irakasle aritu naiz, eta 2017a ezker, gainera, erreferente dira Eskoriatzako kirolariak maila estatalean, eta gaur egun mundu mailan ere bai.

Ikusleei ere gonbidapena egin nahi diezu?

Ikusteko baino gehiago, probatzeko topaketa dela esango nuke nik. Egoera deseroso baten nola erreakzionatzen ikasi nahi duenarentzat, beldurra dutenentzat... eta saio dibertigarria izango da.

Gaur ekingo diote Errekan Goraren hamargarren edizioari

Aukeran dantza konpainia eta El Trio De Medianoche taldea izango dira egitaraua zabaltzen lehenak

I.B ESKORIATZA

Uztaileko asteburuak hitzorduz beteta izango dira Errekan Gora jaialdia dela eta. Atxorrotx Kultura Elkarteak Udaren babesarekin antolatutako ekimenean, musika izango da nagusi, beti

bezala, eta aurtun, herriko txoko berrietan ere izango dira hitzorduetako batzuk.

Lehenengo emanaldia gaur izango da, 22:30ean, Gorosarri plazan. Aukeran dantza konpainiako kideak igoko dira ohol-

tzara. Euskal eta munduko folkloreak erritmo, doinuak eta fusionatuz, ikuskizun garaikide, ezberdin eta berritzailea eskainiko dute Edu Murumendarazzen gidaritzapean.

Zapatuan, berriz, El Trio De Medianoche Eibarko taldea izango da, 22:30ean, Zaldibar antzokiko plazan. Boleroak, rantxerak... halakoak eskainiko dituzte. Eguraldiak laguntzen ez badu, aldiz, gaurko emanaldia frontoian egingo da eta biharkoa, Zaldibar antzokian.

LEINTZ GATZAGA 19



Leintz Gatzagako udaleku irekietan umeak herri kirolekin. AITZIBER GOROSABEL

Berrikuntzekin datoz Leintz Gatzagako udaleku irekiak

Hiru asteko iraupena izango dute udalekuek, eta uztailearen 25ean bizikleta irteera egingo dute Lizarrara

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Guraso Elkarteak antolatutako udaleku irekiak astelehenean hasi zituzten, eta, uztailearen 21era arte, hiru asteko iraupena izango dute. 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara izango dira.

Aurtengo begiraleek urarekin egiteko jokoak, argazki lehiaketak, herri kirolak... antolatu dituzte, baina aurtun berritasunak ere izango dituzte. Honela azaldu du Aitziber Gorosabelek, Guraso Elkartearen kidea: "Astelehenean irteera egingo dute, egun edo egubakoitzean izango dena, eguraldiaren arabera. Hala, hirugarren astean, esaterako, kanpaldia egingo dute Dorletan. Egun batez, Iurre Romaretazabala eskoriatzarra etorriko da udalekuetako haurrei hitzaldi bat eskaintzera, baina eguna zehaztu barik dago oraindik... besteak beste".

Gatzagatik Lizarrara bizikletan

Udalekuak amaitzeko, uztailearen 25ean, Gamarrara irteera egingo dute gurasoek 10 urtetik gora duten haurrekin batera, eta handik Lizarrainoko bidea hartuko dute. "Gamarran egun-pasa egingo dugu, eta haurrek gurasoekin Estibalizerrainoko bidea egingo dute; handik begiraleekin joango dira Lizarraraino. Hain zuzen, hauxe izango da bidea: Gatzaga-Gamarra-Estibaliz-, gurasoekin, eta Maetzu-Acedo-Lizarrara, begiraleekin".

Izen-ematea asteka

3 eta 13 urte arteko haurrentzat zuzendutako udalekuetan astero eman daiteke izena. Aste honetan, esaterako, 10-11 haur artean aritu dira udalekuetan, baina aukera dago datozen asteetarako zein uztailearen 25eko bizikleta irteera joateko izena emateko.

Zaborraren gaineko tasaren errolda jendaurrean

Alkatearen ebazpenaren bidez, 2017ko bigarren seihilabeteko zaborraren biltza, garraio eta tratamendu zerbitzuaren tasaren errolda onartuta, jendaurrean jarri da informazioa.

Hain zuzen, udaletxeko idazkaritzan dago ikusgai, eta hura aztertzeke hamabost eguneko epea zabaldu da udaletxeko ediktu-taulan. Hala, hamabost

eguneko epea ireki da desadostasuna duenak errekurtsioa jarri dezan. Erreklamazioak udaletxeko sarrera-erregistroan jarri ahalko dira bulegoko ordutegian.

Ordaindu beharreko zerga borondatez aurkezteko epea 2017ko uztailearen 1etik 2017ko abuztuaren 31ra bitartekoa da, eta zerga-biltza epearen barruan ordaintzen ez duen zergadunak erreklarguarekin ordaindu beharko ditu eskatzen diren tasa horiek.



Elgetako gazte taldea jaietako Mozorro Egunean tablaio flamenko eta guzti. AITOR AGIRIANO

"Parte hartzea bikaina izan da"

Jai Batzordearen balorazio ofizialaren zain, Iraitz Lazkano alkateak adierazi du giro oso polita sumatu dutela Ferixa Nagusiko jaietan. Herritarren parte hartzea eta ekintza berriek izan duten harrera ona nabarmendu ditu, bereziki

Larraitx Zeberio ELGETA

"Giro berezia sumatu dugu jaietan. Giro sana. Eguraldiak ez du askorik lagundu, baina egia da frontoiak asko libratzen duela", esan du Iraitz Lazkano alkateak. Berrikuntza bat baino gehiago izan da. "Gaueko jolasetan jende askok hartu du parte. Oso gustura gelditu gara.

Hurrengorako, hobeto koordinatuko dugu; izan ere, plazan zegoen erromeria hustu egin zen, baina ekintza polita izan zen". Kuadrillen arteko jokoek emandakoarekin ere oso gustura da Lazkano. "Zazpi taldetan banatuta 45 bat lagunek hartu zuten parte, eta ikusleak ere asko izan ziren". Karaoke lehia-

ketak ere helburua bete duela dio: "Begira egon baino gehiago, parte hartu dute umeei, protagonista izan dira eta plaza ondo bete zen. Egia da kantu batzuk asko errepikatu zirela, eta hurrengoan, akaso, kategoria desberdinak ipiniko ditugu". Boluntario taldeak egindako lana eskertu du Lazkanok.



Karaoke lehiaketako saritua. JOSU BILBAO



Salerosketan Ferixa Egunean. A. A.



Jaietako zapi bana jaso zuten ongiroterri ekitaldian herriko hamasei jaioberrik. A. A.



Giro polita sortu zen Herri Egunean kuadrillen arteko jokoetan. AITOR AGIRIANO

Ur-putzuak jolaserako

Neska-mutikoen gustura hartu zituzten ur putzuak eguaztenean. Emakume Erresistenten Plazan ipini zituen Udalak goizean goizetik. Hiru ur-putzu izan ziren eta eramangarriago egin zuten egiten zuen beroa. Urtero moduan, goizean udalekuek neska-mutikoen ibili ziren bertan jolasean.



LZ

Garbitzaile eta kirol dinamizatzaile lanpostuak

Elgetako Udalak garbitzaileen eta kirol dinamizatzaileen lanpostuak deitu ditu. Bete beharreko baldintzak eta hautagaiak baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak elgeta.eus atarian daude jasota. Izena emateko azken eguna uztailaren 17a da, astelehena. Interesatuak udaletxean aurkeztu behar dute eskabidea.

Mendi aseguruaren estaldura zabaltzeko aukera martitzenean

Hemen da uda, eta, irteera bereziak egin nahi dituztenentzako, Kantsatzeko Mendi Taldeak jakinarazi du zerbitzu berezia eskainiko duela martitzenean. Kultura etxeko bigarren solairuan izango dira, 19:00etatik 20:00etara. "Bazkide egiteko zein udara begira federatzeko edo estaldura zabaltzeko aukera eskainiko dugu", adierazi dute.

ANTZUOLAKO JAIK 2017



- JOSEBA IPARRAGIRRE, BURUZAGIA
- TXOSNAGUNEAN DANTZARAKO MUSIKA
- HERRI KIROLAK ETA PILOTA
- 'BRIGADA FEMINISTA'

AITOR AGIRIANO



ELAY Taldea – Lizarragako Hiribidea, z/g – 20577 Antzuola (Gipuzkoa) – Tel.: 943 76 61 00 – Faxa: 943 76 62 62 – www.elay.eus



AGURRA

BEÑARDO KORTABARRÍA ALKATEA

Hasi orduko bukatu!

Ala, hemen gaude, plaza erdian jendearen bistan, dantzari eskasen plantan. Lehenengo pausoa ondo hartzen badut, segidakoa ere ondo joango da, eta ze kristo: hanka ezin baduzu altza, makurtu burua. Hontzarenak eginda, konturatu baino lehen hawaiiarren alkandora jantzita nabil, kuadrillakoekin, jan eta edanean. Ostirala beti izan da peligraso; hortaz, zeharo aldrebestu aurretik, hobe erretiratzea!

Zapatua, bagoaz Bergarako bandaren aurretik kalejiran. Gozada, benetan. Probatu nahi baduzu, etorri! Ez dago debekatua, eta ez da udaletxekoon pribilegioa. Hego zein iparraldeko senide nafarrekin egun-erdi emanda, Alardeko eskopeta zein kanoiek atera naute bazkalosteko lozorrotik. Notizia: aurtan, aspaldiko partez, bolborarekin! Gauez, berriz, txosnetara, zaharrok gazte artean nabarmentzera.

Igandeko azken txanpari jubilatuek prestatutako saldarekin ekin diogu, eta, janari eta edari-kontuak alde batera utzi barik, bazkarian, Castilla La Nuevan giltzapeko oporraldian duten Eltzikortarekin egon gara. Honi ere eman diote ostatua lagatzeko data. Kasu honetan ezin esan, hasi orduko bukatu! Jaietan, berriz, bai. Pintxo-dastaketatik, larrain dantza ikusita, domekako gaueko etxapleroa botata joan naiz lotara, biharko aje mortala gogoan.

Di-da pasa zaizkit; badakizu, antzuolar, gustuko tokian aldaparik ez. Zu ere gehiagoren gogoarekin gera zaitezela!

JAIETAKO EGITARAUA

UZTAILAK 08

ZAPATUA

09:00 eta 16:00 Bizikleta jaitziera.

UZTAILAK 09

DOMEKA

09:30 Txirrindulari lasterketa. LXXII. Antzuola saria. Iñaki Lete XXV. oroigarria.

14:00 Jubilatuen bazkaria herri ikastetxean. Ondoren dantzaldia.

UZTAILAK 13

EGUENA

12:30 Jaien hasiera. Umeen ikuskizuna, plazan.

13:30 Umeen herri bazkaria, Pausokaren eskutik.

18:00 Txistulari, trikitilari eta buruhandiekin kalejira.

19:00 Meza eta salbea. Ostein, txosnak zabaltzea eta luntxa.

19:45 Antzuolako zapia jartzea 2016ko eta 2017ko jaiak bitartean jaiotako umeei eta herriko bi nagusienei.

20:00 Ikurrin dantza. Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea. Udalbatzaren aurrekua.

22:00 Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin kantu afaria plazan.

23:50 Mahai eta aulkiak jasotzea.

00:00 Hontzaren jaitziera.

Ondoren, 01:00ak arte, kalejira Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin.

02:00 Jolasak, txosnetan.

UZTAILAK 14

EGUBAKOITZA

10:00 Txistulari taldearekin goiz-eresia.

10:30 Patata-tortilla lehiaketa.

11:00-13:30 Umeen jolas parkea patioan.

12:00 Bolo txapelketa eta meza nagusia.

12:45 Lore lehiaketako irabazle aukeraketa.

13:00 Lore lehiaketako eta gastronomia lehiaketako sari banaketa.

13:15 Patata-tortilla dastaketa.

14:30 Herri bazkaria Kalebarrenean.

16:30-18:30 Jolas parkea, patioan.

Xenkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Eskulan Ikastaroak
- Arropak
- Osagaiak
- Gozokiak.

Ondo pasau jaixak!!!



MOX
GOROSTI
LARREA
GAILUR

O N D O p A S A

J A I A K !



EGIN TOPA GUREKIN!



AITZ GARBI
ARIN
ONGI ETORRI
KOKKOR

17:30 Kuadrillen arteko jokoak herrian zehar Ustekabe txarangarekin.

19:00 Pilota partiduak. Kadeteak: Perez-Jauregi // Tatiegi-Perez. Gazteak: Biain-Balardi // Murua-Gartzia. Profesionalak: Mendizabal III-Erostarbe // Jaka-Tolosa. Sarrerak: behean 10 € eta goian 5.

23:00 Asea eta Oharkabe, txosnetan.

17:30 Kuadrillen arteko jokoak herrian zehar Ustekabe txarangarekin.

UZTAILAK 15

ZAPATUA

7:00 Sandwichak txosnetan.

9:55 Kanoiak sutzea.

10:00 Txistulari taldearekin goiz-eresia.

11:30 Bergarako bandaren kalejira

12:00 Marrazki lehiaketa plazan, Xinkonaren eskutik.

12:30 Bergarako bandaren

kontzertua, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, Zurrategin: Lagartijilla –pasodoblea–, J. M. Domingo; The lord of the rings, J. de Meij; Vals nº2, D. Shostakovich; Los euskaros –suitea–, Torremuzkiz; Highland rhapsody, J. V. der Roost; Mexico, F. Lopez.

19:00 Mairuaren Alardea. Desfilea herrian zehar; ekitaldi nagusia, plazan.

20:30 Eonian elektrotxaranga herriko kaleetan zehar.

22:30 Zehensuzkoa, plazan.

22:30 Obaneuke taldearekin erromeria, plazan.

23:00 Kontzertuak txosnetan: Zartako-k, Batek Daki, DJak.

UZTAILAK 16

DOMEKA

11:00 Jolasenearen eskutik, umeentzako eta helduentzako jolasak probatzeko eta ikasteko aukera.

12:00 Salda eta txorizoa, plazan, erretiratuen eskutik.



Larrain dantza ekintza herrikoienetako bat izaten da urtero. AITOR AGIRIANO

12:30 Herri kirolak, plazan: Aitzol Atutxa eta Irati Astondoa, Ugaitz Mugerzaren eta Karmele Gisapolaren kontra. Probak: zortzi ebaketa, trontza, txingak eta antxintxika. Iñaxio Perurena harria jasotzen.

14:30 Herri bazkaria, Ez dot moztuko bizarra-k antolatuta.

16:30 Anje Duhalderen kantaldia, plazan.

17:30 Bolo txapelketa.

19:00 Tio Teronen semeak dantza ikuskizuna.

20:00 Larrain dantza Oinarin dantza taldearekin.

20:30 Pintxo dastaketa, AKeren eskutik.

20:45-22:00 eta 23:00-00:00 Fan & Go taldearekin erromeria, plazan.

00:00 Hontzaren igoera.

00:15-1:00 Fan & Go taldearekin erromeria.



*Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!*

Ondarre, 9 ANTZUOLA • Tel.: 943 76 62 45
Faxa: 943 78 71 16 • garitanosl@gmail.com



MUJIKA

HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Jai Zoriontsuak!

"Urduritasun puntu bat izatea beharrezkoa da"

JOSEBA IPARRAGIRRE ALARDEKO BURUZAGIA

Egindako lana ondo beteta eta "bere buruarekin pozik" doa Joseba Iparragirre antzuolarra. Izan ere, 18 urteren ostean, bere azken Alardean parte hartuko du

Maidar Arregi ANTZUOLA

2000. urtean hartu zuen lehengo parte Mairuaren Alardeko buruzagi gisa Joseba Iparragirrek. 18 urteren ostean, azkenengoz parte hartuko du Alardean antzuolarrak.

Nola sentitzen zara azken Alardearen aurrean?

Lasai nago. Iaztik hartuta neukan erabakia da eta lasai nago. Ordezkoa zein izango den pentsatuta dago, eta horregatik ere lasai nago; ordezkoa zein izango den ezin dut aurreratu.

Prestaketa berezirik egingo duzu?

Ez; betiko moduan. Normal-normal prestatuko dut diskurtsoa behin eta berriro errepasatuz.



Joseba Iparragirre, Mairuaren Alardean, 2000. urtean. GOIENA ETA ANTZUOLAKO UDALA

Testu guztia ikastea... sekulako aktore lana izango da, ezta?

Behin ikasita edukita, gero berreskuratzea da kontua. Aurten pare bat saio egin ditut etxean diskurtsoa errekupeaturuz; baina ez naiz oraindik oso sakon hasi. Datozen egunetan behin eta berriro entseatuko dut; konfiantza hartzen joatea da gakoa.

Antzuolako jaiak noiz hasten dira zuretzako?

Hasi hasieratik, baina egia da zaindu egiten naizela eta ardurara hori hor dagoela. Esaterako, parrandan kantuan ez naiz ibiltzen ahotsa zaintzeko.

Alardea hasi aurretik familian elkartzen zara bazkaltzeko. Nola bizi dituzu une horiek?

Beti urduritasun puntua edukitzen dut; baina tentsio edo urduritasun hori egotea beharrezkoa da. Familian bazkaltzen dugu eta ni momentu batean jaiki egiten naiz eta toreroak bezala *en capilla* sartzen naiz.

Kontzentrazio unea izaten da zuretzako? Zer egiten duzu?

Diskurtsoa pare bat bider errepasatzen dut, arropa guztia hartzen dudala ziurtatu eta ezer ez dudala ahaztuta lagatzen kon-

probatzen dut. Eta poliki-poliki girotzen joateko prestatzen naiz.

Zaldia eraman ere konfiantza izango duzu, ala?

Egia esaten badizut, urduri jartzten naiz zaldiekin. Mutikotan esperientzia txar bat izan nuen. Zaldian ibiltzera joan, eta lurrean bukatu nuen. Horregatik, ez daukat konfiantza handirik, eta ez da momentu lasaia izaten, niretako. Batez ere, tiro hotsak hasten direnean.

Baina 18 urtetan ez da ezer pasa zaldiekin, ala?

Ez, ez, dena ondo joan da; gainera, zaldien zaintzaileak gurekin egoten dira eta nire zaldia oso otzana da.

Zer eman dizu Alardeak? Pozik esango duzu agur aurten?

Pozik noa, neure buruarekin konforme. Uste dut lan ona egin dudala. Balorazio ona egiten dut. Pozik noa erreleboa bilatu dugulako; izan ere, ez da gauza erraza postu hori betetzea. Mairuaren Alardeko paper, postu guztiak dira garrantzitsuak; baina esan behar da buruzagi papera egiteko prest dagoen pertsona bilatzea ez dela horren erraza.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Hartu arnasa! Finantzaketa Laboral Kutxaren bitartez egin ezazu!

Zurrategi 4, behea. • Tel.: 943 78 71 80 • Mug.: 637 436 500 • e-posta: harizki@hotmail.com • www.harizkicocinas.com

ONDO PASA ANTZUOLAKO JAIAK!



ERREKA

Erreka taldea
Ibarreta auzoa z/g
20577 Antzuola. Gipuzkoa
T. (+34) 943 78 60 09
F. (+34) 943 78 71 79
E. info@erreka.com

FINKAPEN SOLUZIOAK

PLASTIKOAK

AUTOMATISMOAK

ATE AUTOMATIKOAK

**DIBERTSIFIKAZIOA
ETA PERTSONEKI
KONPROMISOA
DIRA GURE
ETORKIZUNEKO BERMEA**

www.erreka.com



2014an etxean jokaturako jaialdian, Mendizabal III.ak Titin izan zuen aurrean. GOIENA

Mendizabal III.a eta Erostarbe, Jakaren eta Tolosaren kontra

Pilotari profesionalen aurretik herriko pilotari gazteek jokatu dute etxeko zaleen aurrean gaur iluntzean

Xabier Urzelai ANTZUOLA

Pilota jaialdi borobila antolatu dute gaurko, egubakoitza, Antzuolako jaien barruan. Lehenengo, ibarreko klubetako pilotariak jokatu dute. 19:00etan hasita, kadete mailan, Perez-Jauregi bikoteak Tatiegiren eta Perezen kontra neurtuko ditu indarrak, eta jarraian, gazte mailan, Biain-Balardi eta Murua-Gar-

tzia izango dira zein baino zein gehiago.

Profesionala, ondoren

Amateur mailako partidu horien ostean etorriko da profesionalen jaialdia -10 euro behean, 5 euro goiean-. Mendizabal III.ak eta Erostarbek osatuko dute bikotea, eta Jakaren eta Tolosaren kontra jokatu dute.

Bikote mistoen arteko lehia, aizkorian eta korrika

Domeka eguerdian herri kirolak izango dira plazan, 12:30ean hasita. Eta gizonezkoekin eta emakumezkoekin osatutako bi bikoteraren eskuetan egongo da erakustaldia egitea; ondoren, Inaxio Perurena ibiliko da harriak jasotzen

X.U. ANTZUOLA

Ohiturari eutsiz, herri kirolek girotuko dituzte jaiak domeka eguerdian (12:30). Eta, lehenengo, aizkolariak izango dira erakustaldia egiten; ez nolana hiko desafioarekin. Duela gutxi ikusi dugu Alex Txikonen eta Mikel Larrañagaren arteko lehia; enborrak ebakitzera mugatu barik, eta apustu baten bueltan, Txikonek eta Larrañagak hainbat enbor ebaki behar izan zituzten, eta ondoren korrika egin. Lehia ez zuten gura moduan amaitu: Txikon ospitalera eraman behar izan zuten eta Larrañaga ez zen urrun ibili, baina



Aizkolariak Antzuolan. GOIENA

formatuak erakutsi zuen aizkorako lehiatik harago zaleek gustura ikusten dituztela halako desafioak.

Bada, domekan, hainbat kirol jarduera konbinatuko dituzte honako bikote hauek: batetik, Aitzol Atutxak eta Irati Astondoak osatuko dute bikotea, eta, bestetik, Ugaitz Mugertza eta Karmele Gisa-sola izango dira. Eta hauxe izango da egin beharrekoa: zortzi enbor ebaki beharko dituzte, txingekin egin beharko dute lan, eta, azkenik, korrikaldia izango dute. Jarraian, Inaxio Perurenak erakustaldia egingo du harriak jasotzen.



amaia

Kalitatezko produktuak
Bertako produktuak
Produktu ekologikoak

*Ondo pasau
Antzuolako jaixetan!*



Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91



Gabilondo - Arzregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela



**Ondo
pasau
jaixak!!!**

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA

Emakume talde bat jaietan laguntzeko prest

Antzuolan emakume talde bat sortu da. Euren helburuetako bat jaietara eraso sexisten aurkako jarrera indartzea da, eta, horretarako, protokolo bat eratu dute. 'Brigada feminista' bezala izendatu duten dinamika ere jarri dute martxan

Ane Vitoria ANTZUOLA

Azaroan Antzuolako hainbat emakume elkartzeko hasi ziren, udalerrian presentzia handiagoa izateko asmoarekin. Talde horren helburu nagusia eraso sexisten aurkako aldarria egitea da. Bada, azarotik hona, bi aste behin, agerraldiak egiten dituzte egubakoitz arratsaldeetan. Talde hori sortu duten kideak emakume gazteak dira, baina, hala ere, agerraldietan adin ezberdinetako emakumeak biltzen dira, gazteak zein helduak.

Aurtengo jaietara begira, eta euren presentzia bermatu nahian, talde horrek protokolo bat sortu du. Horren bitartez, herritar

guztiek eraso sexisten aurka egin dezaketela nabarmentzea da; hau da, tabernetan zein txosnagunean gerta daitezkeen eraso sexistak edonork salatu ditzakeela, eta ez soilik emakumeek. Ardura guztionak dela azpimarratu nahi izan du taldeak, isilik gelditzea eta alkohola aitzakiatzat erabiltzea. "Emakumeen kontua da" edo "hau beti horrela izan da" esatea erasotzailea babestea dela uste dute taldekideak.

Protokoloaren xehetasunak

Jaietarako sortu den protokolo horrek erasoaren aurrean jarraitu beharreko pausoak, telefono

zenbakia eta laguntzarako kontaktua izango ditu. Mugikorra hainbat emakumeren eskuen artetik pasatuko da; hots, telefonoa taldeko kideen artean txandakatzen joango da. Modu horretan, eta, neurri horri esker, laguntza eskaini ahal izango da.

Jaiak disfrutatzen dira

Horrez gainera, jaiegunean, taldeko kide diren emakumeak kalean izango dira, edozein momentutan laguntza eskaintzeko prest. Hala ere, taldekideek azpimarratu nahi izan dute Antzuolako jaiak disfrutatzen direla, eta herritarrek ez dutela zertan beldurrik izan.



Antzuolako emakume taldea agerraldi batean. ANTZUOLAKO EMAKUME TALDEA

Udala ere eraso sexisten aurka

Jaietara begira, joan den urtean Antzuolako Udalak *Indarkeria matxistatik ez!* leloa zuten pegatinak ateratu zituen; eta aurtengo jaietarako dituztela esan du Osasun eta Gizarte Ongizate batzordeko teknikari Karmele Kortak. "Horrez gainera, urtean zehar eta kanpaina bezala, horren inguruko triptiko bat ere badaukagu. Honetan, hainbat azalpen agertzen dira, hala nola aholkularitza, larrialdietarako telefono zenbakia, arazoren bat izanez gero jarraitu behar diren pausoak... hori guztiori jasotzen du Antzuolako Udalak eginiko triptiko horrek", esan du teknikariak. Nahiz eta kanpaina urte osoan zehar izan, eta triptikoa beti eskuragarri egon, aipatutako pegatinekin batera hura ere kaleratuko dute Antzuolako festetan.



- Marka guztietako autoen konponketa
- Diagnosi elektronikoa
- Autoen salmenta: berriak eta bigarren eskukoak

Ondo pasau jaietan!

BEREZAO

Tel.: 943 71 80 85
berezao@raopel.com
OÑATI

BEREZAO ANTZUOLA

Tel.: 943 78 70 77
berezaoantzuela@raopel.com
ANTZUOLA

AMETS

Tel.: 943 78 70 77
amets@fordservicios.com
OÑATI



- Gasa
- Berogailuak
- Aire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Ondo ibili jaietan!

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel.: 943 78 71 78 / Faxes: 943 76 64 73



Dantzarako musika nagusi txosnagunean

Egubakoitz eta zapatu gauetan kontzertuak izango dira Zurrategin, eta, egunotan, Asea, Oharkabe, Zartak-K, Batek Daki eta Julen Larrañaga DJa igoko dira agertokira. Horrez gain, irekiera luntxa eta jolasak antolatu ditu txosna batzordeak

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Urtero legez, Zurrategi plazako txosnagunea izango da aurten ere Antzuolako jaietako festagune nagusietakoa. Herriko txosna batzordeak musikaz eta jolasez beteriko egitarau oparoa prestatu du, beste urte batez.

Uztailaren 13an, eguna, arratsaldeko zazpietan irekiko dute txosnagunea. Aurten ez dute olibaren jaitsierarik egingo, baina irekiera luntx batez lagunduta egongo da, inaugurazio ofizialen pare. "Pintxoak eta pikatzekoa egongo da denontzat", diote txosna batzordeko kideek, eta herritarrak gonbidatu dituzte gertura daitezen.



Egubakoitzean Antzuola eta Bergarako Asea taldearen kontzertua izango da. ASEA

Bada, egun horretan, goizaldeko ordu bietan jolasak izango dira Zurrategin, animatzen diren guztiendako. Ordu txikietan bakoitzaren abileziak frogatu eta denon artean barre egiteko aukera polita.

Gauetako kontzertuak

Uztailaren 14an, berriz, egubakoitz, kontzertuak izango dira, gauez, beti bezala. Egun horretan, 23:00etan hasita, partaide antzuolarrez eta bergararrez osatutako Asea taldearen ska, reggae eta rock doinuek girotuko dute Zurrategi plaza. "Iaz ere txosnagunean jo zuten, eta sekulako giroa izan zen, jendea oso gustura egon zen. Orduan, aurten ere berriz gonbidatu ditugu", azaldu du txosna batzordeko kide Jon Matak. Kontzertu horren ostean, Oharkabe taldearen eskutik erromeria izango da. Ordu txikietara arte dantza egiteko aukerarik ez da falta izango, beraz.

Bada, dantzaldi horiek goizaldera arte luzatzen dituztenek edota zapatuan goizean goiz esnatzen direnek, halakorik balego, txosnetan sandwichak das-

tatzeko aukera izango dute, gosari modura.

Hurrengo egunean ere, zapa-tua, gauez zuzeneko musika eta giro ona ziurtatuta dago txosnagunean. Zartako-K ska talde tafallarra arduratuko da antzuolarrek zein bisitariak dantzan jartzeaz. Horren ostean, Batek Daki erromeria taldearen eskutik euskal musikako abestirik ezagunenak kantatu eta dantzatzeko aukera izango da. Gaua ez da, baina, horrekin bukatuko. Izan ere, erromeria bukatzean, DJ festa izango da. Julen Larrañaga disko jartzaile arrasatearra arduratuko da gauari musika jartzeaz ordu txikietara arte; erritmo elektronikoak izango dira nagusi. Goizaldeko hurrak aldean ekingo dio eta bostak ingurura arte arituko da musika jartzen.

Txosna batzordeko kideek herritarrak animatu nahi dituzte Zurrategin barran lanean ari-tzeko txandetan izena eman de-zaten, laguntza ongiatorria izan-go da eta. Horretarako prest dagoenak txosna batzordeko kideekin harremanetan jarri besterik ez dauka.

Aixa
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIO!!



oerlikon
balzers

Ondo pasau
jaixetan!

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08
info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

Haurrek ere ederto pasako dute festetan

Urtero bezala, Antzuolako txikitxoenei hainbat eta hainbat ekintza eskainiko zaizkie jaietako bigarren egunean. Herriko parkean umeentzat puzgarriak, ludotekako ekintzak, eta abar izango dira; haurrek disfrutatzeko aukera bikaina izango dute

Ane Vitoria ANTZUOLA

Antzuolako jaiak heltzear daude, eta dagoeneko dena prest dago herriarrek euren festez goza dezaten. Gazteei zein helduei zuzendutako ekintzez gainera, Antzuolako haurrek ere jaietan ederto pasatzeko aukera paregabea izango dute. Izan ere, txikitxoenei bideratutako hainbat eta hainbat ekintza izango dira. Horietako bat da eskolako patioan eskainiko diren jolasak.

Umeen jolas parkea egubakoitzean, hilaren 14an, izango da, 11:00etatik 18:30era bitartean; tartean, 13:30etik 16:30era, etenaldia egingo dute.

Jolas ezberdinak

Jolas parkea Antzuolako Udalak jartzen du urtero eta bertan txikienei askotariko ekintzetan parte hartu ahal izango dute; adibidez, *Wipe Out: adi egon eta salto egin* proban. Horrez gainera, hainbat joko ere eskainiko zaizkie; giza futbolina, *pilota eroak* edota trebetasuna sustatzen dituzten jokoak. Eta, nola ez, puzgarriak ere izango dira jolas parkean.

Aparteko ekintzak

Jolas parkeaz gain, Antzuolako jaietan umeendako ekintza ugari izango dira; eta ekintza orokorretan ere hartuko dute parte.

Uztailaren 13an, umeen ikuskizuna izango da plazan, eta ekitaldi horrekin emango zaie hasiera festei. Ondoren, umeen herri bazkaria izango da Pausokaren eskutik. Txistulari, trikitilari eta buruhandiekin kalejiran izango dira udalerriko txikiak. Horrez gainera, ikurrin eta larrain dantzetan ere parte hartuko dute Oinarineko umeek. Hilaren 15an Xinkoren eskutik marrazki lehiaketa izango da, baita zezensuzkoa ere, plazan. Azkenik, uztailaren 16an, umeentzako eta helduentzako mahai-jolas berriak ikasteko aukera izango dute Jolasenea elkartearen eskutik.



Antzuolako umeak jolas parkean (2013). GOIENA

Atrakzioak ere izango dira

Parkean eskainiko diren jolasez gainera, jaiak irauten duten bitartean, atrakzioak ere egongo dira eskuragarri haurrentzat. Atrakzio horietan, prezioa, bueltako, 1,70 euro da. Hala ere, diru pixka bat aurrezteko aukera ere badago, lau bidaia sei euroren truke eskuratzeko aukera dagoelako. Horrez gainera, domekan, hilaren 15ean, hain zuzen, Umeen Eguna dela eta, eskaintza berezia izango da. Kasu horretan, prezioa 1,70 euro izatetik 1,20 euro izatera pasako da. Atrakzioen ordutegiari dagokionez, zapatuetan izan ezik, honako hau izango da: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 01:00etara. Larunbateko ordutegia, aldiz, honako hau da: 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 01:00etara.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Berrikuntza eta teknologia, Goizperren ADNak.
Ingurune digitalean eta 4.0an garatzen ditugu gure produktu eta zerbitzuak.



Industrialak



Ihinzadura



Bioteknologia



"Intentsitate handiko urte gogorrak izan dira"

MIKEL KEREXETA AKE-KO PRESIDENTEA

Hiru urte eman ditu Mikel Kerexetak AKEko batzordean lanean; azken biak, presidente. Gaurtik aurrera, baina, Ibon Gezalagak hartuko dio erreleboa

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, egingo dute, Olanaren, AKEren urteko batzar orokorra, 18:45ean hasita. Bertan, Mikel Kerexetak agur esango dio presidente karguari. Aurretik, baina, balorazioa egin gura izan dio GOIENARI.

Zein da urte hauetako balorazioa? Gogorra izan da?

Beti esaten dudan moduan, jende askori esker aurrera doan proiektua da AKE. Zentzu horretan, laguntasun asko izan dugu batzordekideok, eta oso balorazio positiboa egiten dut. Hala ere, pertsonalki, urte gogorrak izan dira: ordu asko eta intentsitate handikoak, eta familiarian izan ditudan gorabeherekin uztartu behar. Hala ere, oso gustura ibili naiz.

Bazkide kopurua igo egin da?

Bazkide kopurua 300 bazkide inguruan egon da egonkortuta azken urteetan. Aurten, hein handi batean, futbol eskolari esker, 358 bazkidera heldu gara. Horrek erakusten du herrian zeharo errotuta dagoela AKE.

Kirolaz gain, garrantzi handia eman diozue euskarari ere.

AKE euskaraz bizi den taldea da: komunikazio osoa, entrenamenduak, ekintzak... euskaraz egiten dira. Euskararekiko konpromiso osoa daukagu.



Mikel Kerexeta, Herriko Plazan. MAIDAR ARREGI

Futbol eskola harremanak egiteko eta komunikazioa indartzeko bide ere izan da, ezta?

Futbolaren inguruan dauden lan esparru ezberdinak landuz helburu batzuk lortu nahi ditu AKEko futbol eskolak. Gazte txoei, harremanak egiteko erraztasunak eman nahi izan dizkiegu eta guztien partaidetza sustatu gura izan dugu. Baita Antzuolan dugun haurren kirol partaidetza handiari eustea ere; eta adin horretan inork gaitasunik ezaren sentipenik izan dezan saihestu gura izan dugu.

Nola ez, bizi ohitura osasungarriak sustatzea, etorkizunean bizi estilo aktiboak eta aisialdirako ohitura positiboak har ditzaten. Aniztasuna eta talde-lana bultzatu gura dugu, bai harreman aldetik, baita genero aldetik ere. Baita norberaren gaitasun bereziak sustatzea eta, horrekin, norberari buruzko iritzia osatzen laguntzea ere. Izan ere, helburuak asko dira: errespetua, norberaren erantzukizuna sustatzea, euskararen erabilera indartzea... Lehen urtea izateko, oso balorazio posi-

tiboa egin dugu. Baina hori baino askoz hobe da guraso eta joklariengandik jaso duguna. Denboraldi borobila izan da futbol eskolakoa.

Neskek futboleko jokatzeko bidea zabaltzen du eskolak.

Azken urteetan, asko kostata eta sei urte ezberdinetako neskekin, kadete mailako taldea ateratzea lortu da. Iaz ez zen posible izan. Hiruk Eibarren eta beste bostek Bergaran jokatu dute. Horri buelta eman, eta gaztetatik futboleko aritzeko aukera eman nahi diegu Antzuolako neskei. Futbol eskolan hamasei neska aritu dira aurten.

Zein proiektu dituzue orain?

2018ko udazkenean AKEk 25 urte beteko ditu. Urteurrenarako lanak aurreratzen joateko, batzarreraren proposamen zehatz bat eramango dugu gaur arratsaldean. 1993tik gaurdaino egingako ibilbidea dokumentatzea, alegia. Izan ere, idatziz ez dago gauza handirik jasota eta lan sakona egiteko asmoa daukagu.

Nork hartuko du erreleboa?

Ibon Gezalaga izango da presidente berria. Batzordean urtebete egin du eta eskarmentua badu; badaki erronkak zeintzuk diren, gainera.

Zein erronka dituzue, bada?

AKEk hartu duen dimentsioa dela-eta, kirol mailan estruktura teknikoak sendotu beharra dago. Jokalari pila bat daukagu eta herrian entrenatzaileak aurkitzeko arazoak ditugu. Beraz, bi bide landu behar dira: batetik, entrenatzaileen formazioarekin jarraitu beharra dago. Aurten, hiru gazte federazioak antolatutako entrenatzaile ikastaroa egin dute. Bestetik, talde guztietan AKEko eredu bultzatu eta lotura lanak egingo dituen zuzendaritza teknikoaren beha-

rraren inguruan hausnarketa eta eztabaida sortu beharra dago. Gainera, Eztalako futbol zelaian inbertsioak egitea beharrezkoa da. Lehenetsun osoa aldagelek izan behar dute, baina harmailak ere beharrezkoak dira; izan ere, Ezkala neguan gogorra da. Azken urteetan autobidearen lanek zeharo baldintzatu dituzte Eztalan egin zitezkeen lanak. Obrak bukatu bezain laster, Eztalan aldagela berriak egin behar dira; bi bakarrik ditugu eta oso egoera kaxkarrean daude. Futbol eskolako jardunaldi batzuetan 10-12 talde izan ditugu -nesken eta mutikoen taldeak-; bi aldagelokin horri erantzun egokia ematea ez da posible izan. Beraz, behin betiko irtenbidea heldu bitartean, aldagela edukitzearen beharrari erantzuna eman beharra daukagu Antzuolako Udalaren eskutik.

Diru sarrerarik espero duzue? Zein da egoera ekonomikoa?

Ekonomikoki AKE egonkortuta dago. Denboraldia parra bukatuko dugu eta datorren urterako bermeak ere baditugu. Aurten, Realarekin hitzarmena berritu dugu, eta horrek diru sarreran iguera ekarri du.

Zuzendaritza goitik behera berrituko da?

AKEn aldaketak urtero egiten dira, baina modu zatikatuan. Orain, hamabitik lau kide berrituko dira. Tartean, esan bezala, presidente berria aukeratu da: Ibon Gezalaga.

"EZTALAN HARMAILAK ETA ALDAGELAK EGITEA EZINBESTEKOA DA; INBERTSIOAK EGIN BEHAR DIRA"



ANTZUOLA JAIXETAN



ANTZUOLAKO
UDALA

www.antzuola.com
www.antzuolakoalardea.com

ONDO
PASAU!

Eli Iturbe izendatu dute Antzuolako bake epaile

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, udalbatzak aho batez onartu zuen Antzuolako bake epaile berria Eli Iturbe antzuolarra izatea; ordezkoa Begoña Marta Zabala izatea ere onartu zuten. Gainontzeko aztergaiek diru kontuak izan zituzten oinarri

Maider Arregi ANTZUOLA

Diru kontuak izan ziren hizpide uztailleko ohiko osoko bilkuran. Hala, mahai gainean jarritako lehen proposamenean, aurkeztutako kreditu gehigarriak onartuak izan ziren.

Hau da, batetik, Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzari 13.500 euroko ekarpena egitea. "Hasiera batean, uztailaren 1ean sartzen ginen Kabian -udal egoitzak bateratzeko proiektua-. Baina orain, urriaren 1ean sartuko garela jakinarazi digute. Elena Lete Bergarako alkateak, baina, idatziz jakinarazi digu aurreratutako diru hori itzuli egingo digutela", argitu zuen



Martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran, bozketaren une bat. MAIDER ARREGI

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Eta bestetik, hilerriko zubia konpontzeko 42.857 euro aurreratzeke proposamena onartu zuten. Izan ere, zubia ez dagoela egoera oso onean argitu zuen alkateak eta lehenbailehen konpondu beharra dagoela azpimarratu zuen. "Aseguru etxea kargu egin arte, proposatzen dena da dirua aurreratu eta egoera txarrean dagoen zubia konpontzea. Gero, aseguruak itzuliko du diru hori", argitu zuen alkateak.

Bake epaile berria

Belen Azkarate izan da orain artean herriko bake epailea. Baina, bere lanpostuaren batezintasunagatik -udal langilea da- ez zen aukeratua izan. Hala, udalbatzak aho batez aukeratu du aurrerantzean bake epaile berria Eli Iturbe antzuolarra izatea. Ordezkoa, aldiz, Begoña Marta Zabala izatea onartu zuten. Guztira, lau lagun aurkeztu dira bake epaile posturako; baina aukeraketa egiteko garaian, antzuolarra izatea baloratu du udalbatzak.

Antzuolako jaiak

Herriko festa nagusia ate joka dagoen honetan, urtero egiten den moduan, jaietako gastuaren berri eman zuten ohiko osoko bilkuran.

Guztira, 38.000 euro pasatxo-ko diru partida bideratu direla aurrekontutik azaldu zuten. "8.800 euro azpiegitura eta logistikarako bideratuko dira. 29.500 euro, aldiz, ekintzetarako izango dira", argitu zuten.

Euskararako diru laguntzak

Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Kontseilua eta Lankiri bideratutako diru laguntzak onartu zituzten. Era berean, Goiena Komunikazio Taldearekin Antzuolako Udalak sinatuta daukan hitzarmena ere ekarri zuten mahai gainera. Balarako komunikabideak eta Udalak hitzartuta dutenaren arabera, 17.000 euro pasatxo jasoko ditu aurtenean Goienak. "Zerbitzua, hitzarmena da Goienaren kasa; hau da, ez da diru laguntza. Aurrekontuan jasoa eta aurrez adostutako hitzarmena, alegia", argitu zuen Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk.



Tara natur denda
Herriko Plaza, 4
Ondo ibili jaietan!
943055889
677986106
taranaturdenda@gmail.com



Jai zoriontsuak
antzuolar guztiei!!!

Herriko plaza 4
ANTZUOLA
Tel.: 677 46 63 21

'Eltzikorta' gogoan

Eltzikorta-k kartzelan 20 urte bete dituela eta, zapatuan ekitaldia egin zuten Zurrategin. Bertan izan ziren Xabier Aranburu eta Pakito Lujanbio preso ohiak. Antzuolarrarekin espetxean bizitako pasarteak kontatu zituzten. Eta, horren ondoren, iaz Herrera de la Manchara egindako martxako irudiekin osatutako bideoa eskaini zuten.



MATE TXINTXURRETA



DEKORAZIOA
PAPER PINTATUAK
Ondo pasau jaixetan!

Errekalde 6. Antzuola • 943 76 60 19 • 637 55 14 46 • 637 55 14 47



LIBURU DENDA
ESTANKOA
JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxes: 943 76 60 62



Zorionak antzuolar guztioi!

659 57 50 97
Kalebarren 13 ANTZUOLA

Euriz bustita egon dira aurtengo sanmartzialak

Aspaldiko urteetako San Martzial festa fresko eta bustiena izan bada ere, Antzuolako Lizarraga auzoan ez dute hotzik pasa. Joan den astebururako antolatutako ekintza gehienetan parte-hartze ona izan da, eta horrek berotu ditu bazterrak

M.A./M.T. ANTZUOLA

Euripean ospatu dituzte Lizarraga-gako sanmartzialak. Dena den, parte-hartze handia izan da eta giro onean igaro dituzte egunok.

San Martzial egunean, ohiturari eutsiz, meza nagusia izan zen ermitan, eta ostean, ardoa eta gazta banatu zuten. "Herriko trikitilariak alaitu zuten arratsaldea. Hotza, haizea eta euria egiten zuen, eta afaria ermita barruan egin zen. Baita mus txapelketa ere. Afaltzen 40 bat lagun elkartu ginen. Mus txapelketako irabazlea Xabier Etxezarreta eta Joxue Madariaga bikotea izan zen", kontatu du Ion Gurutz Biteri auzotarrak.

Asteburuko ekintzak

Zapatuan ere eguraldi motela izan zen, eta, goizean zehar jende gutxi ibili bazen ere, arratsalde partean hasi zen mugimendua, plater tiroketa txapelketarekin. Irabazlea Emiliano Sanchez izan zen, plater guztiak botata -hamabostetik hamabost-. Luis Manuel Altube *Txanbolin*-ek ere denak bota zituen, baina berdinketa Emilianok hautsi zuen".

Ondoren, txokolate-jana egin zuten ermita barruan eta Bilbotik etorritako mimo batek ekitaldia eskaini zuen, umeen eta gaztetxoek gozamenarako. Ondoren, 70 lagunek afaria egin zuten eta suzko erruberak ere

ez ziren falta izan. Harkaitz Allurrek eta Maddalen Arzallusek eskaini zuten erromeria.

"Domekan ateri eta tenperatura hobe izan zen. Goizean goizetik Igeldotik etorri ziren bi lagunek bildotsak burruntzian prestatu zituzten. "Lau bildots jan zituzten 50 lagunek. Baina horren aurretik, txirrindulari igoera proba, domekako meza eta dantzariak izan ziren protagonista".

Bazkalostean, erromerian, Imuntzo eta Belokirekin, dantza egiteko jende dezente bildu zen San Martzialen domekan. Eta jaiak amaitzeko brindis berezia egin zuten: *Chula la mañana*.



Ikurrin dantza ermitaren aurrealdean. ION GURUTZ BITERI



Mus txapelketako bikote irabazlea, sariekin. ION GURUTZ BITERI

OHARRAK

Larrain dantza


Entsegua martitzenean, 20:00etan, eskolako patioan.

Erretiratuen bazkaria

Domekan, uztaileak 9, erretiratuen bazkaria eskolan (14:00). Ondoren, dantzaldia.

Alardea: entseguak

Hilaren 12an (19:00) eta 15ean (18:00) entsegu orokor bana egingo dute Herriko Plazan.



helburu
zure hezkuntza akademia

672 69 66 30
Kalebarren 1 • Antzuola
helburu@helburu.com

Ondo pasau jaixetan!



Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!

Ile apaindegia



Edertze aretoa

Germaine de Capuccini produktuak

Laser bidezko depilazioa
Informa zaitez!



Ondo pasatu Antzuolako jaixetan!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

RPS: 306/13

HORTZ KLINIKA
Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

PADI • Odontologia orokorra
Periodontzia eta inplanteak

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behe 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

HORTZ KLINIKA
Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

PADI • Odontologia orokorra
Periodontzia eta inplanteak

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behe 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

Boluko frontoia estaltzea ez dute begi onez ikusten

Boluko auzotar talde batek dio hasieratik agertu direla estalkia jartzearen aurka, "eragin estetiko handiatatik" eta "diru-xahutze galanta" dela argudiatuta; gobernuari proposatu diote dirua pilotalekuko hormak txukuntzera eta irisgarritasuna hobetzera bideratzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Boluko pilotalekua estaltzeko Udal Gobernuak duen asmoaren aurka agertu da auzotar talde bat, eta euren ikuspuntuaren berri emateko prentsa agerraldia egin zuten eguaztenean frontoian bertan: "Zenbat aldiz esan behar dugu ezetz? Zenbat batzar behar dituzue?", galdegina diote Gobernuari. Azaldu dutenez, urtarri-lean egindako batzarrean argi utzi zuten frontoia estaltzearen aurka daudela, eta auzotarren 108 sinadura aurkeztu zituzten horren berme gisa.

Joan den asteko batzarrean ere auzotarren ezetza eta kezka nabarmendu zirela diote: "Ez gaituzue engainatuko, nahiz eta belar artifizialeko teilatutzarra eraiki nahi, nahiz eta punta-puntako diseinuak mahai gainean jarri... Argi eta garbi diogu espazio garbia, librea eta estalki finkorik gabekoa nahi dugula".

Euren iritzia aintzat hartzea

Udal Gobernuak aurkeztutako aurreproiektuei erreparatu, "eragin estetiko handia" dakar auzotar talde horrendako, eta, horregatik, beste aukera bat proposatzen dute: frontoiko hormak txukuntzea eta irisgarritasuna hobetzea; betiere, frontoia estali barik. Pilotalekuak



Estalkiaren aurka dagoen auzotar talde bat, eguazteneko agerraldian. IMANOL BELOKI

erabilera handirik ez duela gaineratu dute, eta ez dagoela beharrik "halako dirutza" estalkian gastatzeko, bereziki, auzoan beste behar batzuk daudenean. Hasiera baten Udal Gobernuak proiekturako 100.000 euroko partida aurreikusi bazuen ere, 180.000 eurora handitu dute aurrekontua. Eta diru hori frontoia estaltzeko inbertitzea "diru-xahutze galanta" dela uste dute.

Amaitzeko, salatu zuten Gobernuak leporatu izana bizilagun konkretu batzuek interes parti-

kularretan oinarritzen dutela proiektuarekiko kontraktasuna. "Bizilagun bakoitzak gure interes eta iritzi propioa daukagu proiektua atzera botatzeko; gure artean inork ez du aldaketa basati hori jasan nahi. Parte hartzailea, entzulea eta ardurasua izatea dira gure Gobernuaren ezaugarri nagusiak, nonbait. Hitz politak dira, baina mamirik ez badute antzerki hutsean geratzen direnak. Mesedez, jaso gure iritziak eta errespetatu, iritzi guztiak dira eta errespetagarriak", gaineratu dute.



JOKIN BEREZIARTUA

Larrañagaren lanak, jakin-mina

Txiki geratu zen udaletxeko osoko bilkuren aretoa Patxi Larrañagaren *Abizenak, leinuak eta oinetxeak* liburuaren aurkezpenarekin. Memoria historikoa berreskuratzeko bidean lan inportantea dela adierazi zuten, besteak beste: "Halako lanak ezin dira egungo diru-truke ereduaren ordaindu; errekonozitu, irakurri eta norbera janzteko erabili behar dira", esan zuen Anaje Narbaizak.

Agorrosin Gaua bihar, Oihan Vegaren disko-festa eta guzti

Udalak jakinarazi duenez, Agorrosin Gaua bihar, uztailak 8, egingo da. Gogora ekarri behar da eguraldi eskasagatik birritan atzeratu behar izan dutela; ekainaren 24an egin behar zen hasieran, eta ondoren, ekainaren 30era atzeratu zuten. Aurreko bi aldietan ez moduan, egitarauan aldaketa garrantzitsu bat egongo da, Oihan Vega bergararren disko-festa izango da eta. Hortaz, kanpoko eta barruko igerilekuak zabalik egongo dira 20:30etik 23:30era; disko-festaz aparte, eskaintza zabala izango da igerilekuetan, bereziki, gaztetxoei begira: uretako puzgarriak, ur jolasak, baloi erraldoiak...

Artzamendiko berdeguneari erabilera berria eman guran

Artzamendiko berdegunearekin zer egin erabakitzeko bilera irekia deitu zuen Udalak martitzenerako -28.010 metro koadroko azalerako dauka-. Erabilera berria zehazteko prozesuak hiru urrats izango ditu: herritarren proposamenak jaso; ondoren, horiek kontuan izanda, paisajista batek planoen diseinua egin; eta, azkenik, diseinua eta aurrekontua zein den jakinda, proiektua zehazteko herritarrekin berriro elkartu. Bileran, proposamen hauek irten ziren, besteak beste: ibilbidea atontzea, umeendako jolas parke bat, helduentzako gimnasioa bat, eskalada egiteko lekua, ortuak landatzea, txorien dako behatokia egitea...



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Heldu dira Mizpirualdeko auzolandegirako gazteak

Euskal Herriko eta Espainiako txoko ezberdinetako hamabost gazte etorri dira aurten Mizpirualdeko egoiliarrekin jolastu, paseatu edo berriketan egiteko asmoz; bederatzirte egin dituen ekimena aberasgarria izan ohi da gazteendako zein adinekoendako

Jokin Bereziartua BERGARA

Martitzenean heldu ziren Bergarara *Belaunaldi arteko truka-keta* izeneko auzolandegian parte hartuko duten gazteak. Euskal Herriko eta Espainiako toki ezberdinetatik –Madril, Galizia, Valentzia, Aragoi, Gaztela-León...– etorri dira; guztira, hamabost gazte. Mizpirualde egoitzako egoiliarrekin dinamizazio lana egitea izango da euren egitekoa, eurekin jolastea, paseatzea edota berriketan egitea.

Azken finean, laguntza emozionala eskainiko diete gazteek adinekoei, baina gazteendako ere ekimen oso aberasgarria izaten da. Iaz auzolandegian parte hartu zuen gazte batek argi utzi zuen: "Eurek ekarpen handiagoa egingo didate niri, nik eurei egingo diedana baino. Nagusiak jakintza-iturri dira, gauza asko bizi izan dituzte eta asko irakasten digute. Guk eurei poza eta distrakzio aukera eman diezaiekegu".

Egoiliarrek eta gazteak gustura

Gazteen bisitak arrastoa uzten du adinekoengan, Mizpirualdeko arduradunek azaldu zutenenez: "Bizipoza geratzen zaie pare bat astetan, gazteena akordatzan dira eta egoitzako langileei bizitako esperientzia kontatzen



Auzolandegikoei martitzenean egin zieten harrera, udaletxean. BERGARAKO UDALA

diete. Gainera, eskuz idatzitako gutun bidez komunikazioa mantentzen dute urtean zehar". Asmoen artean dute, tarteka, gazteen eta adinekoen arteko bideokonferentzia saioaren bat egitea.

Bederatzigarren edizioa

Auzolandegiaren bederatzigarren edizioa da aurtengoa. Bi asterako etorri dira, eta astelehenetik egubakoitzera egongo dira Mizpirualdeko egoiliarrekin; astelehenetik egubakoitzera goizez 10:30etik 12:30era –egongo dira,

eta eguaztenetan zein egubakoitzetan arratsaldean ere.

Hala ere, auzolandegian parte hartuko duten gazteek, egoiliarrekin egoteaz aparte, izango dute aukera bertako zein Euskal Herriko txokoez gozatzeko: "Gainerako denbora aisialdira bideratuko dugu, Gipuzkoako eta Bizkaiko kostara irteerak egiteko, bereziki", adierazi du Aritz Gonzalez begirale oriotarrak. Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimena da, Bergarako Udalaren eta Mizpirualde egoitzaren bakesa duena.

276.000 euro diru laguntzetara; tartean, alokairurako 30.000 euro

Herriko gazteei gurasoen etxetik irten eta alokairua ordaintzen laguntzeko partida atera du Udalak lehen aldiz

J.B. BERGARA

Udalaren diru laguntzen barruan, gizarte zerbitzuetan, gazteei etxeko alokairua ordaintzen laguntzeko 30.000 euroko partida bideratu dute lehen aldiz: "Udalak esfortzu berezia egin du gazteak lagundu nahi dituelako. Herriko gazteek gurasoen etxetik joan eta bakarrik bizitzeko zailtasunen aurrean, Udalak pauso hori ematea erabaki du". Partida horrez gain, 55.250 euro bideratuko zaizkie gobernuz kanpoko erakundeek eta beste 29.750 euro gizarte taldeei. Gainerako arlo-

tan, honako hau da banaketa: kirol arloko elkarteek laguntzeko 89.500 euro, kultura taldeek 39.200 euro, ekonomiaren sustapenerako 30.000 euro eta ingurumen arloko taldeendako 3.000 euro.

Eskaeratarako, ingurumen eta berdintasun baldintzak ezarri dira, Udalarendako "estrategikoak" direnak. Eskaerak uztailaren 21era bitartean egin behar dira, gazteendako alokairurako laguntzak izan ezik; horiek urte osoa dute eskaera aurkezteko. Argibide gehiago, udaletxean eta Udalaren webgunean.

Idazlagunak-en kanpaina berriak baditu irabazleak

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Idazlagunak egitasmoaren baitan, *Gure dendak euskaraz jan-tzi nahi ditugu!* kanpaina burutu dugu ekainaren 12tik 29ra. Ekainaren 30ean egin genuen zozketa eta dendetan banatutako txartelen artean zenbaki irabazlea 1.259 izan da, Annika dendan banatua. Bestalde, bertsoa osatuz parte hartu dutenen arteko irabazlea izan da Aintzane Mendizabal. Txartel saritua duen pertsonak Jardun elkartearen egoitzatik pasatu behar du uztailak 21a baino lehen saria jasotzera; astelehenetik egubakoitzera goiz zein arratsalde egongo gara. Zorionak bioi!

OHARRAK

Candykoen bazkaria

Candyko langile ohiek bazkaria egingo dute urriaren 21ean, Zabala jatetxean (13:30), musika eta guzti. Izena emateko, kontu korrante zenbaki honetan egin behar da 35 euroko ordainketa, uztailaren 15a baino lehen: ES63 2095 5166 0091 1703 6492 (Kutxabank).

Pol-Polekoen irteera

Pol-Pol mendizale taldeko beterranoen taldeak irteera egingo du uztailaren 16an. Biriatun hasi eta bukatuko dute martxa, Ibardin zeharkatu ostean. 08:00etan elkartuko dira, frontoian; parte hartzeko, 20 euro ordaindu beharko da.

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Klub onena izendatzea, liga berrirako ilusio iturri

2016-2017 denboraldiko futbol talde onenaren saria jaso du BKEk Gipuzkoako Futbol Federazioaren eskutik: "Sari horrekin egiten dugun lana goraipatzen dute eta hori oso garrantzitsua da guretzat"; maila berrirako osagai nagusiak "ilusioa eta lana" izango dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Nekez ahaztuko du Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak 2016-2017 denboraldia. Gizonezkoetan lehen bi taldeek igoera lortu dute, eta hori ez da oharkabea pasatu Gipuzkoako Futbol Federazioarendako. Probintziako klub onenaren saria jaso zuen BKEk joan den astean. "Poztasun handia hartu genuen saria eman zigutenean, ez genuen espero. Federazioak denboraldiko talde onena bezala izendatzearekin egiten dugun lana goraipatu nahi izan du eta hori guretzat oso garrantzitsua eta pozgarria da. Eskerrak eman nahiko nizkien, zuzendaritzaren izenean, federazioari eta Gipuzkoako futbol klubei egiten dugun lana goraipatzeagatik; horrez gain, gure jokalaria, entrenatzaileak, senideak, laguntzaileak eta zaleak zoriondu gura ditut, sari hau eurena baita", adierazi du BKEko futbol saileko presidente Iosu Elortzak.

Aldaketa gutxi lehen taldean

Denboraldi borobilari erreko nozimendua jaso izanak hurrengo urterako indarra ematen dietela dio Elortzak: "Denboraldi berriari ilusio handienarekin ekingo diogu. Zaila izango da aurtengoa hobetzea baina ahalginak egingo ditugu, ilusioarekin eta lanarekin".

2017-2018 denboraldirako presaketetan murgilduta dago BKEko futbol saila; lehen taldeko entrenatzaile moduan Mikel Juaristik jarraituko du eta harekin batera izango dira igoera lortu duten jokalariek gehienak ere: "Azken bi urteetan izugarrizko lana egin du Mikelek eta oso pozik gaude hurrengoan ere bera izango delako lehen taldeko entrenatzailea". Aurre-denboraldiko entrenamenduak abuztu erdialdean hasiko ditu lehen taldeak eta gainontzeko taldeek abuztu amaieran edo



Iosu Elortzak jaso zuen saria federazioko presidente Juan Luis Larrearen eskutik. GFF

JOKALARI GEHIENEK ETA MIKEL JUARISTI ENTRENATZAILEAK LEHEN TALDEAN JARRAITUKO DUTE

BKEren batzar nagusia dator

Urteko batzar nagusia egingo du uztailaren 13an Bergara Kirol Elkartek. Futboleko, eskubaloiko, saskibaloiko eta pilotako sailek osatzen dute BKE eta batzar horretan sail guztietako ordezkariak izango dira. Honako gai hauek landuko dira, besteak beste: kirol sailen txostena, informe ekonomikoa, 2017-2018 denboraldiko aurrekontua eta kuoten onarpena eta zuzendaritza batzordekideen berrespena. Irizar jauregian egingo da; lehen deialdia 18:30etan eta bigarrena 19:00etan.

iraileko lehen astean hasiko dira. "Oraindik ez dugu dena itxita baina lagunarteko partiduetatik batzuk izango ditugu denboraldia prestatzeko", gaineratu du Elortzak. Amaitzeko, denboraldi berrirako betiko helburuak betetzea izango dute begiz jota: "Neska mutikoen futbolaz disfrutatzea izango da lehentasuna, hezkuntza eta baliotia oinarrituta. Kirol mailan ez dugu erronkarik markatu nahi, ez dugu eta zalantzarik jokalariek guztiek ahalik eta emaitza onenak lortzeko euren onena emango dutela". Emakumezkoen futboleko ez dute aldaketa handirik espero, talde kopurua mantenduko dutela uste dute: "Baliatze zerbait haztea, gaztetxoaren artean batez ere".

Udako Torneoaren azken txanpa

Bestalde, Ipintzako futbol zelaian jokatzeko ari den Udako Futbol Torneoaren finalak uztailaren 13an eta 14an jokatuko dira. Hilaren 13an mutilen kopako finalak jokatuko dira (18:30) eta hilaren 14an, berriz, mutilen txapelketako (19:15) eta beterranoetako finalak. Nesken txapelketa ez da antolatu aurretik.



NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR

Horma digitalak

Urte hasierarekin batera sortu genuen Zibergarakook Elkartela Bergarako horma digitala ekimena. Bertan itsatsi dira kale garbier mantretatik iheska herri mugimenduek azken sei hilabeteetan ekoiztutako kartel eta afixak Komunikazio gerrilla akzio bat izatez gain, ondare grafikoa artxiboetara eta zenbakietara ekartzeko aukera dugu gure big data txikian: 120 kartel /ekimen sortu ditugu herri moduan 180 egunetan, bada herria bizirik dagoenaren seinale. Netflix, ikus-entzunezkoak sarean soilik banatzen dituen multinazional bat, gai da gure herriko plazan kartel analogiko bat adierazpen libreko gunean (oximoroi handiagorik ote) jartzeko, toki eta une berean, herri mugimenduak kasik ez gara gai kartelak 24 orduz irauterazi eta mugikorrak gaineko kale komunikazio eraginkor bat bermatzeko.

Garai paradoxikoetan plaza digitala okupatzeko asmoz sortu zen Elkartela esperientzia, eta horretan dihardugu. Instalatu Telegram eta sartu t.me/elkartela kanalean. Sarean ere adierazpen libreko gune autogestionatuak aldarrikatzen ditugun aldiro, gainontzeko kaleen eta inertzia jardunen pribatizazioa eta mugatzea agerian uzten dugu.

Umeendako zein helduendako kultura eskaintza, kalean bertan

Uztailaren zehar zinema Espoloian, eta kale antzerkia zein Indiako folklore jaialdia San Martin plazan; dena doan

J.B. BERGARA

Uztailerako kultura eskaintza zabala dauka Udako Kultura Zerbitzuak Berumuga ekimenaz –ikus 40. orria– harago. Izan ere, kultura kalera ateratzeko asmoz, zinema, antzerkia eta musika izango dira protagonista hil honetan, aste barruan. Uztailaren 12an, bi pelikula ikusi ahaliko dira Espoloian, umeendako *Tom Txiki* animazio pelikula (19:00) eta helduendako *Comancheria* filma (22:00). Zinemaz gain, kaleko antzerkia ere izango da; uztailaren 19an, Trapu Zaharrak

taldearen *Etsita* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da San Martin plazan (19:00). Eta hilaren 20an, Indiako Rangsagar taldeak folklore jaialdia eskainiko du San Martin plazan (19:00). Uztailaren 26an, beste bi pelikula ikusi ahaliko dira Espoloian: umeendako *7 Ipotxak* filma (19:00) eta helduendako *The Great Wall* pelikula (22:00).

Ekitaldi guztiak doakoak izango dira eta Espoloian zein San Martin plazan izan, egun horretan euria egiten badu ekintzak seminarioko karpan egingo dira.

Orfeoien euskal kantak zapatuan Arrizuriaga parkean

Bihar, uztailak 8, kontzertua eskainiko du Bergarako orfeoia Arrizuriaga parkean (20:00); eguraldi txarra egiten badu Mariaren Lagundiako elizan izango da. Kontzertuaren inguruan nabarmentzekoa da programa osoa euskal kantena dela. "Euskal kantak oso gustukoak eta maitatuak dira gure ikus-entzuleen artean", dio orfeoiko pre-

sidente Karlos Etxanizek. Bestetik, Arrizuriagako parkean abestea "berezia" izango da: "Bergaran, orain arte, ez da ohikoa halako parke baten kontzertuak egitea, iaz lehen aldiz Errekalden egin genuen eta oso esperientzia ona izan zen. Aurretik, Errekalden obretan daudenez, Arrizuriaga parkean egingo dugu. Oso parke politak daude herrian eta uste dugu paraje horiek aprobetxatu egin behar ditugula". Hamaika abesti izango dira, Aitor Biainen zuzendaritzapean.



Ken Zazpi taldeko kideak. KEN ZAZPI

Ken Zazpi taldeak joko du San Migel egunean

Talde gernikarra izango da aurtengo San Migel eta Errosaio jaietan gonbidatu nagusia. Irailaren 29an izango da hori, gauez, Foruen plazan. Aurreko egunean, San Migel bezperan hasiko dira jaiak eta urriaren 2an bukatuko dira

Miren Arregi OÑATI

Geroz eta gertuago daude San Migel eta Errosaio jaiak eta dagoeneko Udaleko Kultura Saila eta herriko talde eragileak badabilta jaietara begira antolaketa lanetan. Normalean bi asteburutan izaten badira ere, aurtengo asteburu batera mugatuko dira horiek, eta, horren ondorioz, egun bat gutxiago

izango dute San Migel eta Errosaio jaiak. "Egun bat gutxiago izatera, berrikuntzak txertatzeko zailtasunak izango ditugu; izan ere, egun bakoitzak badu bere izaera eta ekintza batzuk oso antolatutako eta oso betikotuta daude", adierazi du Kultura zinegotzi Nerea Zubiak. 204.000 euroko aurrekontua izango dute jaiak.

San Migel egunean, Ken Zazpi

Lotuta dagoen ikuskizunetako bat da Ken Zazpi taldeak irailaren 29an plazan eskainiko duena. Izan ere, badira urte batzuk, plazako gunea indartu guran, ekonomikoki esfortzu handiagoa eskatzen duten taldeak ekartzen hasi zela Udala, eta, horren harrera ona ikusirik,

aurten ere bide berari eustea erabaki dute.

Egitarauaren xehetasunak

Bestelakoei dagokionez, Nerea Zubiak zinegotziak azaldu du betiko gunek mantenduko direla, eta iaz berrikuntza izan zen Bidebarrietako umeen gunek izandako arrakasta ikusita, aurtengo gune bezala mantentzea erabaki dela. "Atzeko kalean kontzertu intimoagoak eskaintzen jarraituko dugu eta Bidebarrietako umeen gunearekin ere bai. Gaztetxoek eguna gazteekin antolatu izan dugu eta laster hasiko dira hori antolatzen. Bestetik, zezena egun batera mugatuko da, San Migel biharamuna desagertu egingo delako, eta, hala, Errosaio Bixamona egunean bakarrik egongo da sokamuturra".

Bilera irekia herritarrekin

Hain zuzen, aipaturikoen eta gehiagoren berri eman zuten astelehenean, Udaleko Kultura Sailak deituta egin zuten bilera irekian. Herriko jaietan herritarren lankidetzak sustatzeko bilera izan zen hori eta deialdiarekin bat egin zuten herriko lau kultur taldek edo eragilek: Jose de Azpiazu musika eskolak, txosna batzordeak, Olaiturri taldeak eta Sarek. Herritar bat ere joan zen bilerara bere ekarpen eta proposamenekin. "Etorri diren taldeetako bik proposamen berriak egin dituzte. Jose de Azpiazu musika eskolak plaza dantzak egiteko proposamena egin du eta Sarek presoen aldeko ekimen berri bat proposatu du", adierazi du Kultura zinegotzi Nerea Zubiak. Olaiturri taldeak, aurrez hitzartu bezala, San Migel egunean egingo du Santa Anan emanaldia.

Txosnagunean aldaketak

Txosna batzordeko ordezkari bat ere izan zen asteleheneko batzarrean. Txosnaguneak urtero bere egitarau propioa izaten badu ere, Udaren jai egitarauan txertatuta joaten da hori, eta elkarlanean osatzen dute. Aditza eman zutenez, egitarauari dagokionez, San Migel egunerako bertso eta musika proposamen bat antolatzen ari dira eta gauean rock kontzertuak izango dira. Zapatuan, Oñatiko erromeria talde bat izango da eta Errosaio domekarako, bakarlaria bat ekartzea da asmoa.

Egitaraua alde batera utzita, txosnagunearen egiturari dagokionez, aldaketak egongo direla aurreratu dute. Oraindik zehazteke dago zein itxura hartuko duen gunek, baina orain arteko karpak ez da erabiliko; ez, hasiera baten, behintzat.

Deialdiak

Herri Eguneko talo postua, herri bazkaria eta Atzeko kaleko txosna kudeatzeko deialdietan izena emateko epea zabalik dago uztailaren 10era arte. Bestetik, hilaen 20an bukatuko da artisau azokan izena emateko epea.

Azal lehiaketarik ez

Jaietako esku programako azal lehiaketarako ez da deialdirik egingo. Azken urteetan lehiaketak izandako erantzun eskasa ikusirik, aurtengo, programaren diseinua diseinatzaile profesional baten esku uztea erabaki da.

204.000 EUROKO AURREKONTUA DU UDALAK SAN MIGEL ETA ERROSARIO JAIETARAKO

Kiroldegiko eta igerilekuko eraberritzea, geroz eta gertuago

Oñatiko Udalak aurkeztutako proiektuak 453.000 euroko diru laguntza lortu du Gipuzkoako Diputaziotik

M.A OÑATI

Kiroldegiko eta igerilekuko proiektu berria gauzatzeko 453.000 euroko diru laguntza emango dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Oñatiko Udalari. Proiektuaren xehetasunak orain-

dik zehazteke daude, baina zurraren dena da igerilekua eraberritu bai, baina ez dela kanpoko igerilekurik egingo. Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol azpiegiturarako argitaratutako diru laguntza lerro batera aurkeztu

zen Udala. Ekainaren 17an bildutako Batzorde Ebaluatzaileak egindako ebazpenaren proposamenaren, Oñatiko Udalak aurkeztutako proiektua 453.000 euroekin laguntzea proposatu zuen eta oraingo eguaztenean ebazpena konfirmatu du. Diru laguntza kiroldegia eraberritze-ko erabiliko da, beraz.

Martitzenean bukatu

2016ko udazkenean, Udal Gobernuak martxan ipini zuen herriko kirol azpiegituren inguruko

prozesua eta bertatik eratorritako talde eragilean parte hartu zuten hamalau lagunak burubelari ibili dira lanean azken hilabeteotan Udalarekin batera. Datorren martitzenean amaituko da prozesu hori eta laster emango da emaitzen berri. "Behin prozesuko emaitzak esku artean izanda eta beste erakundeetatik jasoko dugun diru-kopurua jakinda, datozen urteetako kirol inbertsioen plangintza egingo dugu", adierazi du Kirol zinegotzi Moiuak. Asmoa da irailean

lanak planifikatzea eta urtea amaitu aurretik proiektuaren erredakzioa esleitzea.

Inbertsio beharra

Udal Gobernuaren agintaldiaren erdian, herritarren asebetetzea neurtzeko egin den inkestaren emaitzetan nabarmen azaleratu da herritarrek igerileku eta kiroldegian inbertsioak egin beharra ikusten dutela. Zehazki, %70ek aipatzen du premia hori, horietako asko eta asko erabiltzaile ez izan arren.

"Irakaslerik onenek eman zituzten eskolak"

PEDRO BERRIOTXOA HISTORIALARIA

Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean XIX. mendean izan zen Nekazaritza Eskolaren gainean egin du berba Oñatin Berriotxoak, Artixa taldearen eskutik egindako hitzaldian

Miren Arregi OÑATI

Urretxun jaioa bada ere, badu Oñatirekin loturarik; izan ere, Pedro Berriotxoak (1958) Oñatiko Larraña Institutuan egin zituen 11 urte –1984-1995–, historiako eskolak ematen. Iaz argitaratu zuen azken liburua eta Oñatirekin lotura zuzena du hark: *La escuela de agricultura de Oñati y su época*. Hain zuzen ere, horretaz aritu da joan den astean Artixa taldeak gonbidatuta Oñatin egin duen hitzaldian. **XIX. mendean Nekazaritza Eskola bat egon zen Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean.**

1851tik 1869ra arte egon zen martxan, hemeretzi ikasturte egin zituzten bertan.

Zer-nolako ikasketak ziren haiek?

Gaurko Lanbide Heziketaren mailako ikasketak. Hiru urteko ikasketak ziren eta handik ateratzen zirenak perituak ziren, nekazaritza perituak eta lur tasatzaileak. Oñatikoa nekazaritza alorrean Espainia mailan sortu zen lehenengo eskola izan zen.

Zer-nolako gazteak ziren bertan ikasketak egiten zituztenak?

Erdi mailako eskola zen eta ezin zitekeen edozein joan. Erdi mailako klaseko jende zen, medikuen semeak, merkatarien semeak, maisuen semeak... Jatorriari begiratuta, laurden bat ziren oñatiarrak, erdia gipuzkoarrak, hiru laurdenak euskaldunak eta gainontzekoak espainiarrak. Jende gutxi egiten zituen han ikasketak. Hiru ikasturteko ikasketak ziren, eta, gehienez, 37 lagun egon ziren matrikulatuta. **Irakasle onak izan zituen?**

Oñatik izan dituen irakaslerik onenak egon ziren han eskolak ematen. Matematiketakoa zen, esaterako, Ignacio Bereziartua jesuita; Marcelino Goya albaitaria zen nekazaritzakoa eta marrazketakoa zen Sevillako Conde Aguayo. Gero etorri ziren lehenengo nekazaritza-ingenia-



Pedro Berriotxo. MIREN AZKARATE / IRUTXULOKO HITZA

NEKAZARITZA ESKOLAREN FUNTSAREKIN UNIBERTSITATEA ERABERRITU ZEN

riak ere. Guztiak ere prestigio handikoak.

Eta ikasleak? Ezagun egin ziren?

Matrikulatu zen lehenengo ikaslea izan zen Felipe Dugiols Balanzategi, gero heroi bihurtuko zen militarra. 14 urterekin hasi zen eskola honetan. Matrikulatu zen lehena izan zen, eta oso ikasle ona. Peritu bilakatuta, eta Oñatin lanean ibili zen. Besteak beste, gaur egun Txantxiku Ikastola dagoen eraikinaren bigarren solairua egin zuen, baita bestelako lan topografikoak ere. 1860an Marokoko gerrara joan zen eta II. Karlistaldian karlisten kontrako milizianoen kapitain bilakatu zen, bera liberala baitzen, errepublikanoa. Berak defendatu zuen Oñati karlistengandik. Filipinetara joan zen eta han presondegien buru izan zen. Bere ikasketak asko baliatu zituen han.

Zer eman zion eskolak herriari?

Unibertsitatea suntsituta zegoen Nekazaritza Eskola sortu zenean; aurrez kuartela izana zen eta egoera oso txarrean zegoen. Eskola honen funtsarekin teilak jarri ziren, berritu ziren klastroa, lurra, kanpaia...

Zeintzuk izan ziren ixteko arrazoiak?

Oñatik ez zuen maite Nekazaritza Eskola. Oñatirendako unibertsitatea diru-iturri garrantzitsua izan zen beti. Garai baten 600 ikasletik gora izan zituen eta Nekazaritza Eskolak garai onenetan 37 izan zituen. Oso datu makalak ziren eta Oñatirendako gutxi zen; beraz, beti saiatu zen beste zerbait lortzen. Berriz ere unibertsitatea sortzen, berriz ere institutua lortzen... Seminarioa lortzeko ahalegin handiak egin zituen 1861ean Gasteizko elizbarrutia sortzen denean, baina azkenena ez zuen lortu. 1868ko *La Gloriosa* iraultzarekin Isabel IIa kanporatu zuten eta iraultza horien testuinguruan askatasun bat sortzen da unibertsitateak sortzeko. Hori aprobetxatu zuten unibertsitate libre bat sortzeko. Institutua eta Zuzenbidea ematen zuten. Gero, II. Karlistaldia hasi zen.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Festa

Zutabe honetan lantzeko gai batzuk izan ditut buruan. Errepideetako elkarbizitza konplexuaz hitz egin nezakeen, motordun ibilgailuen eta bizikleten artekoaz edo txirrindularien eta oinezkoen artekoaz. Eskatu diezaieket gure agintariei autopistak egiteaz gain beste errepideetako egoera horiek hobetzeko ahalegina egitea. Orain 20 urteko uztail gogor hartaz idatz nezakeen, Migel Angel Blancoren hilketaz, Ortega Lara Arrasaten askatzeaz, kartzelan jarraitzen duten orduko atxilotuez, egin zutenaz eta ordutik bizi dutenaz. Hondakinez ere bai, hondakinak ondoen kudeatzeko modua hondakinak bereiztea dela esan eta bereizteko ahaleginik egin gabe arazoari konponbidea eman diotela aipatzen dutenei buruz. Baina, ikusi dut zutabe hau uztailaren 7an argitaratuko dela, sanferminak ospatzen direnean. Hori baliatuz, festaren apologia egin nahi dut hemen, Sanferminena edo Trianako jaiena; algararena eta dantzarena. Festak sortzen digun bizipozarekin hasieran aipatutako gaiak tratatzerakoan samurtasuna ezinikusien gainetik jartzea errazagoa izango delakoan.

532 neska-mutiko ari dira aurtun udaleku irekietan

Ezagutza-jolasekin hasi dituzte udalekuak Oñatin. Ur jolasak egin dituzte eta San Fermin ospatu dute

M.A OÑATI

Entzierrorik gabeko San Fermin jaien ospakizuna, kiroldegiko kantxa erabiltzeko aukera eta kolore moreko taldea. Horiek dira aurtengo berritasun nagusiak. 532 ume –joan den urtean baino 100 gehiago–, 56 begirale eta lau koordinatzaile dabilta aurtun, euskaraz jolasten eta hezten uztailaren 10:00etatik 13:00etara ibiliko dira, uztailaren 28ra bitartean, eta, adinaren arabera, sotoan, gaztelekuaren sarreran, kuboan, azokan eta plazako kioskoan elkartuko eta

agurtuko dira egunero. Zaintza zerbitzua ere egongo da.

Elkarbizitza, errespetua eta halako balioak landuko dituzte eta prest dute egitaraua: sukaldaritza, Usakora irteera, naturarekin kontaktua, uraren eguna, piraten eguna, ukenduen tailerra, Landara egun-pasa, Garaionen gau bateko egonaldia, munduko jolas ezberdinen ezagutza... Gurasoek astelehenetan jasoko dute aste osoko plana, posta elektronikoz, eskuorritz edo telefonoz. Uztailaren 25ean jai izango dute.



Neska-mutikoak ur jolasak egiten, astean. LEIRE ZUMALDE

Datorren denboraldira begira jarri da Aloña

Aurreko denboraldia atzean utzita, datorren ikasturtean jarri dute mira Aloña Mendiko futbol sailekoek; maila galdu ostean, Gorengo Erregional mailan jardungo dute. Talde teknikoak ez du aldaketa esanguratsurik egitea aurreikusten

Iker Oñate OÑATI

Maila berreskuratu guran jardungo dute Aloña Mendiko lehen taldeko mutilek datorren denboraldian. Hori bai, Javier Aspiazu presidenteak aitortu denez, ez dute jardun erraza izango: "Taldea indartsu ugari daude gure multzoan, beraz, gogor borrokatu beharko dugu helburua lortzeko". Bigarren multzoa ego-kitu zaie oñatiarrei; tartean, Elgoibar, Bergara eta Antzuola izango dituzte aurkari.

Bada, helburura bidean, hainbat alor hobetzeko lanean jarduteko asmoa berretsi dute oñatiarrek. "Aurreko urtean gola falta zen, dudarik gabe. Horri buelta eman behar diogu ezinbestean", dio Aspiazuk. Unai Gil izan zen golegile nagusia, bost golekin.

Bestetik, talde teknikoaren arabera, lesioek ere esangura izan zuten azken denboraldiko erdietsiriko emaitzetan. "Lesio asko izan genituen; bolada ona harrapatzen genuenean, esaterako, lesioek berori zapuzten zuten. Ezin izan genuen oreka puntua harrapatu", argitu du Endika Ruizek, talde tekniko kideak.

Aurrera begira, bestalde, talde-egiturari dagokionez, ez dute esangura handiko aldake-



Aloña Mendikoak Mutrikun, aurreko denboraldian, maila galdu ostean. ARATZ LOSADA

tarik egitea aurreikusten. "Orain arteko filosofiarekin jarraituko dugu, etxeko jendearekin. Horretarako, harrobia indartzen segitu beharko dugu", azaldu du Ruizek.

Bide horretan, hasiak dira denboraldiaurrerako plangintza prestatzen. Hasteko, entrenamendu gutxi batzuk egingo dituzte uztailaren, jokalarien arteko harremana sendotzeko. Dena den, abuztuaren erdialdera arte ez dute aurre denboraldia ofizialki hasiko. Horren baitan jada finkaturik dituzte lagunar-

teko zenbait partidu: irailaren 2an -Bergaran- eta 9an -Azkoagainen-. Orain, halako hitzordu gehiago ixten dihardute.

Eserlekuak harmailetan

Gaur-gaurkoz, Azkoagaingo harmailetan eserlekuak jartzeko egitasmoarekin dihardute futbol saileko kideek. Bide horretan, Ipuruan -Eibar futbol taldeko zelaian- kendutako 400 aulki eskuratu dituzte. Zehatz esanda, taberna alboan dauden harmailetan jarriko lirake aipaturiko eserlekuak.



Aloña Mendiko lehen taldea, Burgosen, igoera fasean. ALOÑA MENDIKO ESKUBALOI SAILA

"Kinka larrian" da eskubaloi saileko zuzendaritza batzordea

Aloña Mendiko eskubaloi saileko zuzendaritza indartu egin gura dute. Jende berria batzen dihardute

I.O. OÑATI

Datorren ikasturtera begira dihardu eskubaloi saileko zuzendaritzak. Besteak beste, euren egitura indartzea dute helburu. "Azken urteetan jende gutxi dabil zuzendaritzan; batzuk, era berean, entrenatzaileak ere bagara, gainera. Horrek jendea neka dezake", esan du Rafa Zulueta, zuzendaritzako kideak. Aurreko denboraldian soilik sei pertsonak jardun zuten, beraz, zuzendaritzaren arabera, "kinka larrian" dute egitura.

Horri buelta eman nahirik, lagundu gura duen orori zuzen-uriko deialdi irekia egin dute uztailaren 11rako, martitzenerako; 19:00etarako finkatu dute hitzordua, Aloña Mendiko bulegoetan.

"Eskubaloi sailak beharrezko du zuzendaritza indartsuagoa izatea; eta horretarako, jende berria sartu beharra dago ezin-

bestean", berretsi dute zuzendaritzako kideek.

Herritarren beharra

Aurreko denboraldian, guztira, hamalau talde izan zituen Aloña Mendiko eskubaloi sailak; horiei, nesken zein mutilen eskubaloi eskolak gehitu behar zaizkie. Bada, 300 jokalaria inguruk jardun zuten gutxi gorabehera.

Hainbaten artean, horiek koordinatzeko ardura du zuzendaritzak. Zulueta azaldu duenez, "ez du berebiziko dedikazioa eskatzen; baina, lan txiki asko egin behar izaten dira". Jardun horretan, beraz, lagungarri izango lukete herritarren laguntza.

Bestetik, Zulueta argitu duenez, lagundu gura duenak ez du zertan zuzendaritzako kide izan: "Aldian aldi egin beharreko lan ugari sortzen dira egunero-kotasunean. Horietan laguntzeko jendea ere behar da".

**LANBIDE
HEZIKETA
DEBAGOIENEAN**

"etorkizuna zure esku"



**2017-2018
IKASTURTERAKO:**

MATRIKULA: Uztailaren 13tik 19ra.



ARETXABALETAN:

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa z/g - 22 Pk.
20550 ARETXABALETA
943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@aretxabaleta.com
www.aretxabaleta.com



BERGARAN:
Miguel Altuna LHII Bergara
Ibargarai 1
20570 BERGARA
943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@saremail.com
www.imaltuna.com



OÑATIN:
IES RM Zuazola -Larraña BHI
San Lorentzo z/g
20560 OÑATI
943 78 21 50
013015aa@hezuntza.net
www.onati.net



Malen Ruiz de Azua, Eneko Carrascal eta Istar Dapena, martitzenean, Mojategin. XABIER URZELAI

Poloniara bi, Italiara bestea

Europako Txapelketan lehiatzeko txartela lortu dute Eneko Carrascalek –junior mailan- eta Istar Dapenak eta Malen Ruiz de Azuak promes mailan. Hitzordu nagusiaren aurrean, GOIENAK entrenamendu saio bat partekatu du eurekin

Xabier Urzelai ARRASATE

Bero egiten du Mojategin, bero itogarria. Igerilekueetatik jendearen oihartzuna iristen da atletismo pistetaraino, ez da asko behar, gertu daude eta. Barreak, oihuak, murgialdiaren osteko uraren zarata... Bitartean, igerileku horietan atentzioa emango luketen gorputz landuak jo eta su dabilta lanean. Uztaila hilabete gogorra da atletendako, aire libreko denboraldiaren puntu goren.

Pistaren alde batean, Mikel Uribesalgo entrenatzaileak agindutakoa betetzen dabilta Iñigo

Uribarren eta Eneko Carrascal: 120 metroko serieak, topera. "Hamar minutu ditugu orain atsedean hartzeko, eta ondoren beste bat dator", dio Uribarrenek, hauspoa errekupeatu guran. Lan horren aurrean Carrascal irribarretsua dago, duela gutxi bete du urteko helbueruetako bat, Italian izango da Europako junior mailako txapelketan –uztailaren 20tik 23ra–.

Beste aldean, berriz, astelehenean Polonia aldera abiatuko diren Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena hasi dira Jonathan Perezen aginduetara saltoak egiten: "Teknika zorrozteko egunak izango dira hauek, azken zuzenketak egiteko momentua, dagoeneko etxerako lanak eginda daude-eta", dio asteburuan Espainiako Txapelketan bigarren sailkatuta (5,21) Eu-

ropan egoteko maila duela berretsi duen Dapenak.

Torrent-en –Valentzia– egindako txapelketan txanponaren alde bat izan zen Dapena. Malen Ruiz de Azua, berriz, ez zen egindakoarekin gustura geratu, ezta gutxiago ere: "Ez da asko behar txapelketa hasieratik erabat okertzeko. Lehenengo saltoan balio gabeko salto bat egin nuen, eta gero ez nion horri buelta eman", dio pertika aukeratzen duen bitartean. "Horregatik, halako egun txar baten ondoren atletak salto egiteko gogoia izan behar du, aurrekoa

**POLONIARA JOAN
AURRETIK DOMEKAN
ERMUAN IZANGO
DIRA, ATLETISMO
ERAKUSTALDIAN**



Uribarren eta Carrascal seriea egiten. X.U.

Uribarren absolutuaren zain dago

Iñigo Uribarren (Arrasate, 1993) adinez Istar Dapena eta Malen Ruiz de Azua baino nagusiagoa da, eta Real Sociadadeko atletak dagoeneko ezin du promesen mailan lehiatu, maila absolutuan dago. Hala, Arrasatekoak uztailaren 22an eta 23an Bartzelonan egingo duten Espainiako Atletismo Txapelketa absolutua du begiz jota, hor gura du denboraldia borobildu (ekainean 16,05eko marka egin zuen salto hirukoitzean).

Duela gutxi Ordizian egindako lesio batengatik ezingo du domekan Ermuko erakustaldian parte hartu, baina egunotan ondo entrenatzen dabil eta uztail amaierara sasoiari iritsi gura du, erabat errekupeatuta.

lehenbailehen zuzentzeko aukera izatea", dio bere entrenatzaile Jonathan Perezek.

Europako txapelketara begira biak izango dira Polonian: "Dagoeneko birritan izan nazioarteko proba horretan, eta inoiz ez dut lortu finaletarako sailkatzea; ea oraingoan posible den.

Poloniara joan aurretik, domekan Ermuan erakustaldia izango dute: "Ondo pasatzera joango gara, eta sentsazio onak berreskuratzea".

Finaletarako sailkatzeko helburuarekin



ENEKO CARRASCAL
ATLETA

"Egia esan, dezente kostatu zait Europako Txapelketarako sailkatzea, eta behin lortuta, goatzera joango naiz. Zorte apur bat baldin badut, eta ondo lehiatzen banaiz, finaletan egon naitekeela uste dut".



MALEN RUIZ DE AZUA
ATLETA

"Pista estalian lortu nuen Europakoan parte hartzeko gutxieneko marka. Egia da azken txapelketetan ez dudala sentsazio onena izan, baina sasoi onean nago; finalerako sailkatzeko helburuarekin noa".



ISTAR DAPENA
ATLETA

"Espainiakoan bigarren sailkatuta lortu dut Europakoan egotea, eta orain, bai edo bai finalerako sailkatu behar dut. Horretarako, 5,25eko marka-edo egin beharko dut; horretara goaz!".

**DAPENAK ETA
CARRASCALEK AZKEN
ORDUAN LORTU DUTE
EUROPARAKO
TXARTELA**



Pilotua, DHko bizikleta batekin aldapa behera. WIKIMEDIA

Antzuolako maldetan behera, ziztu bizian

DH LASTERKETA Zapatuan lehenengoz egingo dute Antzuolan mendi bizikleta jaitsiera lasterketa, 'Down Hill' deritzona. Hainbat antzuolar daude Euskadiko Open barruan lider, eta etxeko zirkuitua inork baino hobeto ezagutzen dute, eurek eginga da eta

Xabier Urzelai ANTZUOLA

Debagoienean ia modalitate guztietako bizikleta lasterketak daude: errepidekoak, mendi bizikletakoak, endurokoak, pinoi bakarrekoak... Baina DH lasterketa falta zen, *Down Hill* deritzona, eta horri bihar, zapatua, Antzuolan jarriko diote *erremedioa*: "Euskadiko Openeko lasterketa guztiak Bilbo aldean egiten dituzte, eta, herrian hainbat lagun gabiltzanez halako jaitsierak egiten, gurean zirkuitua prestatuta geneukan. Bada, asko ziren lasterketa antolatze-
ra animatzen gintuztenak, zirkuitua izanda gainontzekoa erraz egiten dela esanda, eta, azkenean, animatu egin gara. Lursailen jabeekin berba egin, baimenak eskatu, eta Udalararen eta Lokatza Ziklismo Eskolaren babesarekin lasterketa izango da zapatuan Antzuolan", dio Manu Castrok.

"Denetik du zirkuituak"

Euskadiko Openean dabilen pilotuak zirkuitu berrien gose

dira, eta Antzuolan izango dute non gozatu: "Zirkuituak ia bi kilometro ditu, eta denetik du: zati teknikoak, jauziak, trialerak, peraltedun kurbak, zona azkarrak... Topera jaitsi izan dugunean hiru minutu eta erdiren bueltan ibili izan gara, baina akats txiki bat egiten denean denbora asko galtzen da, lau minutura joaten gara".

Goiz eta arratsalde

Bihar, zapatua, 85 pilotu inguru espero dituzte Antzuolako DH lasterketan: "Goizean entrenamendu saioak izango dira, zirkuitua ezagutzeko. 15:00etan, berriz, sailkapen fasea izango da eta 17:00etan finalak jokatuko ditugu. Ondoren, 19:00etan sari banaketa ekitaldia egitea aurreikusten dugu, herrian".

Antzuolarrak, lidergoa defendatzen

Antzuolako hainbat pilotuk etxean defendatuko dute Openeko aurreneko bi lasterketetan lortutako lidergoa: Manu Castrok master 40 kategorian hartuko du esku, eta lider dago Openean. Mikel Fernandez (23 urte) elite mailan lehiatuko da, eta junior mailan Unai Larreak (18 urte) ere lehenengo postua defendatzeko ardura izango du. Kadete mailan gauza bera gertatzen da Jon Fernandezekin (16 urte), lider dago antzuolarra.

Eta, azkenik Jon Larrea (14 urte) dago: "Gazteegia da lasterketetan parte hartzeko, baina bere ardura izango da etxeko proban lehenengo jaitsiera egitea, zirkuituaren irekiera egitea, alegia". Horiekin batera, Elgetako, Bergarako eta Arrasateko pilotuak egongo direla ere aurreikusten dute antolatzaileek.



Imanol Estevez, 2014ko lasterketan nagusitzen. GOIENA

Antzuolan amateurak eta Arrasaten kadeteak, domekan

TXIRRINDULARITZA Lehendakari Txapelketan ziklistek 130 kilometroko lasterketari egin beharko diote aurre

X.U ARRASATE

Domekan bi lasterketa izango dira Debagoieneko errepideetan jokoan. Goizean, jaien barruan egingo dute Antzuolako 72. saria, Peña Ayastui memoria, eta ziklistek 130 kilometroko lasterketa izango dute aurrean. Txirrindulariak 09:30ean hasiko dira lanean, eta, Asentzioko eta Deskargako gainak gainditu ostean 13:00 aldera iritsiko dira helmugara, Antzuolako plazara. Iaz, Baque taldeko Txomin Juaristi izan zen plazako zuzenean egindako esprintean azkarrena.

Arrasate Saria, arratsaldean

Domeka arratsaldean (16:00etan, Garibain) egingo dute Dorletako Amakoen eskutik kadete mailako II. Arrasate Saria. Ziklistek 65 kilometroko lasterketa izango dute, eta ibilbidea iazkoaren berdina izango da: Arrasatetik Oñatiraino joango dira lehenengo, eta handik Eskoriatzara. Olandixoko tunela erabilita Aramaiora joango dira, eta Arrasatera bueltan Kanpazarrerantz hartuko dute, Sara jatetxe parean Epelera jaitsi eta helmugarako bidea hartuta, Garibaiko zuzenera (17:40).

MENDI BIZIKLETA Dortsal guztiak agortuta Eskoxtreme martxan

Zapatuan egingo duten Eskoxtreme martxarako agortuta daude dortsal guztiak, jendeak aurrez eman du-eta izena. Azken urteotako arrakastaren emaitza da, antolatzaileek mendian ibilbideak aukeratzen eta bidezidor berriak prestatzen hartzen duten lanaren saria.

Ibilbide motzak 37 kilometro izango ditu eta luzeak, berriz, 50. Baina, martxaren izenak ondo dioen moduan, biak izango dira fisikoki gogorrak. Antolatzaileek GPSaren erabilera gomendatzen dute, basoa ahalik eta gehien errespetatzeko gutxieneko markaketa egingo dute eta.

SASKIBALOIA Hiruko Txapelketa Aretxabaletan

Ointxe!-k antolatuta, Hiruko Saskibaloi Txapelketa egingo dute bihar, zapatua, Aretxabaletako plazan. Goizean kategoriatxikiendako txapelketak egingo dituzte (09:30ean hasi eta 14:00ak arte), eta arratsaldean, 16:00etan hasita, kadete, junior eta senior mailetakoen txanda izango da –izen-ematea doan da eta sari asko banatuko dituzte parte-hartzailean artean–.

Domekarako, berriz, auto telegidatuaren motor hotsa egongo da Aretxabaletako plazan, erakustaldia antolatuko dute-eta bertan. 11:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 19:00ak arte ibiliko dira.

Jazz eta pop doinuak etzi Jose Letona plazan

Udazabalen barruan, bi kontzertu eskainiko dituzte asteburuan toki berean: Shalom Shalom!! boskotea izango da gaur (ikus 14. orria) eta domekan, Nafarroako Zamarra Eta Aterkiak taldeak 'Beharbada bai, beharbada ez' lana aurkeztuko du, 20:00etan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Xabier Zamargilearen musika proiektua da Zamarra Eta Aterkia. "Nire proiektu pertsonala da, baina ez indibiduala; musika sortu dut, baina baita musika hori interpretatuko duen taldea ere. Gaztaroan musikagintzan jarduten nuen, baina gero utzi egin nuen, eta orain dela sei urte hasi nintzen berriz ere gitarra jotzen ikasten eta inolako asmo jakirik gabe abestiak konposatzen. Jorge Abadia musika irakasleari erakutsi nizkion egin nituen konposaketak, eta, gustatu zitzaizkionez, zuzenean jotzen lagunduko zidala esan zidan. Hainbat kontzertu egin nituen harekin, baina kantuek beste musika tresna batzuk eskatzen zituztela konturatu nintzen eta taldea sortzea erabaki nuen. Abadiarekin batera hasi nintzen, baina Bartzelonara joan behar izan zuen, eta, hortaz, proiektua utzi zuen. Kostata, baina, azkenean, lortu nuen taldea berregituratzea", kontatu du Xabier Zamargileak Arrasate Irratian.

Herrian-Lekunberri- Zamar moduan ezagutzen dute, eta hortik abiatuta asmatu zuen izena. "Horrekin adierazi gura dut ez direla nire morroiak, Zamarra Eta Aterkia guztiok osatzen dugun taldea dela baizik. Gaur



Zamarra Eta Aterkia, Nafarroako musika taldea. MARIAJE FUENTE

egun, laukote bat gara: gitarra akustikoa eta ahots nagusia ni naiz, eta gainontzeko kideak, berriz, honako hauek dira: Manex Albira gitarra elektriko, baxu eta perkusio txikiarekin; Beñat Artze bateria jotzen eta Miren Aranguren koruetan".

'Beharbada bai, beharbada ez'

Orain dela bi urte *Lotara* maketa kaleratu zuen Zamargileak, aurreko formazioarekin, eta aurtengo Aste Santu ostean argitaratu zuen oraingo taldeki-deekin *Beharbada bai, behar-*

bada ez (Gaztelupeko Hotsak, 2017) lan luzea. "Disko honetako hitzek, bereziki, nire bizipenak jasotzen dituzte, modu abstraktuan kontatzen badituzte ere".

Pop eta jazz musika estiloak ditu lanak oinarri. "Poparen egiturak dituzte kantuek, baina, harmoniak, berriz, jazzarenak dira. Musika gozoa da. Diskoa eskuratzeko aukera izango duzue domekan, eta, bestela, Gaztelupeko Hotsak-en atarian eros daiteke. Horrez gainera, sareko hainbat plataformatan ere entzungai dituzue kantu guztiak".

Shaun Booker musikari handia Berumuga musika zikloan

Ohioko abeslaria Tonky Blues Band taldearekin batera igoko da Espoloiko oholtzara, gaur, 22:00etan

Imanol Beloki BERGARA

Urtero bezala, rocka, bluesa, jazz eta musika beltzaren kolorea duen Berumuga ziklo musikala antolatu dute Bergaran. Lau talderen emanaldiak izango dira, doan, eta ez nolana hikoak, gainera. Nazio mailako artistak eta bertakoak arituko dira zuzenean, eta egitaraua Shaun Booker & Tonky Blues Band-ek zabalduko du.

Ohioko Shaun Booker abeslaria hogeita hamar urte kontzertuak jotzen aritu ondoren, blues, jazz eta munduko beste musik batzuetatik edan, eta afroamerikar bluesaren tradizio klasikoena erakutsiko du oholtzan, Tonky Blues Band talde mitikoarekin batera. Sarri askotan alderatu izan dute hasierako Tina Turner musikari handiarekin, eta, emakumearen indarra aldarrikatuz, Meridianen (Mississippi) lan egiten

zuen amona Beatrizen nortasuna eta irmotasuna bereganatu zituen Bookerrek; 3 urte besterik ez zuzenean hasi zen bere aitona gidatzen zuen elizan abesten eta jarduten. Amonaren indarra eta agertokian izaten zuen aitona eskolak oso baliagarriak izan zaizkio urte hauetan guztietan. Gaur egun oso ezaguna da Amerikan, eta ospe handia du Europan. Hala, gaur, Bergarako Espoloiko agertokian izango da, 22:00etan.

Tonky Blues Band

Shaun Booker abeslaria Madrilgo talde handi batekin igoko da oholtzara. Tonky de la Peña gitarra-jolearen taldearekin, hain zuzen ere. Albert Collins, Jerry Lee Lewis eta halako artista handiekin izandakoa da oholtza gainean, eta blues klasikoaren alde egingo dute.

Belceblues eta Diablues&Bluecifer, jaialdi handietan

Asier Elortza, Ibon Larrañaga Oihan Vega eta Gille Sanz bergarrek osatzen duten Belceblues taldea Hondarribiko Blues Jaialdian izango da uztailearen 13an. Ez da lehenengo aldia blues jaialdian parte hartuko dutena, eta bi emanaldi eskainiko dituzte: goizean, 11:00etan, kontzertu didaktikoa egingo dute gazteen-tzat Itsas Etxea Auditoriumean

eta 21:30ean, kontzertua eskainiko dute Bentako agertoki nagusian.

Bestalde, Asier Elortzak Mikel Etxeberriarekin duen Diablues&Bluecifer taldearekin Donostiako Jazzaldian joko du kontzertua uztailearen 22an, 22:30etan, Frigo gunean (Kursaalaren atzean). Tokiko taldeen hautatze prozesuan sailkatu ziren otsailean, Tabakaleran egindako kontzertu baten ostean, eta lehen aldiz izango da taldea Jazzaldian.

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA

GOIENA TELEBISTA,

UZTAILAREN 13AN, EGUENEAN, 21:00ETAN

GONBIDATUA: ITXARO BORDA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, GOIENAK, EUSKADI IRRATIAK ETA BILBAO HIRIA IRRATIAK ELKARLANEAN EGINDAKO SAIOA.

goiena
ZU HEMEN ZAUDE



Literatura sorkuntzaz, Iparraldeko ikuspegitik

1982an argitaratu zuen Itxaro Bordak lehen poesia liburua; harrezkero, genero ezberdinetako hamaika argitalpen ditu; 2002an Euskadi saria jaso zuen '%100 basque' eleberriarekin. Bere helburua herri xehearentzat idaztea dela dio lapurtarrak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Ipar Euskal Herriko literatura sorkuntza gertutik ezagutzeko aukera emango du datorren egue-nean, uztailaren 20an, 21:00etan, Goiena telebistan eskainiko den **EKT** (Euskal Kulturgintzaren Transmisioa) saioak. Bilbo Hiria irratiko Ane Zabala kazetariak Itxaro Borda (Baiona, 1959) idazlea elkarrizketatuko du.

Aspalditik dihardu Bordak literatura sorkuntzan; genero ezberdinetako liburuak argitaratzeaz gainera, askotariko artikulua idazten ditu egunkarrietan eta aldizkarietan.



Itxaro Borda idazlea. GOIENA

Postari idazlea

Ironiarik gabe ez dakiela idazten dio, hori du Bordak ikur eta adierazteko tresna nagusi. Hamaika poesia eta nobela argitaratu izan dituen arren, aitortzen du oraindik ere kostatu egiten zaiola bere burua idazle moduan aurkeztea. "Ogibidez postaria naiz, eta, Iparraldeko sortzaile

gehien moduan, nik ere nire ofizioari ebatzen diot idazteko denbora, ez baikara idaztetik bizi. Gaztaroan, berriz, *Herria* aldizkarian idazten nuenean, lasai asko nioen idazlea nintzela", dio, barrez, Bordak.

Euskaldun berritua

6 urterekin eskolan hasi zenean euskara galdu zuela kontatzen du. "Parisko osaba batek Piarres Lafitteren hiztegiak bidaltzen zizkigun eta horiei eta *Herria* aldizkariari esker berreskuratu nuen ama-hizkuntza. Ez dut irudikatzen nire idazkera euskaraz ez bada eta Iparraldeko eremu geografikotik kanpo; hala ere, hizkuntza aniztasunaren onurak aldarrikatzen ditut. Beti uste izan dut hiru opari jaso izan ditudala bizitzan: emakumea jaiotzea; behe mailako klase sozialekoa izatea; eta herri edo nazio txiki batekoa izatea".

Maiatz aldizkari-argitaletxea

1982an Luzien Etchezaharretarekin elkarlanean sortu zuen Maiatz, eta haren bitartez kaleratu zuen *Bizitza nola badoan* lehen poesia liburua; orain dela gutxi, bide beretik argitaratu du *Odolak su gabe diraki* izeneko lehen antzerki luzea.

Bertan behera geratu zen EHZ jaialdiari elkartasun uholdea

AED eta EHE elkarten eskutik, Eider Garrok eta Leire Etzezarretak kontzertua eskaini zuten atzo, eguna

A. A. ARRASATE

Pasa den asteburuan ziren Iparraldeko Euskal Herrian Zuzenean elkarteak 22. EHZ jaialdia egitekoak, baina eguraldiak behartuta bertan behera utzi behar izan zuten.

Jaialdia hasteko ordu gutxi falta zirela eman zuten antolatzailerak albistearen berri eta segituan hedatu zen sare sozialen bitartez elkartearekiko elkartasuna. "Pena handiz hartu genuen erabaki hori baina ezin genuen jaialdiko parte hartzaileen segurtasuna bermatu. Ika-

ragarria da jasotzen ari garen elkartasun keinu eta mezu pila. Alimaleko plazera eta indarra ematen digute guri laguntzeko antolatutako ekimenek; berdin da diru asko edo gutxi ematen duten. Guztiei eskerrik asko!", kontatu du EHZ elkarte bideramale Jon Irazabalek Arrasate Irratian.

Euskal balioak dituen jaialdia

Uda sasoian hainbat musika jaialdi egiten dira Euskal Herrian, baina, horien artean, EHZ berezia dela dio Irazabalek. "El-

kartean hasieratik dugun helburua da, jaialdiaren bitartez nahi dugula sortu gure amets-tako gizarte eredu. Horretarako baditugu defenditzen ditugun balio batzuk, horien artean: euskararena, feminismoarena, ekologiarena, bereziki tokiko musika ona entzuteko aukera ematea, baina nazioarteko taldeei ere lekua egitea... Ikusteko dago datorren urtean EHZ jaialdiak hartuko duen bidea; seguru aski, aldaketa batzuk egingo ditugu".

Jaialdiari nola lagundu

Aurreko edizioek eragindako diru-zuloa estaltzea zen aurten asmoa. "Oraingoaren gastuak moldatuko ditugu baina zuloak hor jarraitzen du; lagundu gura dutenek gure Facebooken aurkituko dituzte zabaldu ditugun kontu korronteen zenbakiak".

Goiena Klubaren txokoa

Irailean sari gehiagorekin bueltan izango gara!



Irabazi bi lagunendako otordua

ERRASTI JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkariako *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (uztailetik aurrera): 30 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdigunean logela bateko etxebizitza ematen da errentan. Bizitzera sartzeko prest dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 34 88 52

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan abuztuan. Antiguo auzoan. Ondarreta hondartzatik gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 73 40 09

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan uztailean eta abuztuan. Antiguo auzoan dago, hondartzatik bost minutura. Lau logela dauzka eta 6-7 pertsona egoteko modukoa. Etxeaz gain garajea ere errentan hartzeko aukera. Deitu 15:00etatik aurrera zenbaki honetara: 685 77 25 27

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan, baserri inguruan. 130 metro

koadro. Hiru logela eta bi bainugela. Lorategia eta ortua. Berokuntza eta su baxua. Denbora luzerako emango litzateke errentan. Hilean 750 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607 79 12 32 (Esther)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. 25 urteko neska arrasatearra. Arrasaten errentan hartzeko pisu bila nabil, erdigunean posible bada. 695 85 49 92

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Hilean gehienez 400 edo 500 euro ordain ditzaket. 943 50 47 29

Elgeta. Apartamentua hartuko nuke errentan. Deitu telefono honetara: 627 89 55 41

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, kontratuarekin. Neska edo emakume batendako. Deitu telefono honetara: 636 30 37 75

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje moduan erabil daitekeen 79 metro koadroko lokala saldu edo errentan ematen da erdigunean, Burdiñatan. 607 34 90 43

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia ematen da errentan Jokin Zaitegi plazan. Deitu honetara: 629 45 92 00

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ANTZUOLA

Esperientziadun
ile-apaintzailea
behar da
irailean hasteko.
610 06 94 17

OÑATI

Ile-apaintzailea
behar da
irailean hasteko.
619 49 17 33

SUKALDARIA

Sukaldaria behar da Debagoienarako.
Ezinbestekoa da urtebeteko
esperientzia izatea.
Interesatuok, kurrikuluma bidali:
ausolan@ausolan.com

ETXE AGENTZIARAKO LANGILEA

Pertsona bat behar da egun erdiz,
arratsaldez, bezeroen arretan eta
ofimatan lan egiteko. Adobe programen
ezagutza kontuan hartuko da. Bidali CV:
inmodebagoiena@gmail.com

BAKE EPAILEA ETA
HAREN ORDEZKOA

Bake epailea eta haren ordezkoa
izendatzeko prozesua zabaldu du
Arrasateko Udalak. Oinarriak udal
webgunean ikus daitezke.

Izena emateko epea:
abuztuaren 3an bukatuko da.

Informazio gehiago udalaren
Pertsonal Sailean eskura daiteke
(943 25 20 04).



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Pertsonal Salla

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenezko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera utzerik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Debagoiena. 20 hilabete-ko esperientzia duen emakumea nagusi eta umeak zaintzen edota etxe, atari, elkarte eta abarrak garbitzen jarduteko gertu. 602 36 50 33

Debagoiena. Bertako neska arduratsua gertu umeak zaintzeko, nagusiak zaindu edota paseatzera laguntzeko eta ordutegia garbitzeko egiteko. Euskaraz moldatzen naiz. 695 73 87 95

Debagoiena. Emakume arduratsua lan bila: etxean zaintzen, garbitzen, sukaldetan egiten edota nagusiak zaintzen. Esperientziaduna. 632 52 10 88

Debagoiena. Esperientzia handia eta erreferentziak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Etxe, atari eta abarrak garbitzen, nagusiak zaintzen edota

sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Orduka eta jardun osoz. 688 29 97 05

Debagoiena. Neska arduratsua garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko gertu. 632 30 18 47

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan eskarmentua daukan gizonetara, ordutegia edo etxean bertan lan egiteko prest. 632 26 40 16

Debagoiena. Zerbitzari modua edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 685 64 85 64

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Ingelesa Bergaran. Ume bati ingeleseko eskolak emateko norbait behar dugu. Astelehen, eguazten eta ostiralean, 11:00etatik 13:00etara bitartean izango litzateke. Presaz-

koa da eta berehala hasi-ko litzateke. 696 84 19 51

8. DENETARIK

806. GALDU

Ninfa bat galdu zaigu. Oñatiko Berezoa auzoko Agerre baserritik ninfa batek ihes egin digu. Grista da, buruan gandarra eta masail gorriak dituen txoria. Deitu telefono zenbaki honetara eta Asierengatik galdetu 680 16 93 22.

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Aleman mintzapraktika. Egubakoitzero elkartzen gara Bergaran, 18:30etik aurrera, alemana praktikatzeko. Zuk ere parte hartu gura baduzu, Facebookeko 'Stammtisch Bergara' taldean sartu edo deitu zenbaki honetara: 663 65 76 06

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



IMANOL SORIANO

ESKOEXTREM LASTERKETAKO IRUDIAK

'Harmailatik' Astelehena, 21:30



GOIENA

JULEN IRIONDO SUSANA AXPEREKEN BERBETAN

'Ikustenda: Iparrerat' Eguena, 21:30

EGUBAKOITZA, 7	ZAPATUA, 8	DOMEKA, 9
10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Onein: Gnocciak 11:30 Hemen Debagoiena 12:30 Ikustenda Iparrerat: Mariasun Leta 13:00 Kantari 5 13:30 Hemen Debagoiena 14:30 Gaurkoak 14:45 EKT Jose Mari Larramendi 15:15 Hemen Debagoiena 16:15 Gaurkoak 16:30 Onein: Gnocciak 17:00 Gaurkoak 17:15 Galdegazte: Hodei Beitia 17:45 Gaurkoak 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Kantari 6 19:30 Ikustenda Iparrerat: Mariasun Leta 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 EKT Jose Mari Larramendi 21:30 Amaia DJ 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Osoko bilkura: Oñati	09:00 Kantari 6 09:30 Korapilo 10:00 Kantari 5 10:30 Osoko bilkura: Oñati 11:30 Hemen Debagoiena 12:30 Jaiak 2017 13:30 Onein: Gnocciak 14:00 Osoko bilkura: Oñati 15:00 Hemen Debagoiena 16:00 Kantari 5 16:30 Korapilo 17:00 Kantari 6 17:30 Amaia DJ 18:00 Jaiak 2017 19:00 Hemen Debagoiena 20:00 Kantari 5 20:30 Amaia DJ 21:00 Osoko bilkura: Oñati 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Jaiak 2017	08:30 Dantza erakustaldia: Ross 10:00 Korapilo 10:30 Kantari 6 11:00 EKT Jose Mari Larramendi 11:30 Galdegazte: Hodei Beitia 12:30 Onein: Gnocciak 13:00 Hemen Debagoiena 14:00 Jaiak 2017 15:00 Dantza erakustaldia: Ross 16:30 Kantari 5 17:00 Korapilo 17:30 Hemen Debagoienean 18:30 Ur eta Lur 19:00 Osoko bilkura: Oñati 20:00 Kantari 6 20:30 Hemen Debagoiena 21:30 Jaiak 2017 22:30 Ikustenda Iparrerat: Mariasun Leta 23:00 Hemen Debagoiena

ASTELEHENA, 10

ELKARRIZKETA ETA
ERREPORTAJEAK

'Hemen Debagoiena'

Astelehena, 18:00/20:00/22:00

MARTITZENA, 11

EGUNEKO ALBISTE
GARRANTZITSUENAK

'Gaurkoak'

Martitzena, 14:30



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/televista
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.



GOIENA

EGUAZTENA, 12

SAN KRISTOBAL

'Hemen Debagoiena'

Eguaztena, 18:00/20:00/22:00

EGUENA, 13

ITXARO BORDAREKIN
KULTURAZ BERBETAN

'EKT'

Eguena, 21:00

ESKER ONA



Ana Vicente Morales

2017ko ekainaren 23an hil zen, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko uztailaren 7an.

ESKER ONA



Sabina Dolara Mendizabal

Biziola baserrikoa
Paulino Ibaberen alarguna

2017ko ekainaren 19an hil zen, 97 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra-meza domekan izango da, uztailaren 9an, 11:00etan, Gesalibarko Santa Ageda elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldeztu aurretik eskerrik asko.

Arrasaten (Gesalibar), 2017ko uztailaren 7an.

ESKER ONA



Salome Azurmendi Garro

Luis Zubillagaren alarguna

2017ko uztailaren 4an hil zen, 84 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko uztailaren 7an.

OROIGARRIA

Ana Mari Irazoqui Belasti

Antonio Villarren alarguna

2017ko uztailaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

Zure irrifarra daukagularik albuana beti izango zaitugu amama goguan.

Zure bilobak: Eneritz eta Declan, Amaia eta Andoni, Ane eta Aritz, Unai, Aitor, Garazi eta Jon.

Oñatin, 2017ko uztailaren 7an.
Helbidea: Santuekua baserria (Santxolopetegi auzoa).

OROIGARRIA



Jose Monterroso Martinez

'Popeye'

2017ko uztailaren 1ean hil zen, 44 urte zituela.

Beti zurekin, beti gurekin.



Intxortako lehoiak.
Elgetan, 2017ko uztailaren 7an.

OROIGARRIA

Arantza Revillas Ramila

Ikastolako gurasoa

2017ko uztailaren 5ean hil zen.

Har beza familiak gure atsekabe-mina.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2017ko uztailaren 7an.

HILDAKOAK

Ana Vicente Morales. Bergaran, ekainaren 23an. 68 urte.
M. Milagros Otamendi Anduaga. Arrasaten, ekainaren 27an. 67 urte.
Antonio Diaz-Sarabia Azkarate. Arrasaten, ekainaren 28an. 80 urte.
M. Arantzazu Azurmendi Agirre. Arrasaten, ekainaren 29an. 67 urte.
Jesus Mari Kortazar Garro. Arrasaten, uztailaren 1ean. 71 urte.
Jose Monterroso Martinez. Bergaran, uztailaren 1ean. 44 urte.
Moises Alberdi Egaña. Bergaran, uztailaren 1ean. 78 urte.
Esther Saiz Linaje. Arrasaten, uztailaren 2an. 86 urte.
Miren Matxalen Valero Barredo. Arrasaten, uztailaren 3an. 43 urte.
Ana Mari Irazoqui Belasti. Oñatin, uztailaren 3an. 86 urte.
Salome Azurmendi Garro. Arrasaten, uztailaren 4an. 84 urte.
Josean Aiastui Aretxaga. Antzuolan, uztailaren 5ean. 55 urte.
Arantza Revillas Ramila. Arrasaten, uztailaren 5ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 7 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 8 FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Domeka, 9 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 10 AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Martitzena, 11 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztiena, 12 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 13 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 7 OIARIBE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 8 ESTELA: Matxategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 9 ESTELA: Matxategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 10 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 11 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztiena, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 13 OIARIBE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 7 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 8 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 9 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 10 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 11 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztiena, 12 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 13 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017ko abuztuaren 15era arte:
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri
943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4
943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

URTEURRENA



Eufemio Gullon Garcia

2016ko uztailaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 9an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2017ko uztailaren 7an.

URTEURRENA



Amaia Lazpiur Alberdi

2016ko uztailaren 5ean hil zen, 66 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokan.

Ama, ez zaitugu inoiz ahaztuko, gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2017ko uztailaren 7an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroiagarria Edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Ezkondu zirenetik, 25 urte

Karmele Garitano eta Javi Elorza bergararrek 25 urte beteko dituzte ezkontuta, uztailaren 11n. Kuadrillakoek mezua helarazi gura izan diete: "Zorionak! Hala jarraitu urte askoan".

2. Otamendi eta Legaristi ezkontzear

Aitor Otamendi eta Izaskun Legaristi Oñatiko udaletxean ezkontuko dira zapatuan. Bikotea zoriondu gura izan du familiak: "Zorionak eta ondo-ondo ibili eztei-bidaian!".

3. Bihar ezkontuko dira

Cristina Martin eta Raul Gomez oñatiarrak zapatuan ezkontuko dira. "Zorionak, bikote! Ondo ospatu eguna! Muxu potolo bat", diote San Lorentzoko lagunek.

4. Gazte Konkisen indartsu

Ekainaren 28tik 30era bitartean, Gazte Konkis egitasmoan esku hartu zuten Oñatiko gaztelekuko hainbat kidek. "Parte hartzaileak indartsu", esan dute antolatzaileek.

#DIOTENEZ

SAN PETERS OI!

Ibarreko zenbait musikarik San Peters Oi! taldea sortu zuten, **Eskoriatzako jaiei** begira; herriko jaietan kontzertua eskaintzea zen asmoa. Emanaldiaren ostean, **egitasmoa eten gura** zuten.

Dena den, arrakasta handia izan omen zuen eskainitako kontzertuak. Beraz, asmoak nahasi zitzaizkien. Bide horretan, orain, ez dute agertoki gainean **segitzeko aukera** baztertzen.

INGURUMEN IRTEERAK

Oñatin egiten ari diren ingurumen irteerek **arrakasta** izan omen dute herriko gazteen artean. **Jende ugari** eman du izena egitasmoan; adin ezberdinetako jendea dabil, bakoitza dagokion taldean –adin tartearen arabera–.

Astelehenean, uztailaren 3an, hasi zituzten irteerak; eta 21era bitartean iraungo du egitasmoak. Gaur-gaurkoz, **talde guztiek** dute irteeraren bat egina. "Oñati eta

bere altxorrak" ezagutarazi gura dituzte antolatzaileek.

GAUARGI, SANMIGELETAN

Oñatiko San Migel jaietan, **danborrada egunean**, Gauargi taldeak jardungo omen du herriko plazako agertokian. Eguneko emanaldia **bi zatitan** banatuko dute: arratsaldean eta danborrada ostean –gauean– jardungo dute.

Gaur-gaurkoz, egitarauko azken hitzorduak ixten dihardu Oñatiko

jai batzordeak. Informazio gehiago eskainiko dute **datozen asteetan**.

GOROSTIZA HAUR PARKEA

Arrasateko Gorostiza jolas parkea **estali** berri dute; joan den astean estreinatu zuten. Horrek izan du eraginik auzoaren egunerokoan. Bada, herriko **beste auzoetako** guraso eta neska-mutiko ugari gerturatu dira bertara azken astean. Horrek **trafiko arazoak** eragin omen ditu inguruan;

besteak beste, aparkaleku falta dela eta.

OMENALDIA TABERNARIARI

Arrasateko tabernari bat omenduko dute **gaur**, egubakoitza, alde zaharreko taberna ezagun batean; bertan jardun du lanean aurreko astera arte. Guztira, **hamar urte** baino gehiago egon da barra atzean, baina, orain, lanbidea baztertzea erabaki du, proiektu berri bati ekin guran.

ZORION AGURRAK



ONATI
Izar eta Ion Alzelai
Izarrek 4 urte,
uztailaren 11n eta
Ionak 41 urte, 14an.
Zorionak eta urte
askotako, bikote! Ondo
pasatu zuen egunetan,
famiariaren partetik.
Patxo handi bat.



BERGARA
Martin Lazkano Bilbao
Uztailaren 10ean, 3
urte. Zorionak, Martin!
Patxo erraldoi bat
etxeko danon partetik!



BERGARA
Ekaitz Unamuno Marzan
Uztailaren 9an, 6 urte.
Zorionak eta urte
askotarako, Ekaitz!
Ondo pasatu eguna
etxekoen eta, batez
ere, Julenen partetik.
Muxu potolo bat.



ARRASATE
Cristina Corral Ezkurra
Uztailaren 9an,
urtebetetzea. Zorionak!
Primeran pasatu zure
urtebetetze eguna.
Patxo handi bat
famiariaren eta
lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Oier Oroiz Antoñana
Uztailaren 8an, 5 urte.
Zorionak, Oier! Oso
ondo pasatu zure
urtebetetze egunian
eta musu potolo bat
etxekoen eta, bereziki,
zure lehengusinen
partetik.



BERGARA
Jone Arrieta Gorosabel
Uztailaren 7an, 13 urte.
Zorionak, prezioxa! Zure
eguna merezi duzun
bezala ospatu eta
disfruta dezazula.
Eskerrik asko
danagatik, bihotza.



BERGARA
Ibai Sanchez Mugica
Uztailaren 6an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun!
Oso ondo pasatu zure
egunean! Patxo handi
bat famiariakoen eta,
bereziki, Oierren,
amatxoren eta
aitatxoren partetik.



ANTZUOLA
Ainara Etxezarreta Mugica
Uztailaren 6an, 6 urte.
Urte askotarako.
Etxeko danen partetik.
Eta, batez ere, zure
ahizpa Aitziber eta
lehengusu-lehengusina
Elene, Irati eta Aitor.



BERGARA
Ekaitz Curado Uzin
Uztailaren 6an, 11
urte. Zorionak, Ekaitz!
Ondo pasatu zure
eguna. Gora San
Fermin eta gora Real!
Patxo handi bat denon
partetik. Batez be, Izar,
Oier, Elene eta Amets.



BERGARA
Alain Alberdi Abajo
Uztailaren 6an, 6 urte.
Zorionak, Alain,
Ekhiren, aitatxoren eta
amatxoren partetik!
Asko maite zaittugu!



ONATI
Hegoi Lopez
Uztailaren 5ean, 2
urte. Zorionak,
txapeldun! Egun politta
pasatu famiariarekin
eta lagunekin! *Patxote*
handi bat etxeko
danon eta, bereziki,
Galderren partetik!



BERGARA
Nora Ibarzabal Velez de Mendizabal
Uztailaren 5ean, 6 urte
etxeko handiak!
Zorionak, maittia! Egun
zoragarrixa pasatu!
Patxo bat Aneren,
lkerren, aitatxoren eta
amatxoren partetik.



BERGARA
Ibai Segurola Garate
Uztailaren 5ean, 4
urte. Zorionak, Ibai,
guapo! Ondo-ondo
pasatu zure eguna.
Muxu handi bat!
Aitabxo, amatxo,
aiton-amonak eta zure
lehengusu Markel.



BERGARA
Unai Sanchez Gonzalez
Uztailaren 4an, 2 urte.
Zorionak, maitia! 2
urte! Ze handi egin
zaren! Muxu handi bat
zure famiariaren
partetik. Asko maite
zaittugu!



ONATI
Eñaut eta Andoitz Biain
Andoitzek 30 urte, uztailaren 4an eta Eñautek 3
urte, 9an. Zorionak, bikote! Muxu asko famiariaren
partetik eta ondo pasatu zuen egunak.



ONATI
Odei Palacin Aldea
Uztailaren 4an, 10
urte. Zorionak,
txapeldun! Oso ondo
pasatu eguna. 10
patxo handi, danon
partetik. Mua!



ONATI
Nahia Guridi Urtaza
Uztailaren 3an, 4 urte.
Zorionak, maittia!
Ondo pasatu eguna eta
muxu handi bat
aitatxoren eta
amatxoren partetik!



ARRASATE
Eneko Abarrategi Segura
Uztailaren 3an, 6 urte.
Zorionak, bihotz! Zelako
handi eta mutiko jatorra
zaren! Mila patxo
seigarren urtebetetzean.
Famiariaren partetik,
zorionak, Eneko!



ONATI
Alaia Zuloaga Aranburu
Uztailaren 3an, 2 urte.
Zorionak, maite!
Jadanik bi urtetxo.
Besarkada handi bat
eta muxu potolo bat,
familia danaren
partetik.



ONATI
Lierni Arregi Galdos
Uztailaren 2an, 43
urte. Zorionak eta urte
askotarako
amatxo-izeko Lierni.
Patxo handi-handi bat,
etxeko danen partetik.



ARRASATE
Antonio Prol
Uztailaren 2an, 41 urte. Zorionak, aitatxo. Etxekoen
partetik muxu handi bat eta ondo pasatu zure
egunean. Maite zaitugu.



ONATI
Jose Antonio Amundarain
Uztailaren 1ean, 70 urte. Urte askotarako, aittatta!
Muxuak etxekoen partetik eta segi horrelako gazte!



ARRASATE
Bea Caballero
Ekainaren 30ean.
Urtebetetze borobil
honetan, espero dugu
ondo pasatzea. Patxo
handi bat Rosiren eta
Olatzen partetik!



BERGARA
Markel Larrañaga Fernandez
Ekainaren 30ean, 7
urte. Zorionak,
txapeldun! Ondo
pasatu zure
urtebetetze eguna.
Muxu handi bat,
etxeko danen partetik.



ARETXABALETA
Alana Alonso Panadero
Ekainaren 28an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Oso
ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Asko maite
zaittugu! Etxeko danon eta, bereziki, Julenen
partetik!!



BERGARA
Julen Oruna Martinez
Ekainaren 24an, 2
urte. Zu zara gu denon
argia! Segi horrela,
txapeldun! Asko maite
zaittugu!



ONATI
Niko Regueiro Madina
Ekainaren 23an, 2
urte. Zorionak, pottoko!
Etxeko zoramena
zarela. Pa handi bat,
danon partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak;
hiru bide dituzu Goienaren bidez
zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta
<http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean
sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko
da webgunean eta egubakoitzean Goiena
paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus
helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria,
urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariatzaren
batera edo deitu 943 25 05 05
telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

ZINEMA

GASTEIZ

BOULEVARD

Baby driver
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 23:45. Egubakoitzetik eguaztena: 15:50, 18:10, 20:30, 22:45.

El hombre de hierro
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 23:40. Egubakoitzetik eguenera: 16:10, 18:40, 21:10.

Llega la noche
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 00:15. Egubakoitzeik eguenera: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

La guerra del planeta de los simios
Eguaztena eta eguena: 15:45, 16:45, 18:30, 21:15. Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 00:00.

Gru 3
Egubakoitzetik eguenera: 16:00,

17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00, 22:00. Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 23:00, 00:00. Egubakoitzetik martitzenera: 16:30, 18:30, 20:30.

Wonder woman
Egubakoitza, zapatua eta eguaztena: 00:00. Egubakoitzetik martitzenera: 19:30, 22:15. Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:30, 21:15.

El bebe jefazo
Egubakoitzetik domekara: 15:50.

La momia
Egubakoitzetik eguenera: 17:50, 20:10, 22:30.

Despido procedente
Astelehenetik eguenera: 15:50.

Piratas del Caribe
Egubakoitzetik eguenera: 16:45. Egubakoitzetik martitzenera: 22:30.

Un don excepcional
Egubakoitzetik eguenera: 19:15, 21:20.

Capitan calzoncillos
Egubakoitzeik martitzenera: 17:30.

Los vigilantes de la playa
Egubakoitzetik eguenera: 16:20.

Señor, dame paciencia
Egubakoitzetik eguenera: 18:40, 20:40, 22:40.

FLORIDA
Gru 3
Egubakoitzetik eguenera: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Un don excepcional
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 20:35, 22:30.

El bebe jefazo
Egubakoitzetik eguenera: 12:00.

Maudie
Egubakoitzetik eguenera: 18:20.

Brava
Egubakoitzetik

eguenera: 16:30, 20:30, 22:30.

Nur eta dragoiaren gaztelua
Egubakoitzetik eguenera: 12:00.

Capitan calzoncillos
Egubakoitzetik eguenera: 12:00.

Baby driver
Egubakoitzetik martitzenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Estado Unidos del amor
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 20:30, 22:30.

La guerra del planeta de los simios
Egunaztena eta eguena: 17:00, 19:40, 22:30.

Llega la noche
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 20:30, 22:30.

Señor, dame paciencia
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 20:30, 22:30.

Selfie
Egubakoitzetik eguenera: 18:30.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 7

OÑATI Odol ateratzea

Udako oporren aurreko azkena. *Enpresagintzan, 17:00etan.*

ANTZUOLA AKERen batzar orokorra

Denboraldi berrirako kirol asmoen eta diru kontuen berri emango dute. *Olaranen, 18:45ean.*

OÑATI San Migel pilota txapelketa

Kadete eta gazte mailetakoko partiduak. *Zubikoan, 18:45ean.*

OÑATI Trianako jaiak

Astotrastoren jaitsierarekin hasiko dituzte jaiak. *Auzoan bertan, 19:00etan.*

ARRASATE Shalom Shalom!! taldea

Musika beltza egiten duen taldea: funk, blues eta soul doinuekin. Taldekideak dira: Bea Asurmendi, Jon Garcia, Aitor Moreno, Ander Untzaga eta Asier Elias. *Jose Letona plazan, 20:00etan.*

BERGARA Shaun Booker-en kontzertua

Berumuga zikloa hasteko. *Espoloian, 22:00etan.*

BERGARA San Kristobal jaiak

Pinua sartu ostean (22:00), saiheskia, sagardoa eta txokolatea jateko eta edateko aukera. *Aldai-Egia auzoan, aipatutako orduan.*

OÑATI Egurra Eta Kitto, Trikimailu eta Jasan taldeak
Trianako jaiak. *Aipatutako lekuan, 22:00etan.*

ZAPATUA 8

ESKORIATZA EskoXtrem

Bi ibilbide egongo dira mendiko bizikletendako: 50 kilometrokoa bata (2.200 metroko desnibela), eta 38 kilometrokoa bestea (1.800 metroko desnibela). *Fernando Eskoriatza plazan, 09:00etan.*

ANTZUOLA Lehen BTT jaitsiera
Bizikleta jaitsiera egingo da egun osoan. 17:00etan, finalak. *Herrian, 09:00etan.*

ARETXABALETA Hiruko saskibaloi txapelketa
Benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak, gazteak eta seniorrak. *Herriko Plazan, 09:30ean.*

ARRASATE Arroza, aniztasunaren sinbolo
Arroza prestatuz aniztasuna bistaratzea, elkar ezagutzea eta integrazioa sustatu gura dute. *Seber Altuben, 10:30ean.*

ARRASATE Eskuterren topaketa
Erakusketa, motor biratxoa eta bazkaria egingo dituzte Mondrallyren bigarren topaketan. *Herriko Plazan, 10:30ean.*

OÑATI Trianako jaiak

Marrazki saioa (11:30), Ilinti kafea (15:00), mus txapelketa (16:00), txorimaloen kalejira (19:00) eta Trikidantz taldearen erromeria (23:00). *Auzoan, aipatutako orduetan.*

BERGARA 'Ibarra arkitektoaren Bergara' bisita gidatua
Ezkutuko Altxorrek egitasmoa. *Bergarako kaleak, 12:00etan.*

OÑATI Bisita gidatu bereziak
Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko, 13:00etan eta 17:00etan. *Turismo bulegoan, aipatutako orduetan.*

OÑATI San Migel pilota txapelketa
Kadete eta gazte mailetakoko partiduak. *Zubikoan, 18:45ean.*

OÑATI Arantzazu-Aloña ilunabarrean

Arantzazuko Parketxearen eskutik, irteera berezia. Aurrez izena, 943-78 28 94 telefonoan. Sarrerak, hiru euro. *Parketxean, 20:00etan.*

BERGARA Bergarako Orfeoia
Kontzertua egingo dute. *Arrizuriaga parkean, 20:00etan.*

BERGARA Obeneuke taldea
San Kristobal jaiak. *Aldai-Egia auzoan, 21:00etan.*

ESKORIATZA Errekan Gora: Trio Medianoche

Pedro Bartra eta Jesus Mari Bastida eibartarrek eta Donostian bizi den Bernardo Aguilera boliviarrak osatzen dute. Musika latinoamerikarra dute hizpide. *Zaldibar plazan, 22:30ean.*

DOMEKA 9

ANTZUOLA Txirindularitza saria
Lehendakari Txapelketako proba. *Herriko plazan, 09:30ean.*

ESKORIATZA San Kristobaleko erromeriara mendi irteera
Makilla eskuen eta ibili basuen egitasmoaren baitan. Aipatzaga auzoan, 10:00etan.

OÑATI 'Busti zaitetz' kanpaina
Esklerosi anizkoitza dutenen aldeko ekintzak, Zubikoan igeri egiteko aukera eta Foruen plazan informazio puntua. *Aipatutako lekuetan, 10:00etan.*

ARRASATE 'Busti zaitetz' kanpaina
Esklerosi anizkoitza dutenen aldeko ekintzak, Musakolan eta Seber Altube plazan. *Aipatutako lekuetan, 10:00etan.*

OÑATI Trianako jaiak
10:00etan diana; 12:30ean meza, eta, ostean, luntxa; 15:00etan bazkaria; 19:00etan erromeria Trikitonbo taldearekin; eta, 21:00etan *Xolonpo*-ren omenezko azken traka. *Trianan, aipatutako orduetan.*

ARETXABALETA Auto telegidatuen erakustaldia
Topaketa egingo dute: 11:00-14:00 eta 16:00-18:00. *Herriko Plazan, aipatutako orduetan.*

BERGARA San Kristobal jaiak
Meza nagusia (12:00) eta, ostean, erretiratuendako luntxa, eta herri kirolak *Bihurri*-ren eskutik. *Aldai-Egia auzoan.*

KRIKITA

Verano 1993 ★★★★★

Zuz.: Carla Simon. **Herr.:** Espainia (2016). **Aktoreak:** Laura Artigas, Paula Robles, Bruna Cusi, David Verdaguer.

Dolu prozesua

ANTONIO ZABALA

Carla Simonen pelikulan, 6 urteko haur baten dolu prozesua azaltzen zaigu. Aita lehenago, eta, duela gutxi, ama hies gaixotasunaz hil dira. Frida neskatoa osaba-izebarekin eta bere lehengusina txikiarekin bizitzera joango da. Euren arteko moldaera-aldia ikusiko dugu. Fridarendako ez da batere erraza zer gertatzen ari den ulertzea; ezta dituen sentimenduak bideratzea. Senideek Frida babestu nahi dute. Familia berri bat sortu, baina prozesu horrek denbora eskatzen du. Gurasoen lana egiten dute, baina ez dira bere gurasoak. Eta, harreman horietan, gertutasun uneak egongo dira, eta baita jeloskortasun eta urrutze uneak ere. Carla Simon

Fridaren sentimenduak islatzen arduratzen da. Haurrak zer ikusten eta entzuten duen heltzen zaigu, eta, honekin batera, gertatzen ari denaren aurrean duen erreakzioa: bizi den senideekin dituen momentu onak eta txarrak; gurasoek izandako gaixotasunarengatik jendeak duen mesfidantza eta horri buruz mantentzen den isiltasuna; amonaren eragin erlijiosoa... Alde batetik, familiaren babesa antzematen du, baina, beste alde batetik, bakarrik eta galdua sentitzen da. Mota desberdinetako sentimenduak ditu eta horiek nola bideratzen dituen ezagutuko dugu. Zuzendariak ez ditu egoerak behartu nahi, eta, isil-misilka, pertsonaiaren erretratu zehatza egiten du.



GOIENA

ARAMAIO San Kristobal

12:00etan meza, Bizente Goikoetxea abesbatzarekin; 15:00etan bazkaria; 17:00etan ipuin kontaketa eta trikitilariak; eta, 17:30ean bolo txapelketa. *Uribarrin, 12:00etan.*

ARRASATE San Balerio ermitara bisita

Ezkutuko Altxorrek egitasmoan, Meatzerreka auzoko ermita ezagutzeko aukera. *Ermitan, 12:00etan.*

OÑATI Bisita gidatu bereziak

Sancti Spiritus unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko, 13:00etan eta 17:00etan. Aurrez izena eman behar da 943-78 34 53 telefonon. *Turismo bulegoan, aipatutako orduetan.*

ANTZUOLA Erretiratuen bazkaria

Bazkaldu ostean, dantzaldia. *Herriko eskolan, 14:30ean.*

ARRASATE Zamarra Eta Aterkia taldea

Xabier Zamargileak *Beharbada bai, beharbada ez* diskoa aurkeztuko du. Jazzaren harmoniak pop musikaren soinuarekin batzen ditu musikari nafarrak. *Jose Letona plazan, 20:00etan.*

ASTELEHENA 10**BERGARA San Kristobal eguna**

12:00etan meza, eta, 21:00etan afaria. *Aldai-Egia auzoan.*

ESKORIATZA Errekan Gora: Aukeran Dantza Taldea

Dantza tradizionalaren eta garaikidearen bateratzean oinarritzen da Edu Muruamendiarrak bergararrak sortutako konpainiaren ikuskizuna. Errekan Gora egitasmoaren lehen emanaldia izango da. *Gaur, egubakoitza, Eduardo Gorosarri plazan, 22:30ean.*

OÑATI Jailetako hainbat deialditan epea bukatu

Gaur bukatzen dira Herri Eguneko talo taberna eta Atzeko kaleko txosna kudeatzeko eta herri bazkaria zerbitzatzeko deialdietan izena emateko epeak. Eskaerak udal bulegoetan egin behar dira. *Aldai-Egia auzoan.*

ESKORIATZA Ipuin kontaketa ingelesez

LH1, LH2 eta LH3 mailetako haurrendako ipuin kontaketa saioa egingo dute, udalekuen lehen egunean. *Zaldibarren, 15:30ean.*

ARETXABALETA Pintura ikastaroko lanak ikusgai

Ikasturtean zehar Ainhoa Cabero irakaslearekin landutako margolanen bilduma. *Arkupen, 18:00etan.*

OÑATI San Kristobal eguna

18:30ean irudia jaso Olabarrietan, 19:30ean meza eta ibilgailuen bedeinkapena eta 21:00etan afaria. *Aipatutako lekuetan eta orduetan.*

ESKORIATZA Eduardo

Gorosarriri buruzko erakusketa Ikusgai abuztuaren 31ra arte. *Ibarraundin, egunero.*

ARETXABALETA San Kristobal eguna Larrinon

19:00etan meza nagusia, eta, ostean, mokadutxo. *Larrinon, aipatutako orduan.*

MARTITZENA 11**OÑATI Gorlizko ur parkera**

LH6ko ikasleen irteera. Leioan bi gau egingo dituzte. *Gaztelekuan, 09:00etan.*

BERGARA Esteban Kerexetaren eskulturak

Erakusketa zabalik egongo da hilaren 23ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ELGETA Mendiko federatu txartelak

Kantsatzeke Mendi Taldeak bazkide egiteko zein udara begira federatzeko edo estaldura handitzeko aukera eskainiko du. *Kultura etxean, 19:00etan.*

EGUAZTENA 12**BERGARA Kafe Konpon**

Etoko tresnak konpontzeko tailerra. *San Joxepe elkartearen, 16:00etan.*

OÑATI Danborradako entsegua

Haur danborradako dantzariak egingo dute entsegua. *Eltzian, 18:30ean.*

ARETXABALETA 'Haiek naiz' ikuskizuna

Rojo Telon taldearen eskutik. Hiru emakumek topo egingo dute eta "bidaia emozional intimoa" hasiko dute elkarrekin. *Mitarte kalean, 19:00etan.*

OÑATI Old Chard Blues taldea

Kalean programako kontzertua. *San Lorentzoko ermitaren kanpoaldean, 19:00etan.*

ARETXABALETA Jasan taldea

Kontzertua egingo du, Loramendi elkarteak gonbidatuta. *Haizea tabernan, 19:30ean.*

BERGARA 'Tom txiki' pelikula

Haurrendako pelikula, euskaraz. Eguraldi txarrarekin, Seminarioan. *Espolioan, 19:00etan.*

BERGARA 'Comancheria' pelikula

Helduendako pelikula. Eguraldi txarrarekin, Seminarioko karpan. *Espolioan, 22:00etan.*

EGUENA 13**ANTZUOLA Jaien hasiera**

12:00etan umeendako ikuskizuna; 13:30ean umeen herri bazkaria; 18:00etan buruhandien kalejira; 19:00etan meza eta salbea; 19:45ean jailetako zapiak ipintzea; 20:00etan ikurri dantza; 22:00etan Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearen erromeria; eta, 00:00etan Hontzaren jaitsiera. *Antzuolan.*

BERGARA 'Mendizaletasuna eta gizarte' erakusketa

Euskal Herriak mendiarekin duen lotura eta Bergarako Pol-Polen eskutik mendizaletasunak izandako bilakaera islatzen duen bilduma. *Laboratoriumen.*

OÑATI Bitz taldea

Kontzertua egingo du Oñatiko taldeak. *Gaztetxean, 19:00etan.*

OÑATI Garagardo azoka

Gaurtik domekara arte zabalduko dute Aloñaren aldeko karpa. *Foruen plazan, 20:00etan.*

GAURSA
RENT A CAR

Zure ibilgailu-alokairua GASTEIZEN

Gamarroko Atea, 46

618 88 12 42

rentacar@gaursa.com

www.gaursa-rentacar.com



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Kanpoko igerilekua dela eta

Uztail honetan sekulako arazoak sortu dira Agorrosingo igerilekuetako aforoa dela eta.

Gai horrek hautsak asko harrotu dituela eta, azalpen batzuk ematera nator.

Agorrosingo proiektu osoa Euzko Alderdi Jeltzaleak egin zuen, 2002. urte inguruan egin ere.

Bertan, ondo mugatuta utzi zituzten barruko igerilekuen lursaila eta kanpokoena.

2006an inauguratu zituen Victoriano Gallastegik barruko azpiegiturak; eta kanpoko igerilekua egiteko lursaila ere zehaztuta utzi zuen.

2008. urtean, berriz, hasi ginen gu geneukan lursailean kanpoko igerilekuak eraikitzen. Eta legeak, araudiak, eta abar beteta, daukaguna da egin zitekeen bakarra.

Eta penaz bada ere, aitortuko dut egoera honek ez daukala konponbide errazik epe motz-ertainean. 2002. urte inguru hartan erabaki zen nolako igerilekuak izango genituen, eta hori da orain daukaguna.

Bestelako alternatibak bilatu beharko ditu Udalak (Udal Gobernuak nahiz oposizioak) bergararron udako aisialdirako.

Gu, beti bezala, elkarlanerako prest.

BUKATZEKO

Sai arreak markatzen ari dira Orkatzategin

Gipuzkoako Foru Aldundiaren basanimalien eta landareen zerbitzuaren proiektuetako baten ekintza bat saiak markatzea egitea izango da. Gipuzkoan, Jaizkibelen eta Oñatin, Orkatzategin, egingo dituzte markaketak, haien datu ezberdinak ateratzeko

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Hegazti nekrofagoen ekarpena baliozkotzea, ekozerbitzuen emaile gisa, mendialdeko abeltzaintza estentsiboko jardueretan, bizikidetzaren sustatuz eta populazioen kontserbazio arriskuak aztertzeke proiektua jarri berri da martxan. Proiektu horren ekintzen artean, hegazti harraparia den sai arrea markatzea dago. Hala, Gipuzkoako sai arren dinamika ezagutzeko, nondik nora mugitzen diren, non jaten duten, habiak non egiten dituzten... halako ezagutgarriak jakiteko hasi dira markaketekin. Gipuzkoan bi zona aukeratu dira horretarako: bata, Jaizkibelen; eta bestea, Orkatzategin, Oñatin gauzatzen ari dena.

Saien dinamika ezagutzeko

Zehazki, sai arreen populazioen errolda koordinatuak antolatu eta analizatuko dira, ugalketan duten arrakasta ebaluatuko da, ekologia espaziala aztertuko da markatzeko programen bitartez eta satelite bidezko jarraipena egingo zaie. Bestalde, mintegi bat egingo da eta materialak argitaratuko dira abeltzaintza-aren eta sarraskijaleen elkarbi-



Saia markatuta.

zitari buruzko informazioa helarazteko, eta behatzeko eta interpretatzeko azpiegiturak txikiak ere instalatuko dituzte, haien ohiturez gehiago jakiteko, hain zuzen ere.

Txitak dagoeneko markatuta

Orkatzategin duela hiru aste hasi ziren saien markaketekin, eta dagoeneko lau txita marka-



Saiak, Urbian moxala jaten. JULEN IRIONDO

tu dituzte. Jaizkibelen, berriz, sei. Datorren astetik aurrera, berriz, helduak markatzen hasiko dira, eta, horretarako, kaio-la batzuetan janaria jarritz harapatuko dituzte hegazti harrapariak.

Datu berriak bilatzeko helburua

Foru Aldundiko basozainen arabera: "Sai asko markatuko dira, ekinaldi batean edo bi ekinalditan, seguruena. Datu orokorren arabera, 1981ean agertu ziren lehenengo saiak Orkatzategi inguruan, eta gaur egun, 50 bikotetik gora daude. Gradualki joan da kopurua handitzen; guk, ordutik, jarraipena egin diegu, baina ez dakigu nondik nora joaten diren... Hala, markaketarekin hainbat datu berri ateratzea espero dugu, baina lan hori egiteaz espezialistak arduratuko dira".

Biodibertsitatea kontserbatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiaren basanimalien eta landareen zerbitzua POCTEFA Ecogyp Interreg delako proiektuan sartuta dago, eta proiektu horren barruan hainbat ekintza gauzatuko dira. Horietako bat da saien markaketa eta azterketa, hiru urte iraungo duena, hain zuzen ere.

Pirinioetako biodibertsitatea kontserbatzeko helburuarekin, hegazti harraparien populazioak kudeatzeko esparru tekniko koordinatua eskaini nahi du proiektuak, hegazti horiek abeltzaintza eta ekoturismoa bezalako jarduerak produktiboei egiten dieten ekarpena balioztatuz eta eragile administrati- boen eta sektorialen arteko loturak indartuz.



Efizientzia energetikoa eta eguzki-energia termikoa
goi mailako teknikaria

Eraikinetako klimatizazio instalazioen diseinu, muntai eta mantentzeak egiten dira. Instalakuntza hauetan Eguzki-energia termikoko instalazioak eta beste energia berriztagarri batzuk nola integratzen diren ikasten da.

Industrian eta eraikinetan energia eraginkortasuna ebaluatzeko metodoak erabiliz, argiztapena, hotz eta bero instalazioak, ur instalazioak, energia berriztagarriak eta ziurtapen energetikoak aztertzen dira. Hori guztiori, era praktikoa eta metodologia kooperatiboak erabiliz. Baita DUAL sisteman ikasteko aukerarekin ere.

INDUSTRIAKO TXARTEL PROFESIONALAKI

Markina-Xemein • 94 616 90 02 • info@leartik.com • www.leartik.com

Guk gure etorkizuna eraikitzen dugu

lea artibai
ikastetxea
Etorkizuna eraikiz